



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



TALDE SEXU-ERASOAK ETA ALKOHOLAREKIN IZAN DEZAKETEN HARREMANA

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: Maddi Garcia Irazola

Zuzendaria: Mirari Gaztañaga Echeverria

KRIMINOLOGIAKO GRADUA

2019/2020

LABURPENA

Lan honetan sexu-erasoen inguruan arituko gara, talde sexu-erasoetaz zehazki. Hauek, alkoholaren kontsumoarekin izan dezaketen lotura aztertuko dugu. Bi problematiken artean arazorik dagoen aztertu nahi da, erasotzailea hurbilagotik ezagutu, haren tratamendua, estatistikak eta gizartearen pertzepzioa. Horri beste kontu batzuk gehituko dizkiogu, hala nola, alkoholaren kontsumoagatiko erantzukizun penala aldatzen duten inguruabarrak eta hauen aplikazioa. Azaldutako guztia bi zatitan banatutako lan batean jasoko da. Lehenengoa zati teorikoa izango da, eta bertan Espainiako eta nazioarteko testuen azterketa bibliografikoa egingo da. Bigarrena, azterketa enpirikoa izango da. Bertan, biztanleei egindako inkesta baten emaitzak eta hainbat alorretan adituak diren pertsonen elkarrizketan izango ditugu.

Hitz gakoak: sexu-erasoa, talde sexu-erasoa, alkohola, tratamendua.

RESUMEN

Este trabajo versa sobre las agresiones sexuales, agresiones sexuales en grupo concretamente y su posible relación con el consumo de alcohol. Se pretende analizar si hay relación alguna entre las dos problemáticas, conocer más de cerca al agresor, su tratamiento, estadísticas y la percepción de la sociedad. Sumaremos a esto otras cuestiones como las de las circunstancias modificativas de la responsabilidad criminal por consumo de alcohol y su aplicación. Todo esto se recogerá en un trabajo dividido en dos partes. La primera la llamaremos parte teórica, donde se hará un análisis bibliográfico de textos nacionales e internacionales. La segunda será el análisis empírico, donde tendremos los resultados de una encuesta realizada a la población y unas entrevistas a expertos de diferentes ámbitos relacionados con el tema principal.

Palabras clave: agresión sexual, agresión sexual en grupo, alcohol, tratamiento.

ABSTRACT

This end-of-degree project is about sexual assaults, specifically group sexual assaults, and the possible relationship to alcohol consumption. The aim is to analyze if there is any relation between the two problematics, to know more about the aggressor, his treatment, statistics and society's perception. We will add to this other issues such as the circumstances that modify criminal responsibility for alcohol consumption and its application. All of this will be collected in a work divided into two parts. The first part will be called the theoretical part, where a bibliographic analysis of national and international texts will be made. The second will be the empirical analysis, where we will collect the results of a population survey and interviews with experts from different fields related to the main topic.

Key words: sexual assault, group sexual assault, alcohol, treatment.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA / SARRERA	6
ATAL TEORIKOA	7
1. SEXU-ERASOAK	7
1.1 Sarrera	7
1.2 Kontzeptuak	8
1.3 Zigor Kodearen tipifikazioa	10
1.3.1 Babestutako ondasun juridikoa. Eboluzioa.....	10
1.3.2 Artikuluak.....	12
1.4 Estatistikak	18
1.5 Sexu-erasoen zikloa.....	20
1.6 Sexu erasotzailea.....	22
1.6.1 Profila	22
1.6.1.1 Erasotzailearen portaeraren etiologia	22
1.6.1.2 Profil psikologikoa eta motibazionala.....	24
1.7 Delitugileentzako errehabilitazio programak	29
1.7.1 Programak Espainian.....	29
1.7.1.1 SAC.....	29
1.7.1.2 Programa de tratamiento educativo y terapéutico para agresores sexuales juveniles (Comunidad de Madrid).....	31
1.7.2 Nazioarteko programak.....	32
2. TALDE SEXU-ERASOAK.....	34
2.1 Definizioa	34
2.2 Talde sexu-erasoen estatistikak	34
2.2.1 Datu interesgarriak.....	35
2.2.2 Talde sexu-eraso kopurua eta mota.....	36
2.2.3 Biktima eta erasotzaileen arteko harremana	37
2.2.4 Erasotzaile kopurua	40

2.2.5 Non gertatu dira eraso hauek?	40
2.2.6 Ze ordutan gertatu dira?	41
2.3 Talde erasotzailearen ezaugarriak	42
2.4 Talde sexu-erasoaren zikloa edo modus operandia	44
2.5 Agresore indibidual eta taldekoen ezaugarrien ezberdintasunak	48
2.6 Taldean jarduteagatiko astungarria. Zigor Kodea	50
3. ALKOHOLAREN ERAGINA.....	51
3.1 Sarrera	51
3.1.1 Efektuak organismoan	52
3.1.2 Alkohola eta indarkeria	54
3.1.2.1 Alkohola eta drogak defentsa mekanismo gisa.....	57
3.2 Zigor kodearen salbuesle eta aringarriak, erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrak	58
4. ALKOHOLA ETA SEXU ERASOEN ARTEKO HARREMANA	62
ATAL ENPIRIKOA	68
1. SARRERA	68
1.1 Helburu orokorrak.....	68
1.2 Lanaren kronograma	69
2. GALDETEGIA.....	71
2.1 Helburuak eta hipotesiak	71
2.2 Metodologia.....	71
2.3 Emaitzak.....	71
2.4 Gogoetak.....	83
3. ELKARRIZKETAK	85
3.1 Helburuak	85
3.2 Metodologia.....	86
3.3 Emaitzak.....	87
3.4 Elkarrizketen ondorioak	95
4. ONDORIOAK.....	97

ETORKIZUNeko IKERKETA LERROAK	101
BIBLIOGRAFIA	102
ARAU ETA EPAILAK	109
ERANSKINAK	110
GALDETEGIKO GALDERAK.....	110
ELKARRIZKETEN GALDERAK	114
ELKARRIZKETAK	116
INFORME EXEKUTIBOA	146

AURKEZPENA / SARRERA

Hurrengo orrialdeetan azalduko den lanaren sarrera txiki bat egingo dugu datozen lerroetan. Lan honetan talde sexu-erasoek alkoholarekin harremanik duten ikertzen ahaleginduko gara. Baina harreman horretara heldu baino lehen egin beharreko bidea luzea izango da eta atalak banan-banan aztertu beharko ditugu bateratu baino lehen. Lehenik sexu-erasoak aztertuko ditugu, ondoren talde sexu-erasoak eta azkenik alkoholaren kontsumoaren problematika gehituko dugu.

Bide honetan estatistiketan murgilduko gara, baita erasotzaile hauek jasotzen duten tratamendu programetan ere. Urteetan zehar egindako profilak aztertu eta azalduko ditugu.

Zigor Kodeak delitu hauen inguruan duen tipifikazioari ere tarte bat dedikatuko diogu. Alkoholaren problematika ahaztu gabe, erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrak analizatuko ditugu eta hauen aplikazioaren inguruko informazio zehatza eskuratu.

Azken urteotan talde sexu-erasoek izan duten jarraipen mediatikoak, mugimendu feministaren mobilizazioek eta, nola ez, nire interes kriminologiko, soziologiko eta psikologikoak gai honen inguruko lan bat egitera animatu naute. Lan honetan ez gara biktimaren kalteetan barneratuko, hori biktimologiaren esparruko lan bat izango litzatekeelako, baizik eta erasotzaileetan zentratuko gara eta hauen perspektibatik aztertuko dugu.

Emakumeek betidanik sexu-erasoak jasan dituzte eta hauek urteetan zehar izkutatuak izan dira edo ez dute beharrezko oihartzuna izan. Egun, geroz eta gehiago salatzen dira eta horrek errealitatea gertutik ezagutzen laguntzen digu. Lan honetan egungo errealitatea ezagutu nahi izan dugu, ea alkohola horrelako erasoen kausetako bat izan daitekeen eta horrek, nolabait jendartean eta baita juridikoki erasoak justifikatzen duen.

Lana atal ezberdinetan banaturik dago. Lehenengo atala, teorikoa da. Bertan autore ezberdinen testuak aztertu ditugu, bertako ikerketak zein nazioartekoak. Honi errebisio bibliografikoa deituko diogu. Atal honetan estatistikak, tratamendu programak eta Zigor Kodearen azterketa ere landu dira. Bigarren atala, atal enpirikoa izango litzateke. Gaiaren inguruko azterketa enpirikoa jendeari bidalitako galdetegi batekin eta esparru ezberdinetan adituak diren hiru pertsona elkarrizketatuz osatu dugu. Zati honetako bakoitzak bere ondorio propioak ditu.

ATAL TEORIKOA

1. SEXU-ERASOAK

1.1 Sarrera

Aurre! Gipuzkoan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. Foru Planean (s.f.) erreferentzia egiten zaio indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntza eskaintzen dieten erakundeek 2009an sinatu zuten *“Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa”* (2009) zeinak honela dioen:

Emakumeen aurkako indarkeriak emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu. Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrena larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraunarazi egiten baitio.
(3 or.).

Aurre! Foru Planak jasotzen duen moduan (s.f.) *“nazioartean onartuta dago emakumeen aurkako indarkeriaren kausak estu-estu lotuta daudela emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun historiko eta estrukturaleri”* (6 or.).

Samara Velte-k (2019) bere liburuan **sexismoaren poliedroa** azaltzen du, eta bertan genero indarkeriak (eta horren baitan, indarkeria sexualak) jendartearen antolamenduan jatorria duela dio. Gizon eta emakume kategoriak gizartea antolatzeko erabiltzen dira, gizonen kategoria pribilegiozko egoera batean jarriz. Pribilegio horiek bi motatakoak izan daitezke, materialak edo immaterialak (adibide izan daiteke emakume eta gizonen arteko soldata arrakala). Gizona edo gizonezkoaren irudia agintearekin eta indarrarekin lotuta dago egungo gizartean, eta hori eguneroko bizitzaren eremuetan agertzen da. *“Gizontasunaren ulerkeria tradizionalak figura dominatzailea izatea eskatzen du”* (Velte, 2019, 39 or.).

Beraz, esan bezala gizonezkoen figura indarkeriarekin lotzen da. Indarkeriaren erabilera hori ordena soziala mantentzeko ere erabiltzen da. Emakumeok txikitatik ikusi, ikasi eta barruratu dugu indarkeriaren mehatxua (sexuala, fisikoa, etab.). Horren ondorioz,

emakumeok gertatu baino lehen barneratu ditugun eraso horiek saihesteko neurriak hartzen ditugu; adibidez, gabeen etxera bakarrik ez joatea, etxera joateko bide zehatz batzuetatik ez joatea... *“Txikitatik etxean entzuten diren bortxaketen narratibek eta kontuz ibiltzeko ohartarazpenek (...) gazte gaztetatik irakasten diote neskari nolakoa izan daitekeen bortxaketa bat. Izu horrek gizartean ezarritako ordena eta ordena horretan emandako posizioa sendotzen ditu: biktimarena, hauskorra edo menpekkoa denarena (...).”* (Velte, 2019, 40 or.).

1.2 Kontzeptuak

Nazio Batuek (1993) honela definitzen dute emakumeen aurkako indarkeria: *“emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dion edo ekar diezaiokeen genero-indarkeriako ekintza oro; horien barne mehatxuak, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa egon daitezke. Hauek bizitza publiko zein pribatuan gerta daitezke”*. Ez dugu ahaztu behar, sexu-erasoak honen parte direla.

OMSek (2017), jarraian sexu-indarkeria definitzen du. Honela dio: *“sexu-indarkeria edozein sexu ekintza da, pertsona baten sexualitatearen aurkako sexu-ekintza bat edo beste zenbait egiteko ahalegina hertsapena erabiliz, biktimarekin duen harremana edozein dela ere, edozein esparrutan”*.

Jarraitzeko, bortxaketa eta sexu-erasoaren arteko desberdintasuna egingo dugu hauen definizioa emanez.

RAEren (s.f) arabera, sexu-erasoak honela definitzen dira: *“Delito consistente en la realización de actos atentatorios contra la libertad sexual de una persona empleando violencia o intimidación”*.

Ingalaterrako eta Galesko delitu-sexualei buruzko legearen arabera (2003), zakila beste pertsona baten baginan, uzkian edo ahoan nahita sartzea da bortxaketa, biktimak hau egiten uzten ez dionean edo onartzen ez duenean (Crown Prosecution Service, 2004 / Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia). Kontuan izan behar dugu, bortxaketa dela baita ere bagina edo uzkian objektuak sartzea. Argi gelditzen da, juridikoki sexu-erasoen barnean bortxaketa kokatzen dela.

Velte-k (2019) dioen moduan, *“bortxaketak maskulinitatea iragartzea du helburu”* (47 or.). Delitu sexualak, oinarrian, boterezko delituak dira. Velte-k, Rita Segato

antropologoaren lana erabiltzen du, eta Segatok (2013) honela azaltzen zuen bortxaketa *lurraldearen metafora* erabiliz: *“Gorputz-lurralde horren gaineko jabetzak, subiranotasunak eta kontrolak osatzen dute bortxaketaren esanahi-unibertsoa”* (48 or.). Delitu hau burutzen duten sujetuek dominazio fisiko zein morala lortu nahi dute, biktimari autonomia kenduz (Velte, 2019).

Juridikoki eta Espainiar Zigor Kodean (Azaroaren 23ko 10/1995 LO) ikus daitekeen bezala, bortxaketak sexu-erasoen kapitulu berdinean azaltzen dira. Hau da, bortxaketa bat sexu-eraso bat da, baina honek haragitzea egon dela adierazten du. Horrek, larriagotu egiten du erasotzaileari ezarriko zaion zigorra.

Ezer baino lehen, azaltzea nahi dugu ea zergatik ez ditugun abusu sexualak jaso lan honetan. Erasoa eta abusuen arteko desberdintasuna indarkeria edo larderiaren erabileran kokatzen da. Indarkeria erabiltzen den delituek, oro har, ez dute hainbesteko eztabaidarik sortzen: indarkeriaren ezaugarri bereizgarria indar fisikoa delako (STS 1546/2002, irailaren 23koa. Ruiz, 2019 zitatua), kanpo ezaugarri objektiboa eta ez horren eztabaidagarria. Beldurtarazteak, aldiz, eztabaida eta arazo ugari sortzen ditu. Horren arrazoi nagusia izaera juridikoa da; izan ere, Auzitegi Gorenak zenbait epaitan ezarri duenez, eduki psikikoa duen elementu bat da, eta hertsatzeko edo mehatxatzeko indarra erabili behar da, gaitz arrazional eta funtsatu batekin (STS 1583/2002, urriaren 3koa. Ruiz, 2019 zitatua).

Ruiz-ek (2019) azaldu bezala, larderia sexu-erasoaren delitua osatzen duen elementua izateak eta izaera psikiko ezinbestekoa izateak biktimarengan jartzen du arreta: gaitz arrazionala, noizentzat? Arrazionaltasun hori baloratu behar da, edo ez, hertsapenaren edo mehatxuaren hartzailearekiko, hau da, biktimarekiko. Honek eztabaida handia sortzen du egun, biktimaren jarrera zalantzan jartzen duelako.

Guzti honek, kontzeptu juridiko berri baten sorrera ekarri du “ingurune beldurraraztea” edo gazteleraz esango litzatekeen moduan, “intimidación ambiental”. Jatorrian, ingurumen larderia edo beldurtaraztearen kontzeptua taldeko erasoetan erabiltzen da, delituaren ekintza tipikoak zuzenean egiten ez duten, baina egiten den ekintzaz jabetuta dauden sujetuak zigortzeko (Ruiz, 2019).

Instituto de Derecho Iberoamericano-k (2019) jaso bezala, Azaroaren 8ko 1291/2005 Auzitegi Gorenaren Sententziak [Rec. 263/2005] erreferentzia egiten dio kontzeptu berri honi, eta horrela jasotzen da: *“Debe haber condena de todos los que en grupo participan en estos casos de agresiones sexuales múltiples y porque la presencia de otra u otras*

personas que actúan en connivencia con quien realiza el forzado acto sexual forma parte del cuadro intimidatorio que debilita o incluso anula la voluntad de la víctima para poder resistir, siendo tal presencia, coordinada en acción conjunta con el autor principal, integrante de la figura de cooperación necesaria del apartado b) art. 28 CP. En estos casos cada uno es autor del nº 1 del art. 28 por el acto carnal que el mismo ha realizado y cooperador necesario del apartado b) del mismo artículo, respecto de los demás que con su presencia ha favorecido”.

Jurisprudentziak sortutako figura honek beste kasu batzuetarako ere balio izan du. Ruiz-ek (2019) Uztailaren 4ko 344/2019 [Rec. 396/2019] sententzia baliatuz argi azaltzen duen bezala, biktimaren plano psikiko subjektibo eta mentala ez ezik, beldurraraztea dagoela zehazteko beldurgarritzat jotzen diren kanpoko inguruabar objektiboak gertatzen diren baloratu beharko da. Beldurrez jokatzeko delat ulertuko da kanpoko inguruabar jakin batzuek bat egiten dutenean eta inguruabar horiek egokiak direnean biktimaren erresistentzia-gaitasuna eta egoera berean egon den beste edozein pertsonarena deuseztatzeko. Hori horrela, erasotzat joko da delitua (Instituto de Derecho Iberoamericano, 2019; Ruiz, 2019).

Hau guztia azaldu ondoren, lan honetan abiapuntutzat hartzen da talde baten presentzia hutsak (2 pertsona edo gehiago) nahikoa beldurgarria dela biktimarentzat, hortaz, ulertzen dugu taldean burutzen diren kasuak sexu-eraso bezala baloratu beharko liratekeela eta ez abusu bezala. Gure ustez eta IDIBE-k (2019) jaso bezala, erasoak jasan duen pertsonarengan taldearen presentziak ingurumen beldurraraztea eragin dezake.

Sexu-eraso irakurtzen dugun bakoitzean definizio penalaz baliatuko gara baina talde kasuetarako orain azaldutakoa gureganatuz. Sexu-erasoa, penetrazioarekin gabeko erasoak da eta bortxaketa penetrazioarekin. Hona ba.

1.3 Zigor Kodearen tipifikazioa

1.3.1 Babestutako ondasun juridikoa. Eboluzioa

- Askatasun-sexuala

1989. urtean, mugimendu feministaren mobilizazio masiboek esker Espainiar Zigor Kodean aldaketak eman ziren. Horietatik, babesturiko ondasun juridikoari dagokiona

azpimarratuko genuke. Zergatik? Bada, “onestasunaren aurkako delituak” izatetik, “askatasun-sexualaren aurkako delituak” izatera pasa zirelako (Sortzen Consultoria S.L, 2011). Ikus bezala, historian zehar hamarkadetan zintzotasuna izan da babestu den ondasun juridikoa, *honestidad*. Funtsean, hau ohorearen ideiarekin erlazionatzen zen (Velte, 2019). Zintzotasuna ondasun juridikoa izatearen ondorioak askotarikoak izan ziren, eta hau zen horietako bat: **emakumearen izen ona senarrarenarekin erlazionatua** egotea. Emakumeak berak edo norbaitek zintzotasunaren aurka zerbait egingo balu, gizonarena ere afektatua kontsideratzen zen. Veltek (2019) honela adierazi zuen hau: *“bortxaketa batean emakume baten ohorea zikintzen bazen, funtsean, haren senarraren edo familiaren ohorea zen erasoia sufritu zuena, emakumea haren plazer iturri gisara ulertzen zelako”* (74 or.).

1989ko erreformarekin jarraituz, “sexu-eraso” terminoa lehen aldiz gehitu zuten espainiar legerian, baita 419. artikulua eta hurrengoetan bortxaketa, uzkiezko eta ahozko penetrazioarekin bat. Azken hauek lehen ere ez zituen jasotzen Zigor Kodeak (Marugán eta Vega, 2003).

Babesturiko ondasun juridikoaren aldaketari dagokionez, askatasun orokorraren barruan “askatasun-sexuala” kokatzen da, hau, norberaren sexualitateari dagokion askatasunaren parte bezala ulertua. Askatasun sexuala berriazko babes penala merezi duen ondasun juridiko gisa agertzen da egun Zigor Kodean. Honek, bere autonomia du, hau da, indarkeriazko edo larderiazko erasoak ere askatasunaren aurkako jazarpenak izan arren, sexualitateari buruzko aipamenak konnotazio propioak ematen dizkio babes penalari. Horrela, sexu-erasoei autonomia deliktiboa ematen die eta askatasunaren aurkako beste delitu batzuetatik bereiztea ahalbidetzen du (Muñoz Conde, 2017).

- *Sexu-ukigabetasuna*

Subjektu pasiboen arabera ondasun juridikoa ez da askatasun-sexuala izango, sexu-ukigabetasuna baizik. Zein kasutan? Adingabeen edo adimen urritasuna dutenen kasuan. Delitu horien arazo berezia da, hain zuzen ere, ezin dela “sexu-askatasuna” berriaz babestutako ondasun juridiko gisa hartu, subjektu pasiboak askatasun hori ez duten pertsonak baitira, behin-behinean (adingabeak) edo behin betiko (babes berezia behar duten ezgaitasunak dituzten pertsonak). Egoera horretan dauden pertsonen ezaugarri bat da ez dutela autonomiarik sexu-esparruan duten portaera zehazteko (Muñoz Conde, 2017).

Adingabeei dagokienez, sozialki adostutako akordio bat dago adingabeak testuinguru sexualetik babestu behar direla esaten duena. Zein puntu/adinetaraino? 2015eko erreforma arte 13 urtetik aurrera adingabeak askatasunez erabaki zezakeen testuinguru sexual batean parte hartu nahi zuen edo ez, orain aldiz muga 16 urtera igo da (Muñoz Conde, 2017). Babes berezia behar duten ezgaitasunak dituzten pertsonak, izenak dioen bezala berezitasunak dituzten kolektiboak dira.

Adingabeen edo ezgaitasuna duen pertsonaren askatasuna baino gehiago, adingabeen kasuan, haren etorkizuneko askatasuna babestu nahi da, edo, hobeto esanda, haren nortasunaren ohiko bilakaera eta garapena, heldua denean bere sexu-portaera askatasunez erabaki dezan; eta ezgaitasuna duen pertsonaren kasuan, desio sexualak asetzeko bere egoeraz abusatzen duten hirugarren pertsonen sexu-objektu gisa erabiltzea saihestea (Muñoz Conde, 2017).

1.3.2 Artikuluak

VIII Titulua: Sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituak (Azaroaren 23ko 10/1995 LO).

I. KAPITULUA

Sexu-erasoak

Oinarrizko tipoa

178. Artikulua. *“Norbaitek, indarkeria edo larderia erabiliz, beste pertsona baten sexu-askatasunaren aurka atentatu egiten badu, orduan sexu-erasoaren erantzule gisa, urtebetetik bost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio”* (Landa eta Urrutia, 2012).

Hasiera batean, aipatutako elementu batzuk amankomunak dira bortxaketarekiko. Oinarrizko tipo honek delitu hau jasotzen du: pertsona baten askatasun sexualaren kontra jardutea indarkeria edo beldurtaraztea erabiliz.

Delituaren parte diren **sujetuei** dagokienez, sujetu aktiboa (erasotzailea) zein sujetu pasiboa (biktima) edozein pertsona izan daiteke, hau da, emakume zein gizonezkoa. Hortaz, sexu-erasoa emakume batek beste bati egin diezaioke, baita emakume batek gizonezko bati, gizonezko batek beste gizonezko bati eta, azkenik, gizonezko batek emakume bati. Sujetu pasiboa 16 urtetik beherakoa bada 183. Artikulua aplikatuko zaio kasuari (Muñoz Conde, 2017).

“Sexu askatasunaren aurkako eraso edo atentatua” kontzeptua

Termino honek Muñoz Conderen (2017) hitzetan *gorputz kontaktua* eskatzen du. Hau da, bere esanetan beharrezkoa da sujetu aktibo eta pasiboaren arteko kontaktua izatea. Funtsean, subjektu aktiboak biktima ukitu behar du. 2015 urteko erreformaren ostean, biktimak 16 urte baino gutxiago baditu sexu-erasotzat hartzen da, halaber, indarkeria edo larderia erabiliz hirugarren batekin sexu-izaerako egintzetan parte hartzea edo bere gorputza ukitzera behartzea, baina ez dago antzeko aurreikuspenik 178. artikuluan. “Sexu askatasunaren aurkako eraso” kontzeptutik kanpo gelditzen dira (gorputz kontaktua kontuan izanik) baita ere, biktimari harreman sexuala ikustea inposatzea (Muñoz Conde, 2017).

“Indarkeria edo larderia” kontzeptua

Indarkeria *vis absoluta* bezala definitzen da. Indarkeria erabiltzeak botere fisikoa erabiltzea inplikatzeko du, pertsona baten aurka, hura neutralizatzeko edo menperatzeko; pertsona horrek amore eman dezan. Biktimak erresistentzia gehiago egiten duen heinean, delitugileak indarkeria gehiago erabiliko du. Biktima menperatzeko edozein eskuhartze fisiko kontsideratuko da indarkeria; ez da galdatzen indarkeria jasanezina izatea, intentsitate minimoa nahikoa da biktima menperatzeko. Ez da beharrezkoa subjektu pasiboaren etengabeko erresistentziarik; izan ere, indarkeria-ekintzak hasten direnean biktimak sexu-erasoa jasan dezake (ez onartu) gaitz handiagoak saihesteko (Muñoz Conde, 2017).

Larderia mehatxatzea da. Baina mehatxu horrek larritasuna izan behar du, baita sexu-erasoarekin nolabaiteko lotura ere (Muñoz Conde, 2017). Subjektu pasiboak ezingo du bere borondatea askatasunez eratu.

Larderiak aldiberekoa izan behar du, momentukoa, harreman sexual hori lortzeko. Izan ere, mehatxua etorkizunerantz proiektatuko balitz, mehatxu delitu posible baten aurrean egongo ginateke. Beldurtaraztea sinesgarria izan beharko da. Oso garrantzitsua da testuingurua: sexu erasoetan subjektu pasiboaren adina eta inguruko gizarte edo familia testuingurua faktore erabakigarriak dira (Muñoz Conde, 2017).

Dolua, ekintza bortitz edo beldurgarri baten borondatezko gauzatze gisa ulertua, hau esanahi sexuala duen gorputzen arteko kontaktua lortzeko erabilia, ez du beste elementu subjektibo bereizirik behar. Lehen beste elementu subjektiboa galdatzen zen, animo lizuna (*animo lascivo*) delakoa, plazer sexuala lortzeko helburua (Muñoz Conde, 2017).

Kualifikatua

179. Artikulua. “*Sexu-erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, erantzuleari, bortxaketaren errudun gisa, sei urtetik hamabi urte arteko espetxealdizigorra ezarriko zaio*” (Landa eta Urrutia, 2012).

Oinarrizko tipoarekiko “haragitzea” edo beste era batetako gorputz inbasio estua gehitzen da bortxaketa supostuetan.

Artikulu honetako kualifikazioa egin dezaketen subjektu aktiboen zirkulua jokabidearen arabera izango da. Zalantzarik gabe, gizonezkoa nahiz emakumea izan daitezke objektuak sartzearen modalitate kualifikatzailean subjektu aktibo. Baina sarrera hori sexu konnotazio nabarmena duten objektu eta barrunbeei dagokie (Muñoz Conde, 2017).

Egun, haragitzeak bai edo bai gizonezkoaren organo sexuala tartean egotea inplikatzeko du, baina ez soilik baginarekiko sarbidea. Subjektu aktiboa gizona izan daiteke, bai eta pasiboa ere, portaera sexu anala zein orala izan daitezkeen heinean. Gizonezkoaren organo sexualak tartean egon behar duela esanda, emakumea subjektu aktiboa izan daitekeela ere adierazi behar dugu, gizona subjektu pasiboa izanik (Muñoz Conde, 2017). Fenomenologiak, orokorrean, gizona jartzen digu subjektu aktiboaren rolean eta emakumea pasiboan.

Egun kontsideratuko da bortxaketaren aurrean egongo garela gorputz atal desberdinak erabiliz -mingaina, hatzak-, bai eta objektuak erabiliz ere. Printzipioz objektuak erabiltzen badira, beharrezkoa izango da objektuak sartzea baginatik edo uzkitik -emakumea bada, uzkitik gizonezkoa bada. Konnotazio sexuala izan beharko dute (Muñoz Conde, 2017).

Sexu-erasoekin arazo nagusia

Nola bereizi oinarrizko tipoa (178. Artikulua) eta bortxaketa (179. Artikulua)? Noiz bortxaketa saiakeran eta noiz oinarrizko tipoa buruturik (*en grado de consumación*)? Muñoz Conde-k (2017) dio oinarrizko mota sexu izaerako gorputz-kontaktua egitean burutzen dela, indarkeria edo larderia erabiliz.

179. artikuluko bortxaketa mota kualifikatuari dagokionez, hain desberdinak diren kasuak barne biltzeak zaildu egiten du delitua burututzat ematen den une bera finkatzea. “Gorputz-atalak edo objektuak sartzeak” adierazten duen bezala, objektuak (makila, botila, dadoa, etab.) ahoan edo baginan sartzearen ekintzaz hitz egiten du. Sarpen edo

penetrazio bidezko “sarrera haragitsua” egiteko, zakila baginako, uzkiko edo ahoko barrunbean sartu behar da (gutxi bada ere, *inmissio penis*), eta ez da eiakulaziorik behar. Hala ere, eiakulazioa ematen bada, gertatutako errazago frogatu daiteke, batez ere ahoko sarpenetan (Muñoz Conde, 2017).

Egileak baginatik, uzkitik edo ahotik haragizko sarpena izan badu eta horretarako indarkeria edo larderia erabiltzen badu, baina, bere asmoa lortu baino lehen boluntarioki atzera egiten badu, ezingo zaio 179. Artikulua saiakera graduan aplikatu. Baina, hala badagokio, sexu-erasoaren oinarritzko tipoarekin zigortu daiteke (178. art), baldin eta sexu-izaerako gorputz-kontaktua izatera iritsi bada eta prodromo fasean adostasunik izan ez bada (Muñoz Conde, 2017).

Kualifikatuak

180. Artikulua (Landa eta Urrutia, 2012):

1. *“Aurreko jokabideei bost urtetik hamar urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie 178. Artikuluko erasoak badira, eta hamabi urtetik hamabost artekoa 179. Artikulukoak badira, inguruabar hauetako bat gertatzen denean”:*

- 1.) *“Erabilitako indarkeria edo larderia bereziki apalesgarria edo isekagarria denean.”*

Subjektu aktiboak erabiltzen duen indarkeria edo beldurraraztearen izaerak, bereziki umiliagarria edo iraingarria izan behar du tipo kualifikatua aplikatzeko. Hau da, umiliantea edo iraingarria dena ez da portaera sexual bera, baizik eta subjektuak aplikatzen duen indarkeria edo beldurraraztea (Muñoz Conde, 2017).

- 2.) *“Egitateak pertsona bik edo gehiagok taldean gauzatzen dituztenean.”*

Bi pertsonak edo gehiagok batera jardutean, ez da beharrezkoa izango bi pertsonen edo gehiagok sexu-izaerako gorputz kontaktua izatea; nahikoa da pertsona horietako batek indarkeria erabiltzea edo biktima beldurraraztea, eta besteak, berriz, zuzenean sarketa haragitsua egitea, adibidez (Muñoz Conde, 2017). Ez da beharrezkoa parte hartzaile guztiek portaera guztiak aurrera eramatea.

Baiezta da era honetako suposuetan biktimaren ondasun juridikoentzako arrisku handiagoa dagoela; ez soilik askatasun sexualarekiko. Bestalde, askatasun sexualaren ikuspuntutik esan izan da honek suposatzen duela biktimarentzako sufrimendu, umiliazio handiagoa; gaitzespena handiagoa da.

3.) *“Biktima, bere adin, gaixotasun, desgaitasun edo egoera dela eta bereziki ahula denean, 183. Artikuluan ezarritakoa salbu.”*

Biktimaren zaugarritasuna, haren adinagatik, gaixotasunagatik, ezgaitasunagatik edo egoeragatik. Kontuan hartzen du egoera horien ondoriozko defentsa-gabezia. Kualifikazio hau aintzat hartu ahal izateko, nolabaiteko indarkeria edo larderia eman behar da biktimaren erresistentzia gainditzeko (Muñoz Conde, 2017).

4.) *“Nagusitasun- edo ahaidetasun-harremanez baliatzen denean erantzulea delitua egiteko, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko, ondorengo edo neba-arrebak izateagatik, edota ezkontza bidezko ahaidetasuna izateagatik.”*

Larrigarri hau nekez azal daiteke ahaidetasun harreman hutsaren arabera. Nagusitasun-harremana da garrantzitsuena (Muñoz Conde, 2017). Bortxaketa edo eraso sexuala errazten da biktimak eta subjektu aktiboak duten harremana dela-eta.

5.) *“Egileak armak edo arrisku bereko bideak erabiltzen dituenean, heriotza edo 149 eta 150. Artikuluetan ezarritako lesioetatik bat eragin dezaketenetarikoak, eragindako heriotza edo lesioengatik dagokion zigorrari kalterik egin gabe.”*

Kualifikazioa indarkeria edo larderia gauzatzeko erabilitako bitartekoak duen arriskuaren ondorio da (Muñoz Conde, 2017). Armen egokitasuna galdatzen da, baina ez da beharrezkoa lesiorik eragitea. Baina, hilketa edo lesio larriren bat eragiten bada, delitu pilaketa emango da kualifikazioa eraso sexuala berari baitagokio (Muñoz Conde, 2017). Armak erabiltzen direnean, argi geratzen da arrisku esponentziala dagoela.

2. *“Aurreko inguruabarretako bi edo gehiago pilatzen baldin badira, artikulua honetako zigorrak goiko erdian ezarriko dira.”*

II. BIS KAPITULUA

Hamasei urtetik beherakoen aurkako sexu-abusuak eta sexu-erasoak

Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak egindako erreformaren bidez, hamahiru urtetik beherakoen babes penala ezarri zen, abusuen edo sexu-erasoen biktima izan zitezkeelakoan. 2015eko erreformak subjektu pasiboaren adina hamasei urtera igo zuen, kontuan izanik adin horretako adingabeen sexu-ukigabetasuna babestu behar dela pertsona helduen interferentzietatik. Hau, adingabe hauek nortasunaren bilakaera

eta garapen arrunta izateko, norberaren jokabide sexualak askatasunez erabaki arte (Muñoz Conde, 2013).

183. artikulua (Landa eta Urrutia, 2012).

2. *“Erasoa indarkeriaz edo larderiez gauzatzen denean, orduan, adingabe baten sexu-erasoaren erantzule gisa, bost urtetik hamar urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio. Zigor berberak ezarriko dira, indarkeria edo larderia erabiliz, hamasei urtetik beherako adingabe bat hirugarren batekin sexu-egintzetan parte hartzeko edo bere buruaren gan egiteko behartzen denean.”*

3. *“Erasoa maginatik, uzkitik zein ahotik haragitzea denean, edota lehenengo bi bide horietako batetik gorputz-adarrak nahiz gauzak sartzea denean, orduan, erantzuleari, zortzi urtetik hamabi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, 1. Paragrafoaren kasuan, eta hamabi urtetik hamabost arteko zigorra, 2. Paragrafoaren kasuan.”*

4. *“Aurreko hiru zenbakietan jasotako jokabideak dagokien espetxealdi-zigorrarekin zigortuko dira, zigorra goiko erdian ezarriko da ondorengo inguruabarretatik edozein gertatzen denean:”*

a. *“Biktimaren adimen-garapen edo garapen fisiko urriak, biktima erabat babesik gabe utzi duenean eta, edozein kasutan, lau urte baino gutxiago dituenen.”*

b. *“Egitateak bi pertsonak edo gehiagok taldean gauzatzen dituztenean.”*

c. *“Erabilitako indarkeria edo larderia bereziki apalesgarria edo isekagarria denean.”*

Sexu-erasoetan aplikagarri (Muñoz Conde, 2017).

d. *“Nagusitan- edo ahaidetasun-harremanez baliatzen denean erantzulea delitua egiteko, odolez edo adopzioz biktimaren aurreko ahaide, edo neba-arreba izateagatik, edota ezkontza bidezko ahaidetasuna izateagatik.”*

e. *“Errudunak, doluz edo zuhurtziagabekeria larriz, biktimaren bizitza edo osasuna arriskuan jarri duenean.”*

Sexu-erasoetan aplikagarri (Muñoz Conde, 2017).

- f. *“Arau-haustea horrelako egitateak gauzatzeari ekiten dion erakunde edo talde kriminal baten baitan burutu denean.”*
2. *“Artikulu honetan aurreikusitako kasu guztietan, errudunak berak duen agintari, horren agente edo funtzionario publiko egoeraz baliatu bada, orduan, sei urtetik hamabi arteko erabateko desgaiakuntza zigorra ere ezarriko zaio.”*

1.4 Estatistikak

Hasiera batean sexu-erasoak orokorrean errepasatuko ditugu, horrela ondoren taldean eman direnak aztertzeko. Atal hau egiteko iturri bakar bat erabiliko dugu, *Portal Estadístico de Criminalidad* (euskaraz: Kriminalitatearen Atari Estatistikoa) izango da.

Lehenik eta behin, Kriminalitatearen Atari Estatistikoaren inguruan hitz egingo dugu. Zer da? Zergatik sortu zen? Sistema Estatistikoari datuak ematen dizkioten Segurtasun Indar eta Kidegoek garatutako jarduerarekin lotutako informazio estatistikoaren eskaera geroz eta handiagoa zen. Beraz, honekin, eskaera horiek modu azkar eta dinamikoan ase nahi izan zuten datuak bertan bilduz. Espainiar estatuan dauden polizia datuak jasotzen dira: Polizia Nazionalea, Guardia Zibila, Ertzaintza, Mossos d'Esquadra, Nafarroako Foruzaingoa eta Udaltzaingoa (Ministerio de Interior, 2019).

Zergatik erabili dugu bakarrik iturri bat? Hasiera batean, INEko datuak erabili behar genituen Espainiako datu estatistikoaren iturri ofiziala baita. Hala ere, iturri honek kondenatuen datuak bakarrik ematen ditu. Hau da, kondenarik ez badago edo epaitu ez bada, ez da estatistiketan azalduko. Horrez gain, informazioa bi taldetan sailkatzen du: alde batetik, kondenaturiko adin nagusiak eta bestetik, adingabeak. Sexu-erasoak bi talde hauek osatzen dituzten sujetuek aurrera eraman ditzaketenez, agian lan honetan desberdinketa hori egitea ez da ezinbestekoa.

Ondoren, EAEko datuei dagokienez arazo gehiago izan ditugu. INE-k Autonomia Erkidegoko informazioa soilik aukeratzean ez du uzten delitua bereizten, hau da, sexu-erasoak eta bortxaketak soilik hautatzen. Beraz, askatasun sexualaren aurkako delitu guztiak batzen ditu. EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeari dagokionez, gauza bera gertatzen da. Askatasun sexualaren aurkako delitu guztiak jasotzen dira elkarrekin eta ondoren, lesioen araberrako sailkapena egiten du (hilda, zauri larriak, zauri arinak, zauri

edo kalterik gabe edo ez da ezagutzen). Iturri hauek eskaintzen duten informazioa ez da batere zehatza eta horrek, analisia egiterako momentuan interpretazioak distortsionatu ditzake.

ESPAINIA

	2018	2017	2016
Sexu-erasoa	1917	1806	1684
Bortxaketa	1700	1387	1249

1 Taula. Zigor-tipologiaren arabera ezagutu diren gertaerak Espainian. Sexu-erasoak eta bortxaketak (Portal Estadístico de Criminalidad, 2019).

EAE

	2018	2017	2016
Sexu-erasoa	65	82	83
Bortxaketa	111	81	46

2 Taula. Zigor-tipologiaren arabera ezagutu diren gertaerak EAEn. Sexu-erasoak eta bortxaketak (Portal Estadístico de Criminalidad, 2019).

Aurkeztutako datuak, aurretik esan bezala datu ofizialak badira ere (Poliziaren datuak), ez dute guztiz erakusten sexu-erasoen errealitatea. Honek, **zifra beltzaren** kontzeptura garamatza eta horrek beharrezko egiten du azalpen bat ematea.

Espainian, delinkuentziaren kopuru eta eboluzioa ezagutzeko estatistika polizial eta ofizialetara jo behar izaten dugu hauek dituzten hutsuneak ahaztu gabe. Gabeziak, erakunde hauek ezagutzera iristen ez diren delituak eta haien datuen publikitate mugatua izango lirateke. Estatu honetan, biktimizazio-inkesta nazionalen erabilgarritasuna oso mugatua izan da beti; izan ere, erakunde ofizial batek ere ez du bere gain hartu inkesta horiek sistematikoki egiteko ardura. Ikerketa Soziologikoen Erakundea (*Centro de Investigaciones Sociológicas, CIS*) izan da herrialdean biktimizazio-inkestei arreta gehien jarri diena. Hala ere, ez du behar bezalako jarraipena izan (García España, Díez Ripollés, Pérez Jiménez, Benítez Jiménez & Cerezo Domínguez, 2010). García España et al.,-ek (2010) urtean aurkeztu zuten analisian Espainiako delitu-kategoria ezberdinen salaketa-tasak aurkeztu zituzten. Bertan ikus daiteke sexu-erasoen salaketa tasa %30ekoa dela. Beraz, datu horrekin ondoriozta dezakegu sexu-eraso kasuen %70a ez dela salatzen eta, ikus bezala, zifra beltza beste delitu batzuekin alderatuz oso altua da (Giménez-Salinas et al., 2019). Ikerketa honen arabera gertatzen diren delituen erdia baino gehiago ez da salatzen. Hortaz, informazio edo gertaerak ez dira aurretik aipaturiko datu-base ofizialetara iritsiko.

Santiago Redondok *Delincuencia sexual y sociedad* (2002) liburuan zifra beltzaren inguruko bestelako datu batzuk ematen ditu. Hauek, aurretik azaldutakoak baino zaharragoak dira baina horrekin urteetan zehar emandako bilakaera ikus dezakegu. Espainia mailan egindako biktimizazio ikerketen arabera, bortxaketen %45a eta sexu-abusuen %10 bakarrik salatzen dira. Urteak pasa ahala salaketa kopurua murrizten joan da eta horrekin, zifra beltza handitu da.

1.5 Sexu-erasoen zikloa

Sexu-erasoen inguruko azalpenekin jarraitzeko, hauek espetxean aplikatzen den tratamendu programaren arabera (SAC programa; Rivera, Romero, Labrador, eta Serrano, 2006) ziklo bat jarraitu ohi dute. Zikloa atal ezberdinetan banatzen da eta testuaren arabera delitugile sexual guztiek izango dute. Elementu ezberdinak bereiz daitezke (Rivera et al., 2006):

- ❖ Aurrera eramandako **delitua** (sexu-erasoa, bortxaketa...).
- ❖ Delitua burutu baino lehen sentitutako **emozioak**.
- ❖ Delituaren aurretik izandako **jokabideak**.
- ❖ Emozio eta jarrereri lagundu zieten **pentsamenduak**.

Horren haritik, atal bakoitza banan-banan azaltzera joko dugu.

- Delitua

Aurrera eramandako jokabide desbideratua izango litzateke (Rivera et al., 2006). Hau, SAC programaren erabiltzaile izan daitezkeen pertsonak kontuan hartuta sexu-erasoak izan daiteke, edo adingabeei egindako abusu sexualak.

- Emozioak

Abusuen-zikloaren bigarren atala, gertaera deliktibora hurreratzean sentitutako emozioei dagokie. Horietako batzuk depresioa, haserrea, amorrua, arbuio edo gaitzespena beldurra eta beste zenbait dira. Emozio negatibo hauek eragin handia dute sexu izaerako delitua burutzeko unean (Rivera et al., 2006).

- Jokabideak

Emozio negatiboek, portaera ezberdinak ekar ditzakete. Hauek, erraz identifika daitezke (Rivera et al., 2006):

- Lur jotako begirada.

- Besteen begiekin kontaktua ekiditea.
- Lasaiegi egotea, arraroa izatera iritsi arte.
- Azazkalak jatea.
- Gorputza zurrun eta tenkatua izatea.
- Oso urduri edo haserre egotean irribarre egitea.
- Emozio lotsagarri edo mingarriak barrez estaltzea.
- Informazioa distortsionatzea.
- Pasibo edo pasibo-oldarkor bilakatzea.
- Isolatu eta besteak saihestea.
- Aldizkari pornografikoak irakurtzea.
- Drogak eta/edo alkohola kontsumitzea.
- Ondokoak ikaratzea.
- Hitz-moteltasuna handitzea.

Erasotzaileek jokabide hauek detektatzen ikasi beharko dute, horrela denboraz esku-hartzeko aukera izango dute eta zikloa gelditu (Rivera et al., 2006).

- Pentsamenduak

Azken atala, abusu-zikloa mantentzeko sujetuek dituzten pentsamenduei dagokie. Delitugile sexual guztiek dituzte bakoitzaren zikloaren parte diren kognizio edo pentsamendu prozesuak. Baina, pentsamendu hauetako asko distortsio kognitiboak dira. Bukatzeko, sexu izaerako delituak burutzen dituzten sujetuek izan ditzaketen pentsamenduen zerrenda bat ezagutaraziko dugu (Rivera et al., 2006):

- Sexu-harremanak izatea merezi dut.
- Zenbat eta sexu-harreman gehiago izan, orduan eta hobeto sentituko naiz.
- Nahi dudan guztietan harreman sexualak izateko beharra dut.
- Ez naiz gai nire bizitzari aurre egiteko.
- Dudatsu sentitzen naiz.
- Mendeku hartu nahi dut.
- Lagunek ez naute onartzen.
- Gutxienez, nire fantasia sexualez goza dezaket.
- Emakumeak ez zaizkit inoiz gustatuko.
- Ezingo naute hartu, harrapatu.
- Gauzak ez badira nik nahi bezala ateratzen, ez dira ondo egongo.
- Biktimek benetan nahi zuten egin nien hori, euren nahia zen.

1.6 Sexu erasotzailea

1.6.1 Profila

Atal honi hasiera eman baino lehen, komenigarria iruditu zaigu adieraztea ikuspuntu feminista batetik agian profilen erabilpena ez dela egokia edo ez daudela zertan erabili hauek askotarikoak izan daitezkeelako, sailkatu gabe. Agian, zentratu beharko ginateke emakume eta gizonezkoen artean dagoen hierarkia edo botere ezberdintasunean. Edo kulturalki aurki ditzakegun sexuen arteko aldeetan. Baina, kriminologia eta psikologiaren ikuspuntutik (Psikologia Kriminala, hain zuzen) profilak ezberdindu dira eta hauei errepasso bat emango diegu. Hau guztia, ahaztu gabe askotarikoak izan daitezkeela baina, hala ere, profilen arteko bereizketa hau oso interesgarria da eta horri ekingo diogu. Hona ba:

1.6.1.1 Erasotzailearen portaeraren etiologia

Aurretik ikus bezala, sexu-erasotzailearen profilaren inguruan hitz egingo dugu eta horretarako autore eta teoria ezberdinez baliatuko gara. Hasteko, erasotzailearen portaeraren etiologiaren inguruko azalpen bat emango dugu.

Bada, portaeraren etiologiari dagokionez sexu-erasotzaileen profil ezberdinak aurki ditzakegu. Hala ere, egun portaeraren eragile diren faktore batzuen inguruko adostasuna dago eta hauek Marshall eta Barbaree-ren (1989,1990) modelo teorikoan jasoak izan dira (Redondo, Pérez eta Martínez, 2007 zitatu). Eredu honek sexu-erasoaren etiologia zehaztuko luke, alderdi hauek kontuan hartuz: elementu biologikoak, inhibizio-ikaskuntzaren porrota, sexu-erasoarekiko onuragarri edo toleranteak diren jarrera soziokulturalak, pornografia, egoera edo baldintza erraztaileak (prezipitadoreak), distortsio kognitiboak eta aukera inguruabarrak (Martín eta Vozmediano, 2014; Redondo et al., 2007).

1. Elementu biologikoak. Bi alderdi hartu behar dira kontuan:

Alde batetik, sexu-portaeraren eta gizonen jokabide oldarkorraren bitartekari neuroendokrinoen artean dagoen antzekotasuna. Hauetan, testosteronaren jariaketak eginkizun erabakigarria du. Horrek esan nahi du, sozializazio eraginkor baten bidez, bi portaera motak bereizten ikasi behar dutela, hauei dagozkien inhibizioak gehituz (Redondo et al., 2007). Sexu-harremanetan jarrera

oldarkorrek inhibitzen ikasteko beharra izan ohi dute (Martín eta Vozmediano, 2014).

Bestetik, garrantzitsua da, sexu-bulkadak gizakiengan duen zehaztasun (*inespecificidad*) falta. Honengatik, beharrezkoa da jokaera-jarraibide egokiak ikastea bikote egokien hautaketari eta testuinguru egoki eta desegokiei dagokienez (Redondo et al., 2007; Martín eta Vozmediano, 2014). Beste era batera esanda, inpultsu sexualak bideratzeko beharraz hitz egiten ari gara.

- 2. Inhibizio-ikaskuntzaren porrota.** Psikologia kriminaleko ikerketak agerian utzi du, oro har, sexu-erasotzaileen eta ohiko delitugileen ikaskuntza inhibitzailea txikiagoa dela (Redondo et al., 2007). Garrido, Stangeland eta Redondok (2006) ikaskuntza horren porrota azaldu zuten zenbait faktoreren bidez: hezkuntza eredu pobreak, zigor latzak baina inkonsistenteak, guraso agresibo eta alkoholikoak eta haurtzaroan abusu sexual zein fisikoak sufritu izana (Martín eta Vozmediano-k, 2014 zitatu).

Sexu-erasoan gertatzen diren indarkeria eta larderia ekintzak inhibizio faktore dira sujetu normalentzat. Bortxatzaileen kasuan, ordea, ekintza horiek ez dira gai izango jokaera inhibitzeko. Zergatik? Agian, erasotzaileak ez direlako gai izango ekintza horiek identifikatzeko edo, identifikatu ondoren, delituzko portaera inhibitzeko gai ez direlako (Barbaree, Marshall eta Lanthier, 1979; Martín eta Vozmediano, 2014).

- 3. Sexu-erasoarekiko onuragarri edo toleranteak diren jarrera sozio-kulturalak.** Emakumeei buruzko jarrera eta balio negatiboagoak dituzten gizarte eta talde sozialek sexu-erasoen eta bortxaketen tasa altuagoak dituztela egiaztatu da (Sanday, 1981; Hollin, 1987; Redondo et al., 2007-n zitatu).

Sanday-ren (1981) ikerketaren arabera, bortxaketa pertsonen arteko indarkeria, gizonen nagusitasuna eta sexu-bereizketa barne hartzen dituen kultura-konfigurazio baten parte da. Bortxaketa indar horien adierazpen sexuala da, gizonezkoen eta beren ingurunearen arteko harmonia gogor asaldatu duten gizarteetan. Bortxaketaren aldeko gizarte bat honela definitu zuen: bortxaketaren gertaera ohikoa eta zeremoniazko ekintza da, edo bortxaketa gizonezkoek emakumeak zigortu edo mehatxatzeko erabilitako egitea da.

Laburbilduz, bortxaketaren aldeko gizarte batean gizonek emakumeei egiten dieten eraso sexuala kulturalki onartua dago edo, hein handi batean, ez da aintzakotzat hartzen (Sanday, 1981).

4. **Pornografia.** Erasotzaile eta pedofilo askok (ez guztiek) modu erregular batean kontsumitzen dute pornografia bortitz/biolentoa. Hau, kitzikatzeko eta masturbatzeko mekanismo bezala erabiltzen dute eta horrek etengabe birbaldintzatzen du sujetuaren kitzikagarritasun antisoziala (Redondo et al., 2007). Sexualitatearen eredu distorsionatua, faktore bat izan daiteke sozializazio prozesu ez egokia izan dutenentzat.
5. **Egoera edo baldintza erraztaileak, prezipitadoreak.** Erasoen aurretik egoera emozional ezberdinak egon daitezke; delituak egiteko motibazioa areagotzen edo sortzen dituzten elementuak: alkohola edatea, sumindura, estresaren egoera luzea, etab. (Redondo et al., 2007; Martín eta Vozmediano, 2014). Hauek, delitua gertatzeko momentuan rol edo paper bat izaten duten faktoreak dira.
6. **Distortsio kognitiboak.** Sexualitateari, emakumeei eta abarri buruzko distortsio kognitiboak, erasotzaileak haurtzaro eta gaztaroko garapenean eskuratuak. Hauek, barne-kontrolak gainditzen laguntzen diete (Redondo et al., 2007).
7. **Aukerak.** Erasotzaileak atxilotu edo zigortua izan gabe emakume bat biktimizatzeko duen aukeraz hitz egiten dute autoreek (Martín eta Vozmediano, 2014). Leku/egoera lagungarria, biktima izan litekeen pertsonaren presentzia... Aukera hori aprobetxatuko du erasotzaileak.

1.6.1.2 Profil psikologikoa eta motibazionala

Profil psikologikoaren arabera sailkapenarekin jarraituko dugu analisi honekin. Ondoren, motibazioaren arabera sailkapena azalduko dugu.

- **Profil psikologikoaren arabera egindako bortxatzaileen sailkapena.**

Massachusetts-en kokatzen den Bridgwater Tratamendu Zentroak Cohen eta bere lan-taldearen bidez (Cohen et al., 1969, 1971) lau bortxatzaile talde bereizi zituzten profil psikologikoaren arabera (Martín eta Vozmediano-k, 2014 zitatua):

- *Desplazatutako eraso bortxatzailea (violador de agresión desplazada)*. Jarrera bere haserre edo amorruren adierazpen gisa azaltzen duen subjektua (Larrotta eta Rangel-Noriega, 2013). Biktima umiliatu eta iraindu edo laidotu nahi du. Kasu askotan sadismoa eta indarkeria erabiltzen ditu, beraz, uste da ez dagoela hasierako kitzikatzerik. Desplazatutako erasotzat hartzen da, biktimak ez baitu zuzeneko rolik ekintza oldarkor horretan (Martín eta Vozmediano, 2014).
- *Bortxatzaile konpentsatzailea*. Delituaren bidez, bere sexu-jarduera harmonizatzea bilatzen du, baliabide normalizatuen bidez ez baitu hori lortzen (Larrotta eta Rangel-Noriega, 2013). Sujetuak biktimari bere egokitzapen sexuala azaldu nahi dio horrela sozialki dituen desorekak konpentsatzeko asmoz. Desoreka horiek autoestimua baxua, barnerakoitasuna edo pasibotasuna izan daitezke (Martín eta Vozmediano, 2014).
- *Bortxatzaile sexual-oldarkorra, sadikoa*. Sexu-disfuntzioa adierazten du eta agresiboa da. Sexu-kitzikapena sentitzeko, erasotzaile honek biktimari kalte fisikoa eragin behar dio (plazerra mina eragiten lortuko du). Bortxaketaren helburua fantasia oldarkor eta sexualen adierazpena da (Garrido, 1993; Guevara, 2016-n zitatua). Hori horrela, subjektu hauek sexu-jarduerarekin bat indarkeria handia erabili eta biktimari beldurra eragiten diote. Honen ondorioz, muturreko kasuetan biktima era oso bortitz batean hiltzera heldu daitezke (Martín eta Vozmediano, 2014).
- *Bortxatzaile inpultsiboa*. Ez da etekinzaile edo kalkulatzaila, oportunistak desinhibitua baizik (Larrotta eta Rangel-Noriega, 2013). Beste delitu bat aurrera eramaten ari direnean sexu-erasoa egiteko aukera aprobetxatzeko dute, ez da planifikatua izango (bulkadak kontrolatzeko zailtasun handiak izango dituzte). Sujetu hauek aurrekari penal ez-sexualak izaten dituzte (Martín eta Vozmediano, 2014).

- **Motibazioaren arabera**

Knight eta Prentky (1990) autoreek delitugilearen motibazioaren araberako bortxatzaileen tipologia aurkeztu zuten. Autoreek lau mota orokor identifikatzen dituzte, motibazio ezberdinei lotuta: oportunistak, haserre orokortuak, sexualak eta mendekariak. *Massachusetts Treatment Center: Rapist Typology* (MTC:R3) izeneko eredu taxonomikoa garatuz, tipologia hau ezarri zuten (Martín eta Vozmediano, 2014):

- *Oportunista*. Mota honetako bortxatzaileentzat sexu-erasoak ekintza oldarkor, ustekabeko eta harrapakaria dirudi eta hau, berehalako testuinguruaren arabera faktoreengatik kontrolatua izango da. Ustez, sujetu hauen sexu-erasoa bulkaden kontrol eskasaren ondorio da (hala erakusten dute hainbat arlotan izan dituen portaera ez sozializatuek). Ekinaldietan, ez dute indarra erabiltzen hutsean (*gratuitamente*) eta sumindura edo amorru gutxi adierazi ohi dute, biktimaren erresistentziari aurre egiteko izan ezik (Knight eta Prentky, 1990). Beraz, esan dezakegu bortizkeria maila ez dela oso altua izango baina delitua burutzea erabakitzen duten momentuan beharrezkoa izango den bortizkeria erabiliko dute (biktima kontrolatzeko...). Biktimaren ongizate eta erosotasunarekiko axolagabekeria azaltzen dute.

Autoreek, subjektuaren gaitasun sozialen arabera bi taldetan banatzen dute kategoria hau. Alde batetik, **konpetentzia sozial handiagoak (+)** dituzten bortxatzaile oportunistak ditugu (besteekin erlazionatzeko zailtasunik gabekoak), eta bestetik, **konpetentzia sozial baxuagoak (-)** dituztenak (hauek, asertibitate maila baxuagoa azaldu ohi dute: jendearekin komunikatzeko eta ideiak adierazteko zailtasunak, etab.). Lehenengo taldeko sujetuek, aurreneko portaera oldarkorra helduaroan izan ohi dute; besteek, aldiz, nerabezaroan azaltzen dute lehenengo jokabide antisoziala (Martín eta Vozmediano, 2014). Gizarte gaitasun altuko pertsonak (lehenengo taldekoak) biktimak ezagutzearan harreman hori erabiltzen du berehalako beharrak asetzeko, horrek emakumeari nola eragingo dion aintzat hartu gabe (Knight eta Prentky, 1990).

- *Haserre orokortua*. Erasoen motibazio nagusia desberdindu gabeko sumindura edo amorrua da. Funsgabekoa izan ohi da eta biktimaren erresistentziarik gabe gertatzen da, baina, era berean, erresistentzia horren ondorioz gerta liteke. Sarritan, biktimei lesio fisiko larriak eragiten dizkiete, hiltzera iritsi arte. Emakumezko diren biktimei sexualki eraso arren, sujetu hauen amorruak ez dirudi sexualizatua dagoenik. Horrez gain, ez dago frogarik ekintza hauek aurretiko fantasia sexuak bultzatuak direla ondorioztatzeko. Gainera, norbanako hauen haserre ez da soilik emakumeengana mugatzen, gizonezkoiei ere zuzenduta dago sutsuki. Haurtzarotik eta nerabezarotik helduarora arte, sexu-erasotzaile hauek zailtasunak izaten dituzte eremu askotan norberaren bulkadak kontrolatzeko (Knight eta Prentky, 1990) eta, ez hori bakarrik, jokabide oldarkor antisoziala duten sujetuak izaten dira (Martín eta Vozmediano, 2014).

Aurreko guztia laburbilduz, haserre orokortuko bortxatzailea inpultsiboa eta kompetentzia sozial maila baxukoa dela esango genuke.

- **Sexuala.** Motibazio sexuala duten lau bortxatzaile mota aurki ditzakegu talde honen barruan. Sexu-erasoen atzean luzaroan izandako fantasia edo kezka sexual edo sadikoak egon daitezke eta hauek, delituak egiteko edo burutzeko duten moduan eragiten dute (Knight eta Prentky, 1990). Etengabeko kezka adierazten dute sexuarekiko (Martín eta Vozmediano, 2014). Hori horrela, hauetako mota bakoitzean kontrol-premia, hertsapena eta ahulezia sexu-erasoen funtsezko ezaugarri izango dira. Eskeman ikus daitekeen bezala, bi azpitalde nagusi bereiz daitezke, fantasia edo jokabide sadikoak izatearen edo ez izatearen arabera (talde Sadikoa eta Ez Sadikoa) (Knight eta Prentky, 1990):
 - o **Sadikoa.** Sujetu hauek bulkada sexualen eta agresiboen artean bereizketa egiteko zailtasunak dituzte, gainera, pentsamendu eta fantasia erotikoa eta suntsitzaileak maiztasunez agertzen dira (Knight eta Prentky, 1990).
 - Nabaria edo agerikoa. Sexu-erasoetan fisikoki kaltegarria den portaera izaten dute (Knight eta Prentky, 1990).
 - Latentea edo ezkutukoa. Erasoa sinbolikoki edo portaera bidez gauzatzen ez den ezkutuko fantasiaren bidez adierazten da. Fantasien eremuan mantenduko da (Knight eta Prentky, 1990; Martín eta Vozmediano, 2014).

Autoreek, sadismoa sexu-eraso hauetan horren garrantzitsua denez gaitasun soziala diagnostiko-irizpide gisa ez erabiltzea erabaki zuten mota hauek bereizteko (Knight eta Prentky, 1990).

- o **Ez Sadikoa.** Sexu-erasoekin erlazionatzen diren fantasia sexuak ez dute sexuaren eta erasoaren arteko harremanik (sadikoetan kontrakoa gertatzen da) hau da, ez da agertzen mina egiteko desiorik. Sexuarekiko duen kezka behar eta/edo desegokitasun sentimenduen menpe egongo litzateke. Biktimaren erresistentziarekin aurkitzen badira, erasotu baino

ihes egitea erabaki dezakete (Knight eta Prentky, 1990; Martín eta Vozmediano, 2014). Bi mota bereizten dira:

- Konpetentzia sozial altua (+)
 - Konpetentzia sozial baxua (-)
- *Mendekaria*. Motibazio nagusia emakumeenganako amorru edo sumina da; agresibitatea eta haserrea espresatzen ditu. Erasotzailea biktima fisikoki kaltetzen, iraintzen eta umiliatzen saiatzen da bere portaeren bidez (Martín eta Vozmediano, 2014). Eraso hauen emaitza hilketa basatiena izan daiteke (Knight eta Prentky, 1990). Autoreek kategoria hau bitan banatzen dute, gaitasun sozialen arabera:

- Konpetentzia sozial altua (+)
- Konpetentzia sozial baxua (-)




FIGURE 4. Relative similarity positioning and hierarchical organization of the polythetic rapist types in MTC:R3.

1 Irudia. ITURRIA: Knight R.A., Prentky R.A. (1990). Classifying Sexual Offenders. In: Marshall W.L., Laws D.R., Barbaree H.E. (eds) Handbook of Sexual Assault. Applied Clinical Psychology. Springer, Boston, MA.

1.7 Delitugileentzako errehabilitazio programak

1.7.1 Programak Espainian

Espainiako espetxeetan sexu-erasotzaileei zuzendutako tratamendua 1996. urtean hasi zen, Garrido eta Beneytoren eskutik. Aurrerago, programaren egokitzapen bat egin zen, eta horren inguruan hitz egingo dizuegu ondorengo orrialdeetan. Adingabeei zuzenduriko programa ere aipatuko dugu.

1.7.1.1 SAC

Espetxean, sexu-erasotzaileei tratamendu programa bat eskaintzen zaie. Gaztelerazko izenburua: *“El control de la agresión sexual: Programa de intervención en el medio penitenciario”*. Hau, SAC bezala ere ezagutzen da.

Gidaliburu hau, Garrido eta Beneyto-ren (1996) jatorrizko programaren egokitzapen bat da eta Sexu-erasoen Kontrolerako Tratamendu Programen inguruko lantaldeak moldatu zuen (Rivera, Romero, Labrador eta Serrano, 2006). Hau, bortxatzaile zein adingabeen abusatzaileei bideratuta dago (Redondo et al. 2012).

Horrez gain, modelo edo eredu hau gaur egun munduko estatu ezberdinetan delitugile sexualen tratamendurako aplikatzen diren programen ikerketaren ondoren egin da. Estatu horien artean AEB, Kanada, Zelanda Berria, Ingalaterra eta Australia daude (Rivera et al. 2006).

Tratamendu programa honek inoizkakoak ez diren delitugile sexualen berrerortzearen prebentziorako eredu bat aurkezten du, hots, berrerorleak diren sujetuei zuzendua dago (Rivera et al. 2006).

Delitugile sexuak behar ezberdinak dituzte. Batzuek, plazerra edo gogobetetasun emozional eta kognitiboa lortzen dute ekintza hauek aurrera eramanez. Beste kasu batzuetan, sexu izaera duen delitua ibilbide deliktibo zabal batekin harremandu daiteke (Rivera et al. 2006).

Esku-hartze psikosozialari buruzko eskuliburu honen helburua zera da, delitugile sexualen tratamendurako programa egituratu bat eskaintzea zeinak etorkizunean eman daitezkeen biktimizazioak gertatzeko aukera murrizten duen (Rivera et al. 2006). Garrido eta Beneytok (Redondo et al., 2012-n zitatua) honela izendatu zituzten funtsezko edo oinarritzko helburuak:

- a. Birgizarteratzeko aukerak zabaldu eta berrerortzekoak murriztea. Bien hobekuntza.
- b. Distortsio eta justifikazio deliktiboak murriztuz norberaren jardura deliktiboen azterketa errealistago bat sustatzea.
- c. Pertsona arteko harremanetarako eta komunikaziorako dituen gaitasunak hobetzea.

Horretarako, teknika eta esku-hartze ezberdinak erabiltzen dira. Hauek, erasotzaile sexuala indarkeriarik gabeko harreman sexualak izateko gaitzen dute (Rivera et al. 2006).

Funtsezko ezaugarriak izendatuko ditugu. Programa honen aplikazioan bi fase desberdintzen dira: lehenik, programan borondatez parte hartzen duten sujetuen ebaluazioa eta bigarrenik, esku-hartze psikosoziala (tratamendua izango litzatekeena) (Rivera et al. 2006).

Iraupenari dagokionez, eskuliburuan azaltzen den saio bakoitzak hiru orduko iraupena izango du. Bederatzi eta hamaika hilabete arteko tarte gomendatzen dute eta horrela banatuko litzateke: lau talde-saio eta jarraipen indibidualako saio bat astero. Baina, ez dugu ahaztu behar malgutasuna izan behar duela, hau da, sujetu bakoitzarentzat indibidualizatua izan behar da (Rivera et al. 2006).

Modulu ezberdinez osaturik dago eta horietan, unitate desberdinak aurki ditzakegu. Eskema orokor bezala, hamaika moduluak aipatuko ditugu (Redondo et al., 2012):

- I. Erlaxazio entrenamendua.
- II. Historia pertsonalaren analisia.
- III. Distortsio kognitiboei sarrera.
- IV. Kontzientzia emozionala.
- V. Indarkeriazko portaerak.
- VI. Defentsa-mekanismoak.
- VII. Biktinekiko enpatia.
- VIII. Berrerortzearen prebentzioa.
- IX. Bizitza estilo positiboa.
- X. Heziketa sexuala.
- XI. Bulkada sexualen aldakuntza.

1.7.1.2 Programa de tratamiento educativo y terapéutico para agresores sexuales juveniles (Comunidad de Madrid)

Sexu-erasotzaile diren sujetuen artean adingabekoak aurki ditzakegula kontuan izanik, ez dugu ahaztu behar hauei aplikagarri zaien programa. Horregatik, Madrileko Erkidegoan aurkitzen den programa baten inguruan hitz egingo dugu. Honela deitzen da: *“Programa de tratamiento educativo y terapéutico para agresores sexuales juveniles”* (Redondo et al., 2012).

Eskuliburu hau D. Santiago Redondo Illescas-ek Adin txikiko Arau-hauslea Berrezteko eta Gizarteratzeko Agentziarekin lankidetzan egindako prozesuaren emaitza da. Programa hau “El Pinar” Neurri Judizialak Betearazteko Zentroan (gazteleraz, Centro de Ejecución de Medidas Judiciales, CEMJ) aplikatzen hasi zen 2005 urtean. Egun “Teresa de Calcuta” CEMJ-ean aurrera eramaten da (Redondo et al., 2012).

Espanian aitzindari den programa dugu. Baina, zertan datza? Bada, esku-hartze psikologikoa lantzen da, taldean zein indibidualki. Eta zein da honen helburu nagusia? Berrerortze sexualaren arriskua murriztearekin zuzenean lotuta dauden arrisku-faktoreetan eragitea. Modulu desberdinetan banatzen da: biktimarekin enpatia; distortsio kognitiboak; heziketa sexuala; autoestimua; gizarte-trebetasunak; bulkada sexualen aldakuntza; berrerortzearen prebentzioa eta familiekin esku-hartzea (Redondo et al., 2012). Ikus dezakegun bezala, antzekotasun nabariak ditu SAC programako moduluen izenburuekin.

Azalpenaren ostean, helburuak aipatu beharko ditugu. Ez dugu ahaztu behar adingabekoei zuzenduta dagoela beraz, helburu hezigarri eta terapeutikoak dituela. Honako hauek izango lirateke jomugak (Redondo et al., 2012):

- Egiletza eta delituagatiko erantzukizuna bere gain hartzea.
- Portaera arau-hauslearen azterketa. Delituzko jokaeraren hainbat faktore identifikatzeko lanketa egingo da.
- Berrerortzera eraman dezaketen arriskuko erabaki eta egoerak identifikatzea.
- Biktimarekiko enpatia-gaitasunaren garapena edo hedapena.
- Eraso errazten duten distortsio kognitiboen aldaketa.

- Jokaera sexuala aldatzea. Hau lortzeko, heziketa sexual indibidualizatua jasoko dute, norberaren heziketa maila eta garapena kontuan hartuz.
- Autoestimua hobetzea, baita arazoak konpontzeko duten gaitasuna ere.
- Gaitasun sozial eta familiarak handitzea.
- Bizimodu eraldaketaren bidez berrerortzea saihestea nahi da.

Azkenik, tratamendu programa honen faseen inguruan hitz egingo dugu. Lehenik, parte hartuko duten sujetuen hasierako ebaluazioa egingo da. Horretarako, gazteen inguruko informazio dokumentala erabiliko dute baita elkarrizketa klinikoak, test psikometrikoak eta auto txostenak ere. Jarraitzeko, sujetu bakoitzarekin indibidualki lanketa bat egiten da non delituaren onarpena erraztu edo lortu nahi den. Hau, programa osatzen duten atal ezberdinekin hasi baino lehen egiten da eta honekiko motibazioa hobetzen du. Segidan, gauzatutako delituaren azterketa funtzionala egiten da. Bukatzeko, tratamenduaren parte den zati psikologikoari hasiera ematen zaio (Redondo et al., 2012).

1.7.2 Nazioarteko programak

Ikerlan ezberdinetan frogatu dute tratamendu kognitibo-konduktuala eraginkorrena dela, jokabide-technikak baino askoz ere gehiago (Prentky eta Schwatz, 2006). Honen helburua jokabide sexual desegokiaren ukazioa eta minimizazioa gainditzea eta distortsio kognitiboak zuzentzea da (Butler eta Seto 2002; Council on Sex Offender Treatment (CSOT) 2006; Eastman 2004; Hagan eta Gust-Brey 2000 / Brandes eta Cheung, 2009 zitatuak). Marshall eta bere taldeak Kanadan aplikaturiko tratamenduaren formatua munduan sexu-erasotzaileekin aurrera eramaten diren programa gehienen aitzindaria izan da (Brown, 2005; Budrionis eta Jongsma, 2003; Echeburúa eta Guerricaechevarría, 2000; Marshall eta Fernandez, 1997; Marshall, 2001; Ward, Hudson eta Keeman, 2001 / Redondo et al., 2012 zitatuak).

Aurkezpen txiki honen ondoren, Erresuma Batuan aplikatzen den programaren inguruan hitz egingo dugu. Ez dugu ahaztu behar herrialde bakoitzak programa bere ezaugarrietara egokitzeko aldaketa txikiak egiten dituela.

Sexu-erasotzaileen tratamenduaren arloan garapen handiena duen herrialdea Erresuma Batua da. Bertako Espetxe Zerbitzuek hainbat programa diseinatu eta aplikatu dituzte.

Sex Offender Treatment Programme (SOTP). Delitugile Sexualen Tratamendurako Programa hau 1990ko hamarkadaren hasieran martxan hasi zen eta egun, delitugile hauentzako programa-multzo bilakatu da. SOTP-en muinaren helburu nagusia delitugile sexuak ekintzak justifikatzeko eta desenkusatzeko erabiltzen dituzten kognizioei aurre egitea da. Oinarrizko programaren asmoa delitugileei jarrera berriak garatzen laguntzea da, eta horrela delituzko portaera aldatzea. Honez gain, maila intelektual txikiagoko delitugileentzako bertsio bat dago, SOTPen programa egokitua izenekoa (*SOPT Adapted programme*). SOTP hedatuak (*Extended SOPT*) lan programa gehigarri bat eskaintzen du, luzeagoa eta intentsiboagoa dena. Hau, oinarrizko programa osatu duten arrisku eta behar handiko sexu-delitugileei zuzendua dago (Hollin eta Palmer, 2006).

Duela gutxi arrisku txikiko sujetuentzako esku-hartze bat gehitu dute, SOTPen Programa Iraunkorra (*SOTP Rolling Programme*) deitua. Honek, oinarrizko programaren antzeko eremuak hartzen ditu. Azkenik, Bizitza Hobeak Bultzateko SOTP Programa (*Better Lives Booster SOTP Programme*) garatu da, oinarrizko SOTP programa edo programa hedatua arrakastaz osatu duten gaizkileentzat. Hau norbera bere tratamendu behar indibidualetan zentratzeko eta askapenerako plan ezberdinak egiteko diseinatu dago. Bi bertsio daude: batetik, intentsitate handiko bertsio bat, askatasuna lortzeko egunetik gertu dauden espetxeratuentzat eta, bestetik, intentsitate baxuko bertsio bat, zigorraren hasieran SOTP programa osatu duten eta espetxean igaroko duten denboran mantenimendu edo eguneratze bat behar duten delitugileei zuzendua. Maila intelektual baxuko pertsonekin erabiltzeko egokitua izan da programa hau ere (Hollin eta Palmer, 2006).

1990eko hamarkadan, halaber, Ingalaterra eta Galesen delitugile sexualendako komunitate tratamendu-programak aplikatzen hasi ziren. Horietan, esku-hartzeek 50 ordu inguru irauten dituzte (Barker eta Morgan, 1993; Hollin eta Palmer, 2006 zitatua) baina 260 ordu arte irauten dituztenak ere aurki ditzakegu (Redondo et al., 2012).

2. TALDE SEXU-ERASOAK

2.1 Definizioa

Horvath eta Kelly autoreek (2009) honela definitu zuten talde sexu-erasoak: *“Bi egile edo gehiago dituen edozein eraso sexual”* (94 or.) (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitatua).

Talde bateko kide izateak erantzukizun pertsonala minimizatu edo txikiagotu, portaeraren desinhibizioa bultzatu, zereginen banaketari esker delitua erraztu eta, gainera, taldeko kide bakoitza indartu dezake. Gazteek egindako sexu-eraso eta bortxaketen herena taldean gertatzen da (Redondo et al., 2012). Erasoa hauek indibidualek baino iraupen, bortizkeria eta larritasun handiagoa izan dezakete. Oro har, maizago gertatzen da biktimaren bortxaketa agresio indibidualetan baino. Areagotutako indarkeria hori hainbat fenomenoren ondorio izan daiteke, hala nola taldearen erabaki eta presioa, albokoen jokabide oldarkorra imitatzea, taldearen onarpena bilatzeko joera, anonimotasunaren pertzepzio handiagoa, leialtasuna eta nortasunaren bilaketa, barregarri geratzeko beldurra, alkoholaren eta drogen kontsumo kolektiboa eta erasoak justifika ditzaketen ordezeko kode moralak izatea. Talde sexu-erasoek izaera etiologiko desberdina dute. Taldea osatzen duten norbanakoen arrisku faktore indibidualen gainetik, kideen jokaerak baldintzatuko dituzten talde prozesu eta dinamikak daude (Redondo et al., 2012).

2.2 Talde sexu-erasoen estatistikak

Atal hau osatzeko ofiziala ez den iturri batera jo behar izan dugu, datu base ofizialetan ez baita jasotzen taldean burututako erasoen daturik. Beraz, *Geo Violencia Sexual* web orrian dauden datuak azalduko ditugu. Hau, *La Sur* elkarte eta *Femicidio.net* behatokiaren proiektu bat da eta Intermon Oxfam ONG-arekin elkarlanean jarduten dute.

Iturri honetan Polizian eta komunikabide ezberdinetan azaldutako datuak jaso eta aurkezten dituzte estatistika desberdinak eginez, baita grafikoak ere. Hala ere, aurretik azaldutako estatistiken arazoa ematen da: **zifra beltza**. Prentsan agertu diren kasuak azaltzen dira baita Poliziak jasotakoak ere, beraz ezagutzera eman ez bada ez da datu hauetan agertuko (biktimak salatu ez badu, inor konturatu ez bada...).

Kontuan izan behar dugu iturri bezala erabilitako web orrialde honek informazioa sailkatzeko duen era. Alde batetik, bortxaketak ditugu. Hauek, sexu-erasoak dira sarpen edo penetrazioarekin. Bestetik, sexu-erasoak ditugu; web orrian diotenaren arabera sexu-izaerako egintza behartuak, hau da, baimenik gabeak baina penetratorik gabe (Atencio, Novo & De la Guerra, s.f.). Informazioa gertutik aztertzen aritu gara, eta datuak osatzeko erabilitako berrietan “abusu” bezala kalifikaturiko delituak ere barne hartu dituzte. Hau, hasierako orrialdeetan egindako “ingurune beldurtaraztearen” argumentuarekin bat datorrela esango genuke. Gizonezkoek beste gizonezko batzuei egindako erasoak ere jasotzen dituzte.

2016 urtetik, taldean egindako 166 sexu-eraso erregistratu dira Espainian. Urte bakoitzeko kopurua honako hau izan da: 2016 → 18 kasu; 2017 → 14; 2018 → 60 eta **2019 → 73 kasu**. Ikus dezakegun bezala, 2016 eta 2017 urteen artean beherakada txiki bat eman zen. Baina ondoren, 2018an izandako gorakada oso nabarmena da, 2017ko datuen laukoitza baino gehiago. 2019an, taldeko sexu-erasoen zifra marka erregistratzen da: 73 kasu, aurreko urtean baino 13 gehiago. 2019an ezagututako kasuek soilik erabilitako datu base honen %43,7a suposatzen dute. Datuekin jarraitzeko, 2016 urtetik aurrera hiru talde sexu-erasoetatik bi bortxaketak izan ziren (104 kasu, %62,7a); gainerako %37,3a beste mota bateko eraso bezala jaso dira (ez da zehazten). 166 kasuetatik %56a bi edo hiru gizonezkoek osatutako taldeek burutu zituzten (Atencio et al., s.f.).

2.2.1 Datu interesgarriak

Honen ostean, beste datu batzuk ematen jarraituko dugu. Ezagutzen diren 166 talde sexu-eraso hauetan gutxienez 565 erasotzaile erregistratu dira, baina kasu batzuetan ez da hauen kopuru zehatza ezagutzen. Horietatik, 139 gutxienez adingabeak ziren erasoak aurrera eraman zutenean, hau da, lautik bat. Biktimei dagokienez, 175 daude erregistraturik eta horietatik 63 (%36a) adingabeak ziren (Atencio et al., s.f.).

Erasoetatik %10,2 pornografiatuak izan ziren, hau da, erasotzaileek biktimari argazki bat atera edo grabatu egin zioten (Atencio et al., s.f.).

2.2.2 Talde sexu-eraso kopurua eta mota

Azpiko taulan azaltzen diren datuak Espainia mailakoak dira, bi taldeetan sailkatuta.

GUZTIRA 166	BORTXAKETAK 104	SEXU-ERASOAK 62
-----------------------	---------------------------	---------------------------

Datuak: *Geo Violencia Sexual*.

Lau urte hauetako datuei erreparatzen badiegu eta Autonomia Erkidegoen arabera banaketa bat egiten badugu Andaluzia, Valentziako Erkidegoa eta Katalunia kasu kopuru handienekin nabarmentzen dira, 30 kasurekin bakoitzean (Atencio et al., s.f.).

Hari beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) datuak azalduko ditugu taula eta mapan txertatutako grafiko bati esker.


PROBINTZIA	HERRIA	ERASOAK GUZTIRA
Bizkaia	Barakaldo	4
Bizkaia	Bilbo	7
Gipuzkoa	Lasarte-Oria	1
Gipuzkoa	Donostia	1
Araba	Gasteiz	2
		GUZTIRA 15

3 Taula. *Geo Violencia Sexual* web orriaren arabera sexu-eraso kopurua EAEn.

GUZTIRA 15	BORTXAKETAK 7	SEXU-ERASOAK 8
----------------------	-------------------------	--------------------------

Datuak: *Geo Violencia Sexual*.

Erabilitako mapa **Graduated Dot Map** bezala ezagutzen da. Mapa honetan delituak zirkulu bidez irudikatuko dira (*dot* deituak) eta hauek, lekuan burutzen diren delitu kopuru eta motaren arabera kolore eta tamaina desberdinekoak izango dira. Zirkuluaren tamaina, sexu-eraso eta bortxaketa kopuruaren gisakoa izango da. Metodo desberdinak erabiliz osatzen den grafiko antzeko bat da baina informazioa mapa batean isladatuz (edo adieraziz).




1 Grafikoa. Sexu-eraso eta bortxaketak EAEn geografikoki kokatuta. ITURRIA: Atencio, G., Novo, N., & De la Guerra, L. (s.f.). Agresiones sexuales múltiples en España desde 2016: casos actualizados. Berreskuratua: <https://geovienciasexual.com/>


2.2.3 Biktima eta erasotzaileen arteko harremana

Jarraian, biktima eta erasotzaileen arteko harremanaren inguruan hitz egingo dugu. Alde batetik, Espainiar mailako datuak aurkeztuko ditugu grafiko batzuen bidez eta, bestetik, EAEko datuak.

ESPAINIA




2 Grafikoa. Bortxaketak, erasotzaile eta biktimen arteko harremana Espainia. Datuak: Geo Violencia Sexual.




3 Grafikoa. Bortxaketak, erasotzaile eta biktimen arteko harremana Espainia. Datuak: Geo Violencia Sexual.

EAE



4 Grafikoa. Bortxaketak, erasotzaile eta biktimen arteko harremana EAEn. Datuak: *Geo Violencia Sexual*.



5 Grafikoa. Sexu-erasoak, erasotzaile eta biktimen arteko harremana EAEn. Datuak: *Geo Violencia Sexual*.

Bistan da erasotzaile eta biktimaren artean gailentzen den harreman mota ezezagunena dela, eta hala baieztatzen du Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak 2017an argitara

emandako *“Informe sobre delitos contra la libertad e indemnidad sexual en España”* testuan (Cereceda et al., 2017).

2.2.4 Erasotzaile kopurua

Honen ostean, **erasotzaile kopurua** aztertuko dugu. Espainian 2016 urtetik prentsarengatik eta poliziarengatik ezagutzen diren talde sexu-erasoetatik erdia baino gehiago bi edo hiru gizonez osaturiko gizataldeek burutu zituzten (%32,5 bi erasotzaile eta 54 kasu; %23,5 hiru erasotzaile eta 39 kasu). Lau erasotzailez osatutako taldeek 34 eraso egin zituzten, kasuen %20,5. Bost erasotzailez osaturiko taldeak gutxiago izan dira, 13 kasu %7,83a. sei erasotzaile edo gehiagoko 19 kasu erregistratu dituzte, %11,45 eta azkenik, zenbat erasotzaile egon diren zehaztu ez den edo ez dakien 7 kasu daude, %4,22a (Atencio et al., s.f.).


Euskal Autonomia Erkidegoan, 4 erasotzailez osaturiko taldeak gailentzen dira, bost (%33,33) erasorekin guztira. Horietatik 2 bortxaketak izan ziren eta 3, sexu-erasoak. Lau kasurekin 2 erasotzailez osaturiko taldeak ditugu (%26,67) eta atzetik hiru kasurekin 3 erasotzaileko multzoak (%20). Azkenik, talde bakoitza eraso bakarrarekin 5 erasotzaile, 6 erasotzaile edo gehiago edo ez dakien kasuak ditugu (bakoitzak, %6,67ko portzentaia du) (Atencio et al., s.f.).

2.2.5 Non gertatu dira eraso hauek?

ESPAINIA

2016 urtetik erregistratutako sexu-eraso anizkoitzetan edo talde sexu-erasoetan ohikoena den gertaera lekua etxebizitza da, 39 kasurekin. Horietatik 33, bortxaketak izan ziren eta 6 sexu-eraso. Etxebizitzaren ondoren kalea egongo litzateke, 25 sexu-eraso erregistratu ziren eta 13 bortxaketa. Autoa ere nabarmendu dezakegu, 15 bortxaketa eta 3 sexu-eraso daude erregistraturik (Atencio et al., s.f.). Kopuru desberdintasun hori nabarmena da eta interes kriminologikoa izan dezake. Klean gertaturiko kasuetako asko jai giroarekin erlazionaturik egon daitezkeela uste dugu.

EAE



6 Grafikoa. Erasoak gertatu diren lekuak EAEn. Datuak: *Geo Violencia Sexual*.

EAEn, bortxaketei dagokionez etxebizitzak dira nagusi, 4 kasurekin. Honen ostean kalea izango genuke, 2 kasurekin eta azkenik hondartza, kasu bakar batekin. Oro har, sexu-erasoak etxebizitzetan 2 kasu izan ziren, kalean 5 kasura arte iritsi zen kontua eta azkenik, orain arte aipatu ez dugun testuingurua edo leku bat gehitu behar dugu, etxebizitza baten ataria edo ezkaratza (Atencio et al., s.f.).

Datu interesgarri bezala, Espainia mailako 166 kasuetatik 27 biktima bahituak izan ziren erasotzaileengatik eta beste toki batera lekualdatu zituzten. Bertan, erasoak egikaritu zuten. Hau, kasuen %16,3an eman zen (Atencio et al., s.f.).

2.2.6 Ze ordutan gertatu dira?

Erasoak gehien egikaritzen diren ordu tarteaz zera esan dezakegu: erregistratutako sexu-eraso anitzen erdiak baino gehiago **goizaldean** izan ziren (89 kasu, %53,6). Hurrengo, **gauean** emandako erasoak ditugu 19 kasurekin (%11,4) eta azkenik, **goiza** 11 kasu (%6,6) eta **arratsaldean** ditugu 9 kasurekin (%5,4). Datu interesgarri bezala, ez dugu ahaztu behar biktimak egun batzuetan zehar atxiki eta erasotu zituzten 2 kasu behintzat ezagutzen direla (Atencio et al., s.f.).

2.3 Talde erasotzailearen ezaugarriak

Garrantzitsua da egile bakar baten sexu-erasoen tipologiak aztertzea ondoren hauek taldean burututako delituekin duten harremana ezagutu eta aztertzeko. Ez dugu ahaztu behar sexu-erasoak aurrera eramateko bi mota ezberdinak direla, baina loturik daude.

Ikerketa batean talde sexu-erasoa egile bakarreko erasoarekin konparatu zuten, eta hau izan zen emaitza: talde-sexu erasoetan bortizkeria gehiago erabiltzeko joera zuten, eta egile bakarreko delituetan portaera sumisoagoak aurkitzen ziren (Hauffe eta Porter, 2009; Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia).

Gainera, ikerkuntza batzuek aditzera ematen dute talde sexu-erasoetan probabilitate handiagoa dagoela egile batzuk edo guztiak biktimarentzat ezezagunak izateko (Horvath eta Kelly, 2009; Porter eta Alison, 2006 / Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia). Hau azalduko estatistiketan agertu da, kasu gehienetan erasotzaileak ezezagunak ziren bai Espainia mailan baita EAEn ere. Salaketa eta kondena tasa txikiak eta delituak duen talde-dinamikak zaildu egiten dute ikertzaileek delituaren parte izan diren sujetuak identifikatzea (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010).

Taldean burutzen diren erasoetan, alde batera uzten da delitugileek buru-nahaste edo nortasun patologikoaren eraginpean jardutea (Carvalho eta Nobre, 2019). Orain azalduko dugun bezala, taldearen osaerak eta interakzio-dinamikek paper garrantzitsua dute delitua burutzeko erabakian (de la Torre-Laso, 2020).

Sexu-erasotzaileen profil orokorraz hitz egin dugunean, Groth (1979) ek egindako tipologiak aritu gara. Autore honek egindako azterketan, 500 pertsonako lagineko gutxiengo bat ($n = 30$) talde-sexu erasoaren parte izan ziren. Hauek, delituaren eragile edo kooperatzaile (ko-gaizkile, gaizkile-kideak) ziren, taldearen barruan izandako estatusaren arabera. Honela definitu zituen: eragile edo bultzatzaileak, bortxaketan inizatiba hartzen zuten sujetuak bezala deskribatu ziren; hauek, biktima eta beste parte-hartzaileak kontrolatuz boterea adierazten zuten (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010). Gaizkile-kideak delitua norberaren gizentasuna baieztatzeke edo taldearen barruan errekonozimendua lortzeko burutzen zuten. Nola? Biktima mugatzen lagunduz edo sexualki erasotuz (Groth, 1979; Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia). Groth-ek uste zuen taldearen barnean izandako jarrerak norbanakoaren erasotzeko era (estiloa) aurrean zezakeela.

Honekin jarraituz, urteetan zehar bortxaketaren taxonomiari buruzko ikerketa-psikologiko ugari garatu dira erasotzaile bakarreko delituetan. Bertan, delituzko

portaerak eta biktima eta delitugileen arteko interakzioak aztertu dira (Canter, 1995; Canter eta Heritage, 1990; Heritage, 1992 / Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia). Ikuspuntu honen arabera, delitugilearen buruzko informazio esanguratsua lor daiteke delituan zehar sujetuak izan dituen portaeren bidez. Jokaera hauen inguruko informazioa lekukoek poliziarri egindako adierazpen bidez jasoa izan da. Bortxaketa batean milaka ekintza gerta daitezke baina askotan patroia bat identifika daiteke (Canter, 1995; Canter eta Heritage, 1990 / Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia). Canter eta Heritage (1990) autoreek biktimarekiko bost elkarrekintza-modu iradoki zituzten: sexualitatea, indarkeria, portaera interpersonala, kriminalitatea eta intimitatea (Canter eta Heritage, 1990; Chambers, Horvath eta Kelly, 2010). Teknika bera erabili zuten beste ikerlan batzuetan eta bost ezaugarri horietatik lau nabarmendu zituzten: parte-hartzea, kontrola, lapurreta eta etsaitasuna (Canter, Bennell, Alison, eta Reddy 2003; Chambers, Horvath eta Kelly, 2010).

Aipaturiko ikerketek aditzera eman zuten bortxatzaile mota desberdinen jokabideak aurreikusteko aukera zegoela (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010).

Porter eta Alison (2004) autoreek egindako lan batek orain arte aipatu ditugun tipologiak talde sexu-erasotzaileei aplikatu zizkieten. Irainzeko lau estilo ezberdin identifika zituzten, pertsonen arteko elkarreaginaren teoriar oinarrituak: nagusitasuna, sumisioa, lankidetzatza eta etsaitasuna edo borroka (hostilidad). Gainera, neurrigabeko (abusuzko) harremanetan sailka daitezke, ahozkoak zein fisikoak. Aipaturiko eraso estilo bakoitzaren azalpen txiki bat emango dugu (Porter eta Alison, 2004):

- *Nagusitasuna*. Delituaren menderatze-estiloa biktimaren kontrola inposatzen duten jokabideak dira, erabateko menpekotasuna lortu ahal izateko.
- *Sumisioa*. Delitugilearen jokabide sumisoek, berriz, biktima nagusitasun handiagoko egoera batean jartzen dute eta, ondorioz, aurre egin eta ihes egin dezakete.
- *Lankidetzatza*. Biktimaren parte-hartze handiagotza lortzea dute helburu, hura parte-hartzaile aktibo izatera behartuz.
- *Etsaitasuna*. Estilo honekin identifika dezakegun erasotzaileak justifikaziorik gabeko indarkeria erabiltzen du. Horren ondorioz, biktima zauritu edo lesioak eragin diezaiolke.

Erasotzaileen portaera mota bakoitzak biktimaregan erreakzio bat sortu nahi du (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010). Estilo hauek agerian uzten dute delitugileek biktimekin harremantzeko moduen aniztasuna.

Porter eta Alison-en (2004) ikerketaren sailkapenen parte (nagusitasun, lankidetzeta eta etsaitasun estiloak) Canter eta Heritage-k (1990) ateratako ondorioekin lotu daiteke, hala nola, kriminalitate, indarkeria eta intimitatearekin. Baina, aipatutako sexu-erasotzaile indibidualen tipologietan ez da sumisioaren inguruko ezer azaldu. Zergatik? Sumisio estiloa beste delitu motetatik bereizten da taldeko kide batek bakarrik erakusten (azaltzen) duelako. Beraz, erasotzaile otzanak biktimak ihes egitea ahalbidetzen badu, taldeko beste erasotzaile batek ihesaldi saiakera ekidingo du. Hortaz, sumisio mota honek taldekide batek delitua egiteari uko egiten diola adieraz dezake. Horrek, talde baten parte diren norbanakoek asmo ezberdinak izan ditzaketela adierazten du (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010).

Autore hauen arabera, ondoriozta daiteke talde bortxaketaren eta banakoen bortxaketaren portaera oso antzekoa dela (Porter eta Alison, 2004), hau da, bortxaketak burutzen dituzten sujetuen portaera indibiduala taldeetan islatzen da (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010).

2.4 Talde sexu-erasoaren zikloa edo modus operandia

Taldeko sexu-erasotzailearekin jarraitzeko, Chambers, Horvath eta Kelly-ren (2010) azterlanaren inguruan hitz egingo dugu. Ikerketarako talde sexu-erasoen biktima izan diren 75 pertsonen adierazpenak erabili dira. Artikulua egiteko, arau-hauslearen ekintzak aztertu dituzte eta hauek sei kategoriatan sailkatu. Horietako lauk azpikategoriak dituzte. Kategoría bakoitzaren deskribapen bat egingo dugu (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010):




Figure 1: The Offender Model of Multiple Perpetrator Rape

2 Irdia. ITURRIA: Chambers, J. C., Horvath, M. A., & Kelly, L. (2010). A typology of multiple-perpetrator rape. *Criminal Justice and Behavior*, 37(10), 1114-1139.

- *Hasierako kontaktua*. Kategoria honetan, delituaren aurretik biktimak erasotzaileetako batekin edo gehiagorekin duen elkarreragina adierazten da. Gertaera baino lehen harremanetan egon badira (biktima eta erasotzaileetako bat, gutxienez), gizarte-harreman azpikategoria aplikatzen da. Gizarte-harremanak biktimaren eta egileen adina erakusten du: adin gehiago duten sujetuek tabernetan sozializatzeko joera dute, eta gazteenak parkean edo kaleetan erlazionatzen dira. Gizarte-harreman ezaren azpikategoria alderdiak ezezagunak direnean aplikatzen da.
- *Aukera*. Kategoria honetan, erasotzaileak biktimarengana gerturatzeko testuinguruak deskribatzen dira, egoera bat aprobetxatuz edo eraso posible izateko situazioak sorraraziz. Esate baterako, biktimak etxera itzultzeko garraiorik ez izatea lagunengandik banandu ondoren. Erasotzaileak egoera aprobetxa dezake biktima bere etxera gonbidatzeko.
- *Delitua burutuko den tokira lekualdatzea*. Honek bi azpikategoria ditu: adostasuna eta indarra. Lehenengo kasuan biktima borondatez joango da delitua gertatu den lekura erasotzaileekin, hala nola, taberna itxi ondoren erasotzaileen etxera joatea edaten jarraitzeko asmoz. Bigarrenean, erasotzaileek fisikoki

mugitu behar dute biktima delituaren eszenatokira. Adibidez, parke batean biktima heskai baten atzera eramatea, indarra erabiliz.

- *Erasoa*. Erasotzaileetako batek, gutxienez, ekintza sexual bat burutzen du biktimaren adostasunik gabe. Portaera hauek ahoko, baginako eta uzki bortxaketa izan daitezke. Kasu batzuetan, sujetuetako batek eraso aurrera eramaten zuen bitartean besteak bertan egon edo laguntza jaso zuten; beste batzuetan, erasotzaileek biktima bortxatu zuten segidan edo aldi berean.
- *Delitugilearen errealizazioa*. Kategoria honetan, erasotzaileen kontzientzia edo kontzientzia-falta islatzen da. Nola? Biktimarekin izandako jokabideen bidez. Bi azpikategoria daude: ukapena eta onartzea. Ukazioaren azpikategorian delitugilearen portaera bortxaketa ez onartzea izango da. Edonola ere, portaera hori estrategikoa izan daiteke. Erasotzaileek diskurtso hori bereganatuko dezakete biktimak salatzen ezker, euren buruak babesteko. Hori bai, arrasto faltsu bat besterik ez da izango. Onarpenaren azpikategorian, erasotzaileek egindakoaz jabetzen direla adierazten dute jokabide ezberdinen bidez. Horietako bat lekukoak saihestea izan daiteke. Funtsean delitugile hauek zigorgabetasuna edo inpunitatea balute bezala jarduten zuten.
- *Delituaren ondorengo kontaktua*. Hemen, delituaren ondoren biktima eta erasotzaileen arteko elkarrekintza adierazten da. Portaera hauek aldatu egiten dira, hau da, ez dira berdinak izango bortxaketa gertatu eta berehala, eta hurrengo egun edo asteetan topo egiten badute. Atal honetan hiru azpikategoria bereiz daitezke. Lehenik, normalizazioa dugu. Honetan, erasotzaileak adostasuneko harreman sexual bat gertatu bali bezala jokutzen du, eta ondorioz, biktimaren atzetik joan daiteke berarekin harreman bat ezartzeko asmoz. Adibidez, biktimari telefonoz deitzea delitua gertatu eta ondorengo egunean. Bigarrenik, biktimen azpikategoriak biktimaren aurkako larderia edo irainaren jarraipena suposatzen du. Batzuetan hau denboran zehar luza daiteke biktima eta delitugilea talde sozial berekoak direnean, esaterako. Azkenik, kontakturik ez izatearen azpikategoria laburki aipatuko dugu. ez da biktima eta erasotzaileen arteko inolako harremanik izango.

Kategoria hauen laburpenaren ondoren, autoreek ikerketarekin jarraitu eta hurrengo atala garatu zuten. Chambers, Horvath eta Kelly-k (2010) ikertutako kasuak bereizi eta biktimen adierazpenak delituan izandako azpikategorien arabera sailkatu zituzten. Lau

mota sortu ziren. Azpikategoriak azaldu eta ondoren, delitu motaren deskribapen labur bat egingo dugu (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010):

- 1) *Harreman soziala, onarpena, ukapena eta normalizazioa*. Delituak biktimaren eta gutxienez delitugileetako baten arteko harreman sozialarekin hasteko joera zuten. Biktimak borondatez laguntzen zituen delitugileei delitua burutuko zen lekura. Delituak adostasunezko sexu-harremanekin erlazionatzen diren portaerak zituen (joko sexualak). Erasotzaile nagusia bortxaketaren portaera normalizatzen ahalegindu zen. Nola? Bada, biktimarekin sozializatzen jarraituz, etxera itzultzen lagunduz eta biktimarekin harremanetan jarriz.
- 2) *Harreman soziala, onarpena, ohartarazpena eta biktimizazioa*. Delituaren ezaugarri nagusiak: biktimaren eta, gutxienez, arau-hausleetako baten arteko harreman soziala. Biktimak lehenengo kasuan gertatu bezala, borondatez joan ziren delituaren eszenatokira. Autoreek argi zuten delitu bat burutzen ari zirela. Hori, ondorengo biktimizazioak frogatuko du.
- 3) *Harreman soziala, onarpena, ohartarazpena eta kontaktu eza*. Delitu hauek bigarrenengo antzekoak izan ziren, harreman edo kontaktu ezagatik izan ezik.
- 4) *Harreman sozialik eza, indarra, ohartarazpena eta kontakturik eza*. Delitu mota hau besteekin alderatuz argi ikus daitekeen moduan desberdina da. delituaren aurretik ez zegoen gizarte-harremanik biktima eta delitugileen artean. Horrez gain, biktima delitua gertatu zen lekura joatera behartu zuten. Autoreak delituak iraun bitartean jendeak traba ez egiteaz eta honen ondoren atxilotuak ez izateaz arduratu ziren. Honekin, egiten ari zirenaz kontziente zirela frogatzen zuten. Erasotzaileek eta biktimak ez zuten inolako harremanik izan delituaren ondoren.

Taula honek azaldutako bideek duten maiztasuna adierazten du. Bakoitza batean edo bestean sailkatu zen kasuak lau azpikategoriak biltzen bazituen. Oro har, ohikoena hirugarrena izan zen, laginaren heren bat baino gehiago hartzen baitu. Laugarrenak, laginaren laurdena baino pixka bat gehiago hartzen zuen. Bat eta bik maiztasun txikia zuten, %16 eta %14,7, hurrenez hurren.

2.5 Agresore indibidual eta taldekoen ezaugarrien ezberdintasunak

Morgan Brittain eta Welch (2012) autoreek dioten bezala, sexu-erasoei buruzko azterketetan erasotzaile bakar batek egindako delituak aztertu ohi dira. Taldean jarduten duen erasotzailea bakarkako delitugileetatik kualitatiboki desberdinu daiteke (de la Torre-Laso, 2020 zitatua).

Da Silva, Woodhams eta Harkins autoreek (2013) Erresuma Batuan egindako ikerketa batean banakako sexu-erasoen eta taldean egindakoen arteko ezberdintasunak aztertzen dira (San Juan, 2019).

Ateratako ondorioak azaldu aurretik, azpimarratu beharra dago ikerketa hauen urritasuna eta eguneratze falta (adibidez, Amir, 1971; Gidycz eta Koss, 1990; Wright eta West, 1981 / da Silva, Woodhams, eta Harkins, 2013 zitatua). Azterketa hauetan erabilitako laginak askotarikoak dira. Adibidez, Gidycz eta Koss-ek (1990) egindako lanean unibertsitateko ikasleen lagina erabili zuten, Ullman-ek (2007) komunitatean bizi diren emakumezkoen lagina, Bijleveld eta Hendriks-ek (2003) erruduntzat deklaraturako delitugile sexualena, Hauffe eta Porter-ek (2009) txosten juridikoak dituen; eta eskuarki, polizia aurkeztutako bortxaketen salaketak (Amir, 1971; Woodhams, 2004; Woodhams, Gillett eta Grant, 2007; Wright eta West, 1981 / da Silva, Woodhams, eta Harkins, 2013 zitatua).

Da Silva, Woodhams eta Harkins-ek (2013) ikerketarako erabilitako laginaren datuak Antolatutako Krimen Larrien Agentziaren (*Serious Organised Crime Agency*) Delitu Larriak Aztertzeke ataletik (*SCAS, Serious Crime Analysis Section*) atera ziren. SCAS Erresuma Batuko erakunde bat da eta ezezagunen bortxaketekin, sexu-eraso larriekin eta sexu-arrazoiengatik edo hauek gabe gertatutako hilketekin lotutako delituen espedienteak jasotzen ditu herrialde osoko polizia-indarren eskutik. Bortxaketa eta sexu-erasoen delituei buruz jasotako informazioa delitu bakoitzaren biktimaren kontakizuna da. SCAS-eko langileek horiek jaso eta kodetu egiten dituzte, Indarkeriazko Delituen Lotura Aztertzeke Sistema (*ViCLAS, Violent Crime Linkage Analysis System*) izeneko datu-basean ezarritako protokoloen arabera (da Silva, Woodhams eta Harkins, 2013).

Aztertzeke, 336 saiakera-mailako bortxaketa edo burututako bortxaketen salaketen (poliziari aurkezturiko salaketak) lagin nazionala erabili zen. Emakume hauek erasoaren unean bakarrik zeuden. Eraso gehienak bortxaketak izan ziren (erasotzaile bakarreko bortxaketen %88, bi pertsonak burututako %99 eta hiru oldartzaile baino gehiagokoen %98) eta gainerakoak saiakera-mailakoak ziren. Lagin orokor hau zati berdinetan banatu zen, 112 bortxaketa edo bortxaketa saiakerek osatutako hiru taldetan. Hauek egile bat,

bi edo hiru + zituzten. Hiru pertsona baino gehiagok burututako 112 kasu zeudenez guztira, banakako eta biko kasuak ausaz hautatu ziren laginek tamaina konparagarria izan zezaten. 702 gizonetarako aurrera eraman zituzten delitu hauek, baina delitugile batzuen informazio falta da; hala nola bi erasotzaileko kasuetan 14 pertsonen deskribapena falta da eta hiru erasotzaile baino gehiagoko kasuetan, 3 erasotzaileena. Guztira, 17 gaizkileren deskribapenari buruzko informazioa falta zen (da Silva, Woodhams eta Harkins, 2013).

Ikerketa horretan, honako emaitza hauek lortu dira (San Juan, 2019; da Silva, Woodhams eta Harkins, 2013):

- Talde sexu-erasotzaileak bakarrik jarduten dutenak baino gazteagoak izaten dira.
- Zenbat eta gaizkile gehiagok parte hartu, orduan eta gehiago iraungo du erasoak. Denbora hau orduetan kalkulatu zen.
- Talde sexu-erasotzaileak maiztasun handiagoz “gutxiengo etnikoetakoak” dira.
- Taldeko erasoak maizago egiten dira leku itxietan, eta erasotzaile bakartiek, berriz, leku irekietan.
- Hiru erasotzaile baino gehiago taldeek biktimen erdia barruan edo leku itxi batean askatu zuten eta beste erdia kanpoan; delitugile bakartiek eta bikoteek, berriz, biktima gehienak kanpoan askatu zituzten. Orokorrean ohikoena biktima kanpoan askatzea dela ondoriozta dezakegu.
- “Con” ikuspegia. Delitugileek biktimarekin hitz egiten dute erasoaren aurretik eta engainua erabiltzen dute, adibidez, laguntza eskatuz, haren lagun egiten saiatuz edo beste pertsona baten plantak egiten (Dale et al., 1997; da Silva, Woodhams eta Harkins, 2013 zitatua). Talde sexu erasoetan maizago erabilitako estrategia dugu. Delitugile bakartiek iruzurra erabiltzen zuten delituen erdietan, baina autore anizkoitzek baino askoz maizago erabili zuten ezusteko ikuspegia (aldez aurretik abisatu gabe gertatzen da) (da Silva, Woodhams eta Harkins, 2013).
- Talde sexu-erasoetan, biktimak maizago dira behartuak felazio bat edo gehiago egitera. Horrez gain, delitu gogorragoak izan ohi dira eta portaera oldarkorragoak izaten dituzte. Portaera horiek, nolana ere ez daude biktima heldu edo eustera

zuzenduak. Honek zera esan lezake: taldeak biktima beldurraraziko duela uste dute eta horrengan konfiantza jartzen dute biktima geldiarazteko.

- Erasoan erabilitako neurriei dagokienez, gaizkile bakartiek eta bi erasotzaileetako taldeek askoz maizago estali zuten biktimaren ahoa hiru pertsona baino gehiagoz osaturiko taldeekin alderatzen badugu. Azkenengo bi taldeek sarrera/irteera bat blokeatu zuten sarriago biktimak ihes egin ez zezan.
- Talde sexu-eraso kasuen erdian baino gehiagotan delitugileek ez zuten arreta handirik jarri modus operandian. Delitugile bakartiek, ordea, frogarik ez uzteko eta euren identitatea ezkutatzeko neurri gehiago hartu zituzten. Autoreen arabera, talde sexu erasotzaileak gehiago arriskatzea talde desindibiduzio prozesuarekin erlazionatu daiteke. Honengatik, delituaren ondorioak zeintzuk diren ahaztu dezakete. Nolanahi ere, eta paradoxikoki, talde sexu-erasoetan kondoia maizago erabili zuten.

2.6 Taldean jarduteagatiko astungarria. Zigor Kodea

Zigor Kodeari dagokionez (Azaroaren 23ko 10/1995 LO), sexu-eraso edo bortxaketa taldean burutzen bada, 180. Artikulu kualifikatua aplikatuko zaie sujetuei, artikuluko bigarren puntua hain zuzen ere. Baita ere, hamasei urtetik beherakoen aurkako sexu-abusuak eta sexu-erasoen atalean astungarri hau aurreikusten da, 183.4.b artikuluan. Honela dio:

180. artikulua.

1. *“Aurreko jokabideei bost urtetik hamar urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie 178. Artikuluko erasoak badira, eta hamabi urtetik hamabost artekoa 179. Artikulukoak badira, inguruabar hauetako bat gertatzen denean”* (Landa eta Urrutia, 2012):
 - 2) *“Egitateak pertsona bik edo gehiagok taldean gauzatzen dituztenean”* (Landa eta Urrutia, 2012).

Hamasei urtetik beherakoen aurkako sexu-abusuak eta sexu erasoak

183. artikulua.

4. “Aurreko hiru zenbakietan jasotako jokabideak dagokien espetxealdi-zigorrarekin zigortuko dira, zigorra goiko erdian ezarriko da ondorengo inguruabarretatik edozein gertatzen denean” (Landa eta Urrutia, 2012):

b. “Egitateak bi pertsonak edo gehiagok taldean gauzatzen dituztenean” (Landa eta Urrutia, 2012).

Alderdi penalaren inguruko informazioa jasotzen duen puntuari esan bezala, ez da beharrezkoa izango parte-hartzaile guztiek sexu-izaerako gorputz kontaktua izatea. Nahikoa izango da horietako batek ekintza burutzea eta besteak biktima beldurraraztea (Muñoz Conde, 2017).

3. ALKOHOLAREN ERAGINA

3.1 Sarrera

Gaur egun, munduko herrialde askotan edari alkoholunak eguneroko bizitza sozialaren parte dira herritar gehienentzat. Hau hala da, bereziki, jendartean eragin handia duten gizarte-inguruneetan mugitzen diren pertsonentzat, estatu mailan zein nazioartean. Alkoholak sozializazioan laguntzen du edo honen parte izaten da. Testuinguru horretan, erraza da alde batera uztea edariak eragiten dituen osasun eta gizarte kalteak. Hala ere, Osasunaren Munduko Erakundeak 2018an aurkeztutako “*Global status report on alcohol and health*” txostenean erakusten denez, alkoholaren kontsumoa handia da eta oso zabaldua dago (World Health Organization, 2018).

2015eko irailaren 25ean, Nazio Batuetako Estatu Kideek helburu batzuk onartu zituzten pobrezia amaiara emateko, planeta babesteko eta guztion oparotasuna ziurtatzeko, garapen iraunkorreko programa berri baten parte gisa (World Health Organization, 2018). Nazio Batuen Garapen Iraunkorreko Helburu berriak (ingelesez: *United Nations Sustainable Development Goals*) 17 helburuk osatzen dituzte. Hauek 169 xede dituzte eta Nazio Batuetako 193 estatu kideek 2030. urterako jomuga horiek lortzen saiatzea adostu dute (NBE, 2015 / World Health Organization, 2018 zitatu).

Alkoholaren erabilera kaltegarria mundu osoko biztanleriaren osasunerako arrisku-faktore nagusietako bat da, eta eragin zuzena du Garapen Iraunkorreko Helburuek

osasunarekin zerikusia duten jomuga askotan, besteak beste, ama-haurren osasunean (*salud maternoinfantil*), gaixotasun infekziosoetan (GIBa, hepatitis birala, tuberkulosia), transmititu ezin diren gaixotasunetan (gaixotasun kardiobaskularrak, kantzerra, gibelako gaixotasunak) eta osasun mentalean (taula), lesio kontuetan (biolentzia, hilketak...) eta, azkenik, pozoiduretan (World Health Organization, 2018). Taula honetan alkoholak eragindako buruko nahasmendu, nahasmen konduktual edo neurologikoak azaltzen dira.

Espainiar biztanleriaren alkohol kontsumoaren inguruan arituko gara hurrengo lerroetan. Enrique Echeburúa-k (2018) dioen moduan, azken urteotan alkoholaren kontsumo eredian aldaketa nabarmena izan da espainiar biztanlerian. *Eredu mediterranean* batetik (otorduetan ardoa neurritz kontsumitzea, pertsona helduen arteko gizarte-elkarrekintzaren esparruan) *eredu anglosaxoi* batera igaro da (asteburuetan pertsona gazteen artean garagardoa eta likoreak neurririk gabe kontsumitzea, jaigiroan). Bigarren mota honek batzuetan helburu zehatz bat du: mozkortzea. Horrez gain, sarritan beste sustantzia batzuen kontsumoarekin nahasten da, hala nola haxixa edo kokaina. Azken edari eredu hau izango litzateke indarkeriarekin lotuago dagoena (Echeburúa, 2018).

3.1.1 Efektuak organismoan

Alkohol etilikoa (etanola) toxikoa da organismoko ehun gehienentzat. Substantzia honen kontsumo kronikoa eta gehiegizkoa alkoholaren mendekotasun sindromearen garapenarekin erlazionatua izan da, baina baita beste zenbait gaixotasunekin ere; hala nola, hanturazko eta endekapenezko gaitzak. Gehienbat nabarmenduko genituzke digestio aparatuan, sistema kardiobaskularrean eta nerbio-sisteman eragiten dituen kalteak (Estruch, 2002).

Alkohol kontsumoaren hasierako sintomak, euforia, ongizate emozionala, soziabilitatea handitzea, inhibizioak askatzea eta konfiantza areagotzea dira, besteak beste (Echeburúa, 2018).


Uste dugu interesgarria izango litzatekeela alkoholak gaitasunetan eta errendimendu psikomotorrean eragiten dituen asaldurak azaltzea. Hori argi ikus dadin taula bat egingo dugu eta bertan kantitateak sintomekin harremandu.

Alkohol-tasa odolean g/l	Zeinu eta sintoma klinikoak
< 0,3 g/l	Ez da alterazio nabarmenik edo oso arinak dira.
0,5 g/l arte Arrisku eremuaren hasiera	Pertzepzioan aldaketa batzuk ematen dira. Aldaketak erabakiak hartzean. Kitzikagarritasun emozionala eta deshinibizioa. Arriskuarekiko tolerantzia handiagoa. Koordinazio motor eta psikomotorreko arazoak.
0,5 g/l - 0,8 g/l Alarma eremua	Aldaketak erabakiak hartzean. Segurtasun-sentsazio faltsua. Oldarkortasuna. Alterazio motor eta psikomotoreak. Neke sentsazioaren murrizketa. Logura areagotzea.
0,8 g/l – 1,5 g/l	Hautemate arazo larriak. Asaldura handiak erabakiak hartzean. Pertzepzio okerragoa eta arriskuarekiko tolerantzia handiagoa. Norberaren gaitasunen gehiegiko estimazioa. Portaera oldarkorra eta auresanezina.
1,5 g/l 2,5 g/l	Pertzepzio eta arreta arazo larriak. Kontrol eta koordinazio motorraren aldaketa larriak. Portaera oldarkorra eta auresanezina. Erabakiak hartzeko zailtasun handiak.
3 g/l baino gehiago	Mozkor handia. Harridura egoera eta geroz eta kontzientzia gutxiago. Koma (4 g/l baino gehiago) eta heriotza (5 g/l baino gehiago).

4 Taula. ITURRIAK: Ministerio de Sanidad, Consumo y Bienestar Social (2007). / Dirección General de Tráfico, Ministerio del Interior (2014).

Baina, alkohola noiztik detekta daiteke odolean? Bada, Osakidetza, Sasoia S.L eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak egindako *Iceberg Programan* azaltzen den moduan, “alkohola edan eta 5 minutura hasten da odolean detektatzen, eta mailarik handiena hurrengo 30-90 minutuetan hartzen du. Hortik aurrera, pixkanaka hasten da odoletik desagertzen, erabat ezabatu arte”. Alkoholak gorputzean irauten duen denbora adierazteko alkoholemia-kurba dugu. Lan honetan azaldutako alkoholemia-kurba

“alkohol kantitate jakin bat lau orduz edaten aritu den eta ondoren lotara doan pertsona batena izango da”.



7 Grafikoa. ITURRIA: Osakidetza, Sasoia S.L, & Eusko Jaurlaritza. (s.f.). *Iceberg Programa. Zein da nire alkoholemia tasa? Alkoholemiaren kurba.* Berreskuratua: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/adicciones_alcohol_programas/eu_def/adjuntos/03.%20Alkoholemia%20tasa%20eta%20kurba.pdf

3.1.2 Alkohola eta indarkeria

Pascual, Reig, Fontoba eta García del Castillo-López (2011) diote edari alkoholdunen kontsumoa indarkeriarekin eta jokabide oldarkorrekin lotuta egon ohi dela. Hala ere, ez da adostasun garbirik izan edari alkoholdunek indarkeriazko gertaerak agertzean duten eragin zuzenari dagokionez, nahiz eta zenbait azterlanetan alkoholaren kontsumoa horrelako gertakizun askotan agertzen den. Enrique Echeburúa-ren (2018) arabera, abusu eta drogen mendekotasunak indarkeriarekin duten harreman edo erlazioa, behin eta berriz aztertua izan arren, eztabaidagarria da. Zergatik? Bada, autore batzuek erlazio argia ikusten dutelako eta beste batzuek ez. Agian, kasu batzuetan interpreta daiteke harreman hori dagoela, baina ez beti.

Gelles eta Strauss (1988) autoreek diote alkohola edatearen eta indarkeriaren arteko harreman enpirikoak ez duela onartzen alkoholak indarkeria eragiten duela. Hau da, bata ez da bestearen kausa bakarra edo zuzena. Egileek diotenez, alkoholaren propietate kimikoek giza garunean eragiten badute eta jokabide bortitza eragin, efektu hori munduko edozein tokitan eta historiako edozein unetan ikusi ahal izango litzatekeela. Zenbait azterketa antropologikoetan oinarriturik, ondorio batera iristen dira. Honela esaten zuten: kultura batzuetan, alkohola kontsumitzen duten pertsonak bortitzagoak eta

sexualki promiskuagoak izaten dira; beste batzuetan, aldiz, pasibotasunera eta uzkuertza jotzen dute. Beraz, alkoholak norbanakoan duen eragina eta bakoitzak duen portaera edo jokaera kulturala eta sozialki ikasia da (Gelles eta Straus, 1988 / Pascual, Reig, Fontoba, eta García del Castillo-López, 2011 zitatua).

Agresibitatea gizakiaren ezaugarri biologiko bat da, eta hau espeziearen biziraupenaren zerbitzura dagoen tresna dugu. Esan daiteke, beraz, pertsona oldarkorra horrela jaiotzen dela, baina bortitza edo biolentoa, denborarekin sortzen den sujetua dugula. Agresibitatea biologiak berak, senak sostengatuko luke, eta beraz, onuragarria izango litzateke defentsa-funtzioa duelako; aitzitik, indarkeriak oinarri kulturalagoa, lehiakorragoa eta mendekuzkoagoa du, gizakion alderdirik gaiztoena eta ankerrena eskainiz (Pascual, Reig, Fontoba eta García del Castillo-López, 2011).

Indarkeria biktima ahulenei edo erasotzaileak jarrera negatiboak azaltzen dituen biktimei zuzendua egon ohi da. Hau da, alkohola bereziki arriskutsua da erasotzeko aurretiko gogo-aldartearen edo nahaste komorbidoa (psikopatia edo nahaste psikopatikoa) duten subjektuetan. Era berean, aukerek eta jarrerek (etsaitasunekoak, adibidez) eta subjektuaren nortasunaren eraginak (oldarkotasuna, haserrea, kitzikapena bilatzea) ere aldatu egiten dute alkoholak eragiten duen erantzuna (McMurrin, 2013 / Echeburúa, 2018 zitatua). Bizitzan zehar arau sozialak aurki ditzakegu eta alkoholak arau hauei men ez egitea eragin dezake (Pascual, Reig, Fontoba, y García del Castillo-López, 2011).

Baina, nola erlazionatzen da alkohola eta indarkeriazko jokaera? Teoria ezberdinak aurki ditzakegu, eta horietako bat **desinhibizioaren teoria** dugu. Alkohola kontsumitzean bulkadak geldiarazteko mekanismoak lausotuta geratzen dira. Baina, egindako esperimentu batzuek ondorioztatu dute egoera-faktore (*factores situacionales*) batzuk egon behar direla indarkeria jokabide hauek aurrera eramateko (presio soziala edo mendeku nahia, adibidez). Hau da, alkoholaren presentzia ez da indarkeriaren arrazoi edo kausa bakarria izango. Alkoholak garun sistemen fisiologiari eragin eta desinhibizioa ematen da, behin eta berriz aipaturiko jokabide oldarkorrak azalduz. Sustantzia honek egoera ezberdinen aurrean eman daitezken erantzun arrazoituak manipulatzeko ditu (Pascual, Reig, Fontoba, y García del Castillo-López, 2011).

Beste teoria bat, **alkoholaren kontsumo akutu edo kronikoak eragindako hondatze kognitibo eta jokabidearen asaldurena** da. Etanol kantitate handiak nerbio-sistema zentralean garunaren funtzionamenduan kalteak edo alterazioak eragiten ditu (Pascual, Reig, Fontoba, y García del Castillo-López, 2011).

Anderson eta Baumberg (2006) autoreek egindako lanaren atal batean biolentzia alkoholarekin harremandu zuten. Egileek azaldu moduan, alkoholaren kontsumoa delinkuentziarekin lotuta dago Europako herrialde guztietan. Bereziki, indarkeriazko delituekin harremantzen da (Anderson eta Baumberg, 2006). Urteen poderioz egiaztu ahal izan da korrelazio handia dagoela indarkeriaren eta alkohol kontsumoaren artean, baina zaila da zehaztea alkohol etilikoa dela erreakzio bortiz horietako batzuen eragilea (Pascual, Reig, Fontoba, y García del Castillo-López, 2011).

Anderson eta Baumberg-ek (2006) Europako errealitatea aztertu eta honako emaitzak aurkeztu zituzten:

Table 6.1 Selected crimes and their relation to alcohol

	Country	% linked to alcohol	Type of link ²
All crimes	Belgium	20	Intoxication
	England & Wales	25	Under-the-influence
	Finland	47	Intoxication, prisoners
	Germany	7	Under-the-influence
	Hungary	35	Intoxication
	Latvia	34	Under-the-influence
	Lithuania	21	Under-the-influence
Violent crime	Belgium	40	Intoxication
	England & Wales	48	Under-the-influence
	Estonia	60-70	Alcohol-related
	Finland	66	Intoxication, prisoners (assault)
	France	25	1973 data; Alcohol-related (assault)
	Germany	24	Under-the-influence
	Norway	80	Intoxication
	Spain	42	Under-the-influence, victims in A&E
	Sweden	86	Intoxication
Robbery	England & Wales	19	Under-the-influence
	Finland	53	Intoxication, prisoners
	Norway	40	Intoxication
	Poland	40	Intoxication
Sex offences / Rape	England & Wales	58	Alcohol-related
	Finland	49	Intoxication, prisoners
	Germany	29	Under-the-influence
	Norway	60	Intoxication

As discussed in the text, the methodology underlying these data is not consistent – any comparisons of these values should, therefore, be done highly cautiously.

¹ Sources are: Belgium, Estonia, Hungary, Norway, Poland and Sweden (Rehn, Room, and Edwards 2001); Finland (Murdoch, Pihl, and Ross 1990; Salomaa 1995); France (Murdoch, Pihl, and Ross 1990); Germany (Bühninger et al. 2002); Latvia and Lithuania (Alcohol Policy Network 2005); Spain (MacDonald et al. 2005); UK (Leontaridi 2003)

² As described by the source of data – *Intoxication*: either victim or offender's view on whether offender was intoxicated; *BAC*: Blood Alcohol Concentration from police test; *Under-the-influence*: described as such in the source; *Attribution*: either victim or offender attributes harm to drinking; *Alcohol-related*: either an unspecified link, a self-report of any alcohol use in the 4-6 hrs immediately prior to the event, or a positive but unspecified BAC level.

5 Taula. ITURRIA: Anderson, P., & Baumberg, B. (2006). Alcohol in Europe. London: Institute of Alcohol Studies.

Taulan ikus dezakegun bezala, Norvegiar sexu-eraso eta bortxaketen %60 alkoholarekin harreman handirik daude. Atzetik, Ingalaterra eta Gales-ek jarraitzen dio %58arekin, ondoren Finlandiak %49arekin eta azkenik, Alemania %29arekin. Tamalez, taula honetan bortxaketa eta sexu-erasoen atalean ez dira Espainiako datuak azaltzen.

3.1.2.1 Alkohola eta drogak defentsa mekanismo gisa

Alkoholismoan mendekotasun fisiko zein psikologikoa dago. Kontuan izan behar da alderdi fisikoa sujetuak edateko duen motibazioan (gorputzak alkohola behar du). Egia da, halaber, egoera askotan are gehiago edaten dela premia psikologiko baten ondorioz. Eta hau, zergatik gertatzen da? Bada, edariaren ondorioen inguruko itxaropen sozialei eta jarrerari dela eta (Rivera et al., 2006).

Jendeak alkohola eta/edo drogak helburu desberdinekin erabiltzen ditu: tentsioa murrizteko, gatazka egoeretan sufrimendua arintzeko, botere eta kontrol sentipena areagotzeko, inhibizio sozialei pisua kentzeko, etab. Baina alkohol eta/edo droga kontsumoa aitzakia gisa erabiltzen da maiz. Hala ere, beste defentsa-mekanismo batzuek bezala, epe luzera alkohol eta/edo droga kontsumo handia desegokitze tresna bilakatu daiteke kontsumitzen dituen pertsonen bizitzan arazo larriak sortuz (Rivera et al., 2006).

Askotan portaerak guk geuk eragiten ditugu, alkohola eta/edo drogak portaera horien sortzaile direnaren aitzakia erabiliz. Hortaz, edari honi lotutako itxaropenak benetan eragiten dituenak baino handiagoak dira. Kasu honen adibide bat jarriko dugu: sexu-portaeran, alkohola desinhibizioaren edo zenbait erreakzio sexualen eragile dela pentsatzeko joera orokorra dago, baina benetan ez da hala gertatzen. Sexu-erasotzaile asko beren erasoaren erantzukizunetik aldentzen dira, eta alkoholari egozten diote portaera desinhibitua (Rivera et al., 2006).

Alkoholaren funtzioetako bat tentsioa murriztea izango litzateke. Hau, ez du alkoholak zuzenean eragiten; izan ere, pertsona askok alkoholak eragindako intoxikazioaren ondorengo portaera erantzukizun txikiagokoak eta justifikagarriak bezala ikusten dituzte. Beraz, alkohola defentsa-mekanismo bat da pertsona askorentzat, alkoholaren efektuari egozten baitizkiote aurre eramandako ekintzak, eta, hartara, ekintzarekiko erantzukizunetik urruntzen dira (Rivera et al., 2006). Hona hemen alkohol-kontsumoan oinarritutako defentsa-mekanismoen adibide batzuk (Rivera et al., 2006):

- *“Mozkortu gabe egon izan banintz, hori ez zitekeen inoiz gertatuko”.*

- *“Nire arazoa edana da, ez dut inongo sexu-arazorik; edateari utzi nionean gainerako guztia desagertu zen”.*
- *“Edariak du gertatutakoaren errua. Nik beti lortu izan ditut emakumezkoak indarkeriarik gabe, edaten dudanean nire buruak ez du ondo funtzionatzen”.*

3.2 Zigor kodearen salbuesle eta aringarriak, erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrak

1995eko Zigor Kodea. Erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrak egitateen egileen edo delituaren inguruabarrei buruzko egitateak dira, aplikatu beharreko zigorra modu jakin batean aldatzea eragiten dutenak (Iberley, 2020).

Inguruabar hauen eginbeharra garrantzitsua da, gertaera kriminal baten errudunari dagokion zigorra zehazten laguntzen baitute. Oso garrantzitsua da zigorren proportzionaltasunaren gaia; izan ere, zuzenbide penalean gai nagusietako bat da gertaera kriminalaren arduradunek gertatutakoagatik erantzutea eta zigor kodearen eskakizunen arabera egitea (Iberley, 2020).

Hasteko, **Zigor Kodeko 20. Artikuluko** salbuesle osoak azalduko ditugu. Lehenengo eta bigarren atalak izango dira gure kasuan erabilgarri (Landa eta Urrutia, 2012):

“Erantzukizun kriminaletik salbuetsita daude hurrengo hauek:

1.º Arau-hauste penala egitean, egitatea zilegizkoa ez dela ulertu ezin duena edo ulermen horren arabera jardun ezin duena, edozein anomalia edo aldakuntza psikikok eraginda.

Buru-nahaste iragankorrak ez du zigorretik salbuetsiko subjektuak bera hori eragin duenean delitua egiteko asmoz, edota subjektuak delitua egitea aurreikusi duenean edo aurreikusi behar izango zuenean.

2.º Arau-hauste penala egitean guztiz toxikatuta dagoena, edari alkoholdun, droga toxiko, sorgogorri, gai psikotropiko edo horien antzeko ondoreak sortzen dituzten bestelako gaiak kontsumitzeagatik, baldin eta subjektuak egoera hori eragin ez badu arau-hauste penala egiteko asmoz, edota subjektuak delitua egitea aurreikusi ez badu, edo aurreikusi behar izan ez balu; edota abstinentsia-sindromepean dagoena, gai horiekiko mendekotasunak eraginda, baldin eta sindrome horrek egitatea zilegia ez dela ulertzea edo ulermen horren arabera

Honekin jarraituz, 21.1 artikuluan salbuesle ez osoa aurki dezakegu, aurreko biek in harremana duena. Hauek aintzat hartzeko, kontuan hartu behar da erruduntasunaren printzipioa, beharrezkoa baita autorearen dolua tartean izatea aplikatu ahal izateko (Iberley, 2020).

21.1 artikulua (Landa eta Urrutia, 2012):

“Inguruabar aringarriak dira hurrengo hauek:

1.º Aurreko kapituluaz azaldutako arrazoiak, bakoitzaren kasuan erantzukizunetik salbuesteko behar diren betekizun guztiak gertatzen ez direnean.”

Baita, **21.2 artikuluko** inguruabar aringarria (Landa eta Urrutia, 2012):

“2.º Errudunak jardutea, aurreko artikuluen 2. Zenbakian aipatutako gaiekiko duen mendekotasun larriak eraginda.”

21.7 artikulua barne. Hau, aringarri analogikoa (Landa eta Urrutia, 2012):

“7.º Aurrekoen antzeko esanahia duten inguruabarretatik beste edozein. “

Esbec eta Echeburúa (2016) autoreek azaldu bezala, Espainiako Auzitegi Goreneko 2006ko uztailaren 26ko, 2009ko azaroaren 4ko eta 2010eko martxoaren 8ko sententziek eta baita Madrideko Probintzia Auzitegiko 2015eko apirilaren 28ko sententziak baldintza hauek ezarri zituzten epaietarako (Esbec eta Echeburúa, 2016):

- *Errekerimendu biopatologikoak.* Denboran zehar luzatzen den mendekotasuna, intoxikazio edo abstinentzia larria dakarrena. Mendekotasun larri batek bakarrik eragin dezake erantzukizun penala aldatzen duen egoera.
- *Errekerimendu psikologikoa.* Delitugilearen gaitasun mentalak kaltetuak izatea. Drogazalea izatea ez da nahikoa izango droga horrek pertsonaren adimena eta borondatea kaltetu ez baditu.
- *Errekerimendu kronologikoa, denboran oinarritua.* Drogaren kontsumoa eta ondorio psikologikoak delituzko portaera aurrera eramaten den unean gertatzea, edo delitugileak abstinentzia sindromearen eraginpean jardutea. Delitugileak droga mendekotasun larria duenean egindako lege-hasuteak ere jasotzen ditu

azterketa honek. (Esbec eta Echeburúa, 2016). Hau, baldin eta egoera hori arau-haustea egiteko asmoarekin bilatu ez bada (Esbec eta Echeburúa, 2014).

- *Erregelamenduzko baldintza*. Droga menpekotasunak delitugilearen buruko menkanismoetan duen eragina edo horren intentsitatea. Horren ondorioz, salbuespen oso edo osatugabetzat hartzen da, edo, besterik gabe, inguruabar aringarritzat; hau guztia erantzukizun penalarari dagokionez.

Alkohol kontsumoari dagokionez, 2014ko azaroaren 6ko Espainiako Auzitegi Goreneko sententziak aukera ezberdinak aurkeztu zituen (Esbec eta Echeburúa, 2014; Esbec eta Echeburúa, 2016):

- *Salbuesle osoa (20.2 artikulua)*. Intoxikazioa erabatekoa eta ustekabekoa denean aplikatzen da, arau-hauslearen ezagutzan eta borondatean eragiten duen aldaketa sakona dela eta, egintza legez kontrakoa dela ulertzea edo ulermen horren arabera jardutea eragotziz. Nahita mozkortu ezker delitua burutzeko, ez da inondik inora aplikatuko.
- *Salbuesle ez osoa (21.1 artikulua)*. Intoxikazioa ustekabekoa baina osatugabe denean aplikatzen da, baldin eta arau-hauslearen ezagutza eta borondatea larriki kaltetzen badira ekintza burutzean. Inguruabar horiek ez dute egintzaren ilegaltasuna edo ulermen horren arabera jardutea galarazten, baina nabarmen zailtzen dute. Salbuesle hau ez da aplikatuko intoxikazio edo mozkortzea erruzkoa bada (*embriaguez culposa*).
- *Aringarria (21.2 artikulua)*. Aringarria aplikagarri izango da intoxikazioa ohikoa ez izan arren eta delitua burutzeko bilatu ez bada. Intoxikazioak delitugilearen ezagutzan eta borondatean eragingo du, baina aurretik aipatutako baldintza guztiak bete gabe. Kontuan izan beharko da ea inguruabar aringarri gisa sailka daitekeen baldin eta ondorio oso larriak izan baditu (Espainiako Auzitegi Goreneko sententziak: 2005eko otsailaren 4koa eta 2006ko martxoaren 2koa).
- *Aringarri analogikoa (21.7 artikulua)*. Borondatearen eta ulertzeko gaitasunaren murrizketa arina izan denean aplikatzen da, hori eragiten duten inguruabarrak edozein direla ere. Hala, borondatezko intoxikazioak edo intoxikazio arduragabeak (inoiz ez delitua burutzeko asmotan), itsukeria handia eragiten du delitugileak egindako ekintzen garrantzia ulertzeko duen gaitasunean edo inhibizioan zailtasunak planteatzen ditu. Honek esan nahi du, sozializazio arauen arabera bere portaera zuzendu edo bideratzeko duen gaitasunetan eragiten

duela (Espainiako Auzitegi Goreneko sententziak: 2005eko abenduaren 5ekoa, 2008ko azaroaren 19koa eta 2011ko uztailaren 6koa).

Zaila da, delituzko ekintzaren une zehatzean prozesatuaren gaitasun kognitibo eta/edo borondatezkoak zeintzuk ziren zehaztea lekukotzaren informaziorik ez badago. Horrez gain, drogen efektuak desberdinak dira pertsona bakoitzean, faktore psikologikoen, biologikoen, testuinguruaren eta egoeraren arabera (Esbec eta Echeburúa, 2014).

Espainiako Auzitegi Gorenak (STS 1424/2005, abenduaren 6), hau dio artikuluko hauen aplikazioaren inguruan:

*“Ahora bien, **no basta el consumo de bebidas alcohólicas para que se entienda siempre disminuida la imputabilidad y la responsabilidad penal del sujeto**, pues en cualquier caso, en el actual sistema del Código Penal se trata de circunstancias que afectan a las capacidades del sujeto, no es suficiente con determinar la causa que las origina, sino que es preciso además especificar los efectos producidos en el caso concreto. En particular, cuando se trata de la ingesta de bebidas alcohólicas, **es necesario determinar de alguna forma los líquidos ingeridos o al menos la existencia del consumo junto con datos que permitan su valoración**, y además **precisar suficientemente los efectos que ha causado en la capacidad del sujeto para entender la ilicitud del hecho o para actuar conforme a esa comprensión, (...)”**.*

Kasu askotan ez da aplikatzen ezin daitekeelako frogatu kontsumitutako alkohol horrek sujetuaren ahalmen kognitibo eta borondatezkoak kaltetzen edo murrizten dituela. Adibidez (46/2004 Epaia, martxoaren 11):

“No hay base probatoria suficiente para poder estimar que la ingesta de alcohol por el acusado, (...) le hubiere producido no ya la anulación o una merma considerable e importante de sus facultades cognitivas y volitivas, efecto necesario para poder apreciar la eximente, siquiera como incompleta, sino tampoco para apreciar que esa ingesta, por sí sola, le hubiese ocasionado de una forma relevante, aun cuando fuera en grado leve, la disminución de tales facultades”.

4. ALKOHOLA ETA SEXU ERASOEN ARTEKO HARREMANA

Enrique Echeburúa-ren arabera (2018), sexu indarkerian sustantzien eragin psikofarmakologikoak erasotzaileen distortsio kognitiboekin elkar eragiten dute; adibidez: “emakume batek alkohola edo drogak hartu dituenean, sexu proposamenekiko harkorragoa da”; “baldintza horietan atsegina bada, sexu-harremanak izateko desiraren isla izango da”; “neurririk gabe edaten badu, neska erraza izango da”, etab. Argitutako hau larriagotu egiten da harreman sexual batean emakumeak ez duenean aurrera jarraitu nahi, eta gizonezkoak bere horretan jarraitzeko legitimatua dagoela sentitzen duenean bere ustetan emakumeak sexualki probokatu diolako.

Alkoholaren eta drogen gehiegizko kontsumoak sortzen duen indarkeriazko portaera, maiz, indarkeriaren aldeko jarrerak eta subjektuaren aurretiko balio-sistemak baldintzatzen dute. Hau da, indarkeria egon dadin, alkoholaren eragin desinhibitzailea biktimekiko jarrera negatiboekin lotu behar da (Echeburúa eta Corral, 1998 / Echeburúa, 2018 zitatua). Koss (1988) autoreak dioten moduan, gizonezkoek emakumeen ezezkoa anbiguo edo itxurakoa bezala interpretatzen dute eta horrek pentsarazten die haien eraso ez dela bortxaketa bat izan, sedukzio ekintza bat baizik (Romero-Sánchez eta Megías, 2009 zitatua).

Beraz, ba al dago harremanik alkohola eta sexu-erasoen artean? Zein da alkoholaren rola?

Abbey, Ross eta McDuffie (1994); eta Crowell eta Burgess (1996) autoreek esan bezala, alkohola da bortxaketetan arrisku gehien sortzen duen faktoreetako bat, eta, zalantzarik gabe, sexu-gertaera askotan bere presentzia nabaria da: sexu-erasoen erdiak, gutxi gora behera, alkohola edan zuten gizonek aurrera eramaten dituzte (Romero-Sánchez eta Megías, 2009 zitatua). Aurretik aipatu dugun Koss (1988) autoreak jakinarazi zuen AEBtako unibertsitateko ikasleen lagin nazional bateko erasotzaileen %74 eta biktimeen %55 alkoholaren eraginpean zeudela (Abbey, 2002; Romero-Sánchez eta Megías, 2009 zitatua). Abbey-ek (2002) adierazi bezala, ikerketa gehienek ez dituzte behar bezain zehatzak diren galderak egiten kontsumitutako alkohol kantitatea faktore garrantzitsu bat den edo ez zehazteko. Hala ere, Muehlenhard eta Linton-ek (1987) egindako konparaketa ikerketaren arabera (horretan eraso-sexualak ematen ziren hitzorduak eta eraso horiek gertatzen ez zirenak konparatzen zituzten), alkoholaren edo drogen erabilera hutsak ez zuen zerikusirik sexu-erasoarekin, baina alkoholaren gehiegizko kontsumoa ohikoagoa zen eraso hauek gertatzen ziren hitzorduetan. Beraz,

ondorioztatu zuten biktima zein erasotzaileek alkohol edo droga gehiegi kontsumitzea arrisku bat dela sexu-erasoa gertatzeari begira (Muehlenhard eta Linton, 1987; Abbey, 2002).

Abbey-k (2002) alkohol-kontsumoaren eta sexu-erasoaren arteko erlazioari buruzko azalpen batzuk eman zituen eta horietako batzuk aipatuko ditugu jarraian. Esan bezala, alkoholaren kontsumoak eta sexu-erasoak sarritan bat egiteak ez du frogatzen alkoholak sexu-erasoa eragiten duenik. Hortaz, harremana kontrakoa izan daiteke; gizonezkoek alkohola kontzienteki edo oharkabean edan dezakete sexu-eraso bat burutu aurretik portaeraren aitzakia bat izateko.

Litekeena da azalduko ditugun kausetako batzuk alkoholarekin lotutako sexu-eraso batzuei azalpena ematea; baina, sexu-erasoa bezalako portaera batek kausa erabakigarri ugari ditu, bai erasotzaile bakarreko erasoetan baita talde sexu-erasoetan ere (Abbey, 2002). Autore honek (1991) zazpi azalpen desberdin proposatu zituen alkoholaren eta sexu-erasoen artean dagoen erlaziorako. 2002an argitaratutako testuan eredu horren bertsio luzatua aurkeztu zuen eta hurrengo eskema honetan laburturik azaltzen da.




FIGURE 1. Conceptual model of alcohol-related acquaintance sexual assault

3 *Irudia*. ITURRIA: Abbey, A. (2002). Alcohol-related sexual assault: a common problem among college students. *Journal of studies on alcohol. Supplement*, (14), 118–128. <https://doi.org/10.15288/jsas.2002.s14.118>

Kontuan izan behar dugu eredu honek gizon eta emakumeen artean gertatzen den eraso sexual mota batean jartzen duela arreta. Eta, zein da? Bada, gizon-emakume horiek elkar ezagutzen dute eta erasoaren aurretik interakzio soziala izan dute (Abbey, 2002).

Mota honetan barneratzen dira AEBtako autoreak orokorrean, unibertsitate testuinguruaren inguruko lanak dira gehienak.

Irudian ikus daitekeen bezala, aurretik izan ditzaketen sinesmenek eta egoera-faktoreen konbinazioak ezagunen arteko sexu-erasoak ematea bultzatzen dute. Alkoholak eragin independente eta sinergikoak ditu. Beraz, artikulu honek alkoholaren kontsumoarekin elkar eragiten duten jarrera eta egoera faktoreetan jartzen du arreta. Faktore hauek sexu-erasoa gertatzeko probabilitatea handitzen dute (Abbey, 2002).

Eskeman azaltzen diren puntuen azalpenak emateari ekingo diogu. Batzuetan ez gara gehiegi luzatuko aurretik azaldutako kontuak errepikatzen dira eta (Abbey, 2002):

- *Genero rolen sinesmen tradizionalak (sexualitatea)*. Sexu portaerari buruzko arauak gizonezkoak indartsu eta menderatzaile direla itxuratzen dute. Horrek, emakumezkoek sexu-portaera baten aurrean izan dezaketen ukazio jarrera beste era batean interpretatzera eramaten dute erasotzailea; ezezko erantzuna konbentzitzeko eskaera bat izango balitz bezala ulertzen dute (Clark, Shaver eta Abrahams, 1999; Weerner eta LaRussa, 1985 / Abbey, 2002 zitatua). Agerian geratu da maskulinitasunari buruzko distortsio kognitiboek eta emakumeei eta sexualitateari buruzko mitoak onartzeak bultzatzen dituzten sexu-erasoen aldeko portaerak (de la Torre-Laso, 2020).
- *Alkoholaren ondorioei buruz gizonek dituzten itxaropenak*. Alkohola edan ondoren, boteretsuago, sexualago eta oldarkorrago sentitzen dira gizonezkoak (George eta Norris, 1991; Presley et al., 1997 / Abbey, 2002 zitatua / Brown, Goldman, Inn, eta Anderson, 1980). Horri dagokionez, oro har, gutxien esperimendatutako edarizaleek itxaropen globalak dituzte, eta eskarmentu handieneko edarizaleek, berriz, funtsezko faktore gutxi batzuetara mugatzen dituzte euren itxaropenak, bereziki, sexu hobekuntza eta asaldura oldarkorreko itxaropenetara (Brown et al., 1980). Beraz, alkohola edan ondoren gizon bat boteretsua eta sexuala sentitzen bada, errazagoa da bere bikotekidearen lagunarteko portaera interes sexuareko seinale gisa interpretatzea, eta litekeena da sexu-harremanak izateko indarra erabiliz eroso sentitzea (Abbey, 2002). George eta Marlatt (1986) autoreek argudiatu zuten, sujetuak alkohola kontsumitu duenaren usteak justifikatzen du sozialki desegokia den sexu-portaera izatea. Hau da, "portaera hori izan nuen alkohola edan nuelako, enekien zer egiten ari nintzen"; modu honetan ez du bere burua desbideratu moduan etiketatatu behar (Abbey, 2002 zitatua).

- *Edaten duten emakumeei buruzko estereotipoak.* Gizon askok sexualki promiskuo gisa ikusten dituzte tabernetan edaten duten emakumeak, eta, beraz, sexu-erasorako jomuga egokitzen hartzen dituzte (Kanin 1985; Martin eta Hummer, 1989 / Abbey, 2002 zitatuak).
- *Alkohola sexu-seinale.* Autore batzuek unibertsitateko ikasleei eskatu diete azter ditzatela bikoteen arteko behartutako sexua adierazten duten binetak. Indarkeria argi eta garbi erabiltzen denean ere, alkohola kontsumitu izanagatik, ikasle askok onartzen dute emakumeak sexua nahi zuela. Horrez gain, aurretik sexu-eraso bat burutu zuten sujetuek biktima alkohola kontsumitzen egon denaren ustea bazuten erresistentzia maila handiago bat galdatzen zuten, baita euren aldetik indar handiagoa egiteko beharra ekintza hori aurrera eramateari utzi behar ziola erabakitzeko (Abbey, 2002).
- *Gizonek emakumeen asmo sexualei buruz dituzten pertzepzio okerrak.* Gizonek, askotan, interes sexualeko seinale gisa ikusten dute emakumeen lagunarteko portaera, baita hala ez denean ere. Sexu-interesa transmititzeko erabiltzen diren gakoak askotan anbiguoak izaten dira, eta, beraz, erraza izaten da atsegina izatea eta koketeoarekin nahastea. Erlazio bat hasteko unean gizonezkoek lehen urratsa eman behar dutela uste izaten dute, genero rolen itxaropenak direla eta. Arbuioa lotsagarria denez, hasierako mugimenduak zoliak izaten dira (Abbey, 1987 / Abbey, 2002 zitatuak). Hala ere, seinale hauek zehaztugabeak direnez, komunikazio txarra egon daiteke. Gizonen alkohol kontsumoak handitu egiten du pertzepzio okerrak gertatzeko probabilitatea, eta hau areagotu egingo da sexu harremanak izatera behartu arte (ikus eskeman azaltzen den bigarren laukia) (Abbey, 2002).
- *Alkoholak gizonen jarrera oldarkorren duen eragina.* Gizonezko bat bere hitzorduagatik engainatua sentitzen bada, pertsona hori sexu harremanak izatera behartzea justifikatua dagoela pentsa dezake edana ez dagoenean (McAuslan et al., 1998 / Abbey, 2002 zitatuak). Hala ere, ikerketek sistematikoki adierazten dute alkoholak areagotu egiten duela pertsonen modu oldarkorren jarduteko aukera bereziki mehatxatuta edo kaltetuta sentitzen direnean (ikus irudiko hirugarren koadroa). Gainera, jarrera oldarkor hori izaten hasten direnean zaila da alkoholarekin intoxikaturiko gizonezkoak gelditzea, seinaleak oso nabarmenak ez badira behizat (Abbey, 2002). Sexu-erasoen kasura eramanez, intoxikatutako gizonezko bat bere kitzikapen sexualean eta bere ustezko eskubideetan zentratuko da, biktimak senti dezakeen mina eta sufrimendua alde

batera utziz. Alkoholak eragindako desinhibizio sentrazioak, antsietatearen murrizpenak eta autoebaluazioak sexu-harremanak izateko indar fisikoa erabiltzea errazten die erasotzaileei (Ito et al., 1996 /Abbey, 2002 zitaturia).

- *Alkoholak emakumeek arriskua ebaluatzeko eta horren aurrean erantzuteko duten gaitasunetan dituen eraginak.*
- *Alkoholak emakumeek eraginkortasunez kontra egiteko duten gaitasunetan dituen eraginak.*
- *Alkoholak erantzukizunaren pertzepzioan dituen ondorioak.* Alkoholaren kontsumoa gizonen jokabide sozialki desegokiak justifikatzeko erabiltzen da batzuetan (Berglas, 1987 / Abbey, 2002 zitaturia). Irudiko lehenengo laukian azaldu bezala, alkoholak portaera oldarkorra justifikatzen duenaren sentrazioaren eta alkoholaren efektuei buruz lehendik dauden usteen arteko harremana argia da. Gizon batek beharturiko sexu harremanak justifikatzeko alkoholaren intoxikazioa erabiltzen du, seguruenik alkoholak horrelako portaerak eragiten dituela uste duelako. Hori etorkizunean aitzakia gisa erabil dezake (Abbey, 2002). Aldiz, emakumeek alkohola kontsumitu badute, sexu-erasoaren arduradun sentitzen dira (Norris, 1994 / Abbey, 2002 zitaturia). Horrez gain, emakumeak sarritan kritikatuak izan dira egoeraren kontrola galtzeagatik, argi ez komunikatzeagatik, behar bezala aurre ez egiteagatik edo erantzuteagatik eta zaintzaile paperean huts egiteagatik (Abbey, 2002). Hala ere, gizonezko batzuek biktima intoxikatua egotea aprobeztatzen zuten eraso aurrera eramateko eta horrek sujetuen erantzukizunean eragiten zuen. Gizonezko askok ez dute inolako ahaldurarik sentitzen azaldutako estrategia hori sexua lortzeko erabiltzerakoan (Kanin, 1985; Mosher eta Anderson, 1986 / Abbey, 2002 zitaturia).
- *Alkohol gehiegi kontsumitzea eta sexu-erasoak sustatzen dituzten taldeak (entornos de pares que fomentan el consumo excesivo de alcohol y la agresión sexual).* Edale batzueentzat, alkohola normalean desegokitzen jotzen diren portaerak izateko justifikazioa da. Aitzakiak emateko funtzio hori eraginkorra izateko, taldekideek sinesmen berberak izan behar dituzte (Norris et al., 1996 / Abbey, 2002 zitaturia; Martin eta Hummer, 1989).

Martin eta Hummer (1989) autoreek fraternitateen inguruan egindako lanean esan zuten bezala, anaitasun askok gizarte ingurune bat sortzen dute eta, bertan,

sexu koakzioa normalizatu egiten da, emakumeak gizonen sexu-beharrak asetzeko objektutzat hartzen direlako (Martin eta Hummer, 1989; Abbey, 2002).

Ikerketa laburbilduz, alkoholak areagotu egiten du gizarte-elkarreraginetan ezagunen artean sexu-erasoak gertatzeko probabilitatea. Hau gertatzeko zenbait bide lotzen dira. Horietako batzuk: alkoholaren inguruko sinesmenak, goi-mailako prozesu kognitiboen defizitak, alkoholak eragiten dituen mugimendu arazoak eta talde arauak zeinak sujetuak gehiegi edatera eta indarkeriazko sexua mantentzera bultzatzen dutenak. Harreman sinergikoa dago gizonen nortasun-ezaugarrien (enpatia txikia, oldarkortasun handia), jarreraren (beharturiko sexua batzuetan onargarria dela sinestea, sexuari dagokionez emakumeak lotsatiak direla sinestea eta behartutako sexuaz gozatzea) eta alkoholaren ondorioen artean. Alkoholaren eraginez, are errazagoa da gizonentzat sexua behartzean eroso sentitzea; izan ere, alkoholak sortzen duen "itsutasunak" sexu desiran soilik arreta jartzea ahalbidetzen die, emakumearen gaitzespen eta minari jaramonik egin gabe (Abbey, 2002).

1. SARRERA

Emakume eta gizonezkoen artean dagoen berdintasunik ezaren isla bat gehiago da biolentzia sexuala. Baina, honen errota dagoen biolentziatik... zergatik gai hau? Talde sexu-erasoak zerbait berria ez diren arren, azken urteotan itxurazko gorakada eman da kasuetan. Itxurazkoa esaten dut, nahiz eta lanean jasotako estatistikek horrela adierazi hala dela baieztatzea arriskutsua izan daitekeelako faktore ezberdinak direla eta (zifra beltza, komunikabideen eragina...). Eremu honetan lan handia egiten ari garen arren, oraindik ere asko dago egiteko. Honez gain, taldeak sujetu indibidualarengan izan ditzakeen eraginak ezagutu nahi izan ditugu, baita talde hauen ezaugarri ezberdinak ere.

Alkoholaren kontsumoari dagokionez, ez dugu honekin harremandu alkohola erasoen kausa dela uste dugulako. Baina, egia da talde-eraso hauek "festa giroan" gertatzen direnaren pertzepzioa nuela lana egin baino lehen eta pentsaera hau arrazoitua dagoen edo ez jakiteko beharra nuen. Hau eta beste zenbait kontu argitzeko, profesional ezberdinak elkarrizketatu ditugu euren iritzia ezagutzeko; baita ere, galdetegi bat egin dugu gizarteak honen inguruan duen ideia gureganatzeko. Hortaz, sexu-erasoak alkoholaren kontsumoarekin justifikatzea ohikoa den edo ez ezagutu nahi izan dugu, sustantzia honen influentzia nolakoa den organismoan eta baita gizartean ere. Tratamenduari dagokionez, erasotzaile hauek nolako tratamendua jasotzen duten eta ea kontsumoen inguruko lanketa bateratua egiten den.

Talde sexu-erasoen kontua ikuspuntu hau planteatuz aztertzea interesgarria izango litzatekeela iruditu zitzaigun, alkoholaren kontsumoa ea eraso hauen atzean dagoen azalpenaren parte izan litekeen ezagutzea.

1.1 Helburu orokorrak

Ikerketa honen helburu orokorra talde-sexu erasoak hobeto ezagutzea da. Fenomeno hau betidanik egon den harren, azken urteotan izandako oihartzuna dela-eta, kontzeptu berri honetan murgildu eta eskura dagoen informazioaren bilketa bat egin dugu. Horrekin bat, gaiaren inguruko zenbat bibliografia dagoen ikusteko aukera izan dugu (Espainian eskasa da informazio kopurua). Lanketa sakon hori egin ondoren, alkoholarekin erlazionatu dugu fenomenoak.

Hasierako helburu horiez gain lan honek beste zenbait jomuga ditu:

- Talde sexu-erasoen kopurua ezagutzea, kontuan izanik estatistika iturri ofizialek ez dutela informazio hau bere horretan jasotzen.
- Talde sexu-eraso eta sexu-eraso indibidualen arteko ezaugarrien desberdintasunak: erasotzaileen profila, eraso beraren desberdintasunak, tratamenduan eman daitezkeen desberdintasunak...
- Alkohola justifikazio sozialerako erraminta bezala erabiltzen den ezagutzea. Hau da, alkoholaren kontsumoak laguntzen al du aurrera eramandako delitua justifikatzen?
- Aplikaturiko tratamendu programak ezagutzea (espetxean zein adingabeen zentroetan).
- Zigor Kodeak jasotzen dituen alkoholarekin erlazionaturiko artikulua salbuesle zein aringarriak ezagutzea. Artikulu hauen aplikazioa sexu-eraso kasuetan.
- Jendartearen pertzepzioa ezagutzea.
- Fenomenoari nola aurre egin ezagutzea.

Helburu hauek betetzeko bi teknika ezberdin erabili ditugu. Alde batetik, galdetegia eta bestetik aditu ezberdinei zuzendutako elkarrizketak. Hurrengo ataletan hauen helburuak, metodologia, emaitzak eta ondorioak azalduko ditugu banan-banan.

1.2 Lanaren kronograma

Eginbeharrak	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
Tutorearekin harremanetan jarri	✓								
Tutorearekin bilerak	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

Bibliografiaren irakurketa eta marko teorikoaren lanketa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	
Elkarrizketak egiteko adituekin harremanetan jartzea						✓			
Elkarrizketak						✓	✓		
Elkarrizketen transkribapena						✓	✓		
Galdetgia sortu						✓			
Galdetgia masiboki bidali						✓	✓		
Datuak jaso							✓		
Datuen azterketa							✓		
Atal enpirikoa egitea						✓	✓	✓	
Ondorioak							✓	✓	
Informe exekutiboa								✓	
Aurkezpeneko Power Pointa prestatzea								✓	✓
Defentsa prestatzea								✓	✓
Defentsa									✓

2. GALDETEGIA

2.1 Helburuak eta hipotesiak

Atal enpirikoari hasiera emateko, jendarteari galdetegi bat luzatzea adostu dugu. Galdetegi honetan jendeak sexu-erasoen eta alkoholaren kontsumoaren inguruan duen pertzepzioa ezagutu nahi izan dugu. Baita sexu-eraso, alkohol kontsumo eta sujetuak jaso beharko lukeen arteko harremanaren inguruko iritzia ere. Eta azkenik, nola ez, lana gaia kontuan izanik, talde sexu-erasoen inguruko pertzepzioa ezagutzea ezinbestekoa izan da. Galdetegiko galderak eranskinetan aurki daitezke.

2.2 Metodologia

- *Diseinua*

Ikerketa hau egiteko diseinu deskribatzailea eta zeharkakoa erabili dira. Deskribatzailea, aldagai batzuen ezaugarriak deskribatu nahi dituelako, haietan zuzeneko esku-hartzerik gabe. Zeharkakoa, galdetegi denbora tarte batean betetzeko aukera zegoelako, baina ez delako aldagai horien bilakaeraren jarraipenik egin. Ez-esperimentala dela ere esan dezakegu, erabilitako aldagaiak ez direlako manipulatu.

- *Lagina*

Azterketaren populazio-unibertsoa 15 urtetik gorako pertsonak osatzen dute. Lagina 384 pertsonakoa izan da eta Googleko Galdetegien bidez erantzun dute modu birtualean (https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLScXJ8FdbZ3x_dXKX74S6SgRNt8fZ5_xnM-2Qz7jOmsZgwUMMg/viewform?usp=sf_link).


2.3 Emaitzak

Galdetegiko emaitzak laburbiltzen hasteko, lehenik eta behin **datu demografikoak** emango ditugu. Lehenengo atal honetan informazio mota hau jasoko dugu: genero-identitatea, adina, ikasketa-maila eta bizilekua.

Genero-identitateari dagokionez, 281 (%73,2) emakumek, 100 (%26) gizonezkoak eta beste identitate bat duten 3 (%0,8) pertsonak erantzun dute. Guztira 384 erantzun erregistratu dira.

Adinaren atalean, grafikoan ikus daitekeen bezala erantzun gehienak 20-24 urteko pertsonengatik jaso ditugu, guztira 180 (%46,9). Atzetik, 15-19 urte bitartekoak ditugu 56 pertsonekin (%14,6), ondoren 25-29 urte bitartekoak 52 gizabanako (%13,5), 41+ urte 49 pertsona (%12,8), 30-34 urte bitartean 27 (%7) eta azkenik, 35-40 urte bitartean 20 pertsona aurkitzen dira (%5,2).


Adina / Edad
384 respuestas



Ikasketa-mailari dagokionez, argi ikus daitekeen moduan erantzun duten pertsonen erdia baino gehiagok unibertsitateko ikasketak ditu edo unibertsitatean ikasten ari da: 255 (%66,4). 70 (%18,2) pertsonek Lanbide Heziketa jaso dute edo jasotzen ari dira, 45 gizabanakok (%11,7) bigarren mailako ikasketak eta amaitzeko, lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituzten 14 pertsona ditugu (%3,6).


Hau ikusi eta gero, datu demografikoen atala ixteko **bizilekuaz** hitz egingo dugu. Espero bezala inkesta erantzun duten sujetu ia guztiak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dira 341 (%88,8); eta 43 (%11,2) pertsona Beste Autonomia Erkidego batean. Hirugarren aukera bat jarri genuen "beste" bizileku bat idazteko aukera ematen zuena. Hau, Espainiatik kanpo bizi den pertsonen idazteko aukera emateko pentsatu zen baina Nafarroa edo Valentziako bi pertsonen erabili dute soilik.

Datu demografikoak behin aztertuta, sexu-erasoen inguruan egin ziren galderen emaitzak aztertuko ditugu orain. Hasteko, galdetegian jasotako hurrengo galderak honela zion: **Nola definituko zenuke sexu-eraso bat?** Hau idatziz erantzuteko galdera izanik, jasotako erantzun guztiak jaso eta taldeka sailkatu ditugu antzekotasunen arabera. Guztira 304 erantzun jaso genituen baina baliozkoak 288 izan dira. Erantzun horiekin grafiko hau egin ahal izan dugu:




Beraz, ikus daitekeen bezala erantzunen %38an adostasunik gabeko sexu-ekintza bat dela adierazi dute, sufritu duen pertsonaren borondatearen aurkakoa. Jarraian, erantzun gehien batu dituen definizio laburra sexu izaera duen edozein eraso dela dioena izan da (%26). Hirugarren, portzentai nabarmen batekin eraso fisiko, mentala edo hitzekoa izan daitekeenaren definizioa kokatzen da, erantzunen %19a jasoz. Eta azkenik, portzentai txikiagotan azken hiru multzoak aurki ditzakegu nazkagarria dela esaten zutenak (%8), Zigor Kodearen arabeko erantzun juridikoak ematen zituztenak (%6, hauek seguruenik Zuzenbide edo Kriminologiako ikasleek idatziak izan dira) eta azkenik, sexu-erasoa bortxaketa bezala identifikatzen dutenak aurki daitezke (%3).


Jarraitzeko, beste galdera batzuk planteatu genituen. Lanean sexu-erasoak alkoholarekin erlazionatzen direnez, galdetegia egin zutenei euren **alkoholaren kontsumoaren** inguruan galdetu genien galdera honekin: alkohola kontsumitzen duzu edo kontsumitu duzu noizbait? Erantzunak %94,8an baiezkoak izan ziren (364 pertsona) eta %5,2an ezezkoak (20 pertsona). Alkoholaren kontsumoaren inguruko informazioa ezagutu ondoren, kontsumo honek pertsonengan eragiten dituen jarrera aldaketen inguruan galdetu genuen. Honetan, aukera bat baino gehiago klikatzeko aukera zegoen baita berriak bururatzuz gero hauek idazteko tokia ere. Erantzunak hauek izan dira:



Aurreko galderari lotuta, hauetako zeintzuk bizi izan dituzten galdetu genuen. Eta honakoak izan ziren emaitzak:




Bloke honetako azken galdera bezala, **alkoholak portaera bortitzak izatera bultzatzen duen jendea** jakin nahi izan dugu. Jendeak ze pentsatzen du honen inguruan? Ikus bezala, ia inkesta erantzun dutenen erdia, %44,5 (171 pertsona) gehienbat ados dago, eta %15,4a guztiz ados (59 pertsona), honek adierazten du alkohola eta portaera bortitzen artean harremana dagoela uste duela gehiengoak. Ez dugu ahaztu behar ez ados ez desados dagoen jende hori %25,8 (99 pertsona). Grafiko honekin bukatzeko, gehienbat desados %10,4 (40 pertsona) eta guztiz desados %3,9 (15 pertsona) daudenak ditugu. Hauek, ez dute alkohola eta portaera bortitzen arteko erlaziorik egiten.



Hurrengo blokean eraso, erasotzailea eta alkoholaren inguruko galderak izango dira. Hauekin, gizartearen pertzepzioa zein den jakin nahi izan dugu eta atal batzuetan erantzunak euren artean nahiko ezberdinak izan dira.

Alkoholaren efektuak sexu-erasoaren kausa izan daitezkeen galdetzean, guztiz desados dagoen sujetu kopurua 123koa da %32a. Nahiz eta erantzun gehien jaso dituen aukera guztiz desados izan, ez ados ez desados eta gehienbat ados aukera oso portzentai antzekoekin azaltzen dira, lehenak %24,7 (95 pertsona) erantzun jaso ditu eta bigarrenak, %24,2 bi erantzun gutxiago soilik. Bi multzo hauek erantzunen ia %50a osatzen dute. Guztiz ados daudenak ere badira, gutxi izan arren %4,7 (18 pertsona). Beraz, ez ados ez desados + gehienbat ados + guztiz ados, desados dagoen pertsona kopurua baino gehiago da.




Alkoholaren kontsumoak sexu-erasoa burutu duen sujetuaren portaera justifikatzen duenaren harira, erantzunei dagokionez grafikoan ikus daitezkeen bezala ia adostasun osoa dago. Hau da, jendearen %92,4ak (355 pertsona) uste du kontsumo

honek ez duela erasotzailearen portaera justifikatzen. Ondoren, erantzun gehien jaso dituen itema gehienbat desados izan da %4,7 (18 erantzunekin). Nahiz eta erantzun oso gutxi izan, badago eraso hauek alkoholaren kontsumoagatik justifikatzen dituen jendea: gehienbat ados (5, %1,3) eta guztiz ados (3, %0,8). Gutxiengoa da.

Atzetik datorren itema ez zen derrigorrezkoa erantzutea. Hala ere, 121 baliozko ihardespren jaso dira. Honela laburbildu ditugu:


ERANTZUNEN SAILKAPENA	ERANTZUN KOPURUA
Alkoholak eraso sexualak burutzera bultzatu dezake.	19
Eraso sexualak ezin dira inolaz ere justifikatu.	35
Eraso sexualak burutzeko predisposizio bat egon behar da edo erasotzailearen pertsonalitateak dute eragina.	53
Jasotako hezkuntza eta gizarteak du eraso sexualetan eragina.	12
Erasoa justifikatzen duten erantzunak.	2

Alkoholaren inguruko galdera hauek egin ondoren, egokia iruditu zitzaigun alkoholaren kontsumo, eraso eta zigorraren erlazioarekin zerikusia duten bi galdera egitea. Lehenengoan, errealitatean **zigor penal bat ezartzerakoan jendarteak erasotzaileari alkohola kontsumitu izanagatik zigorra arintzen zaion edo ez** uste duen galdetu genion. Erantzun aukerak bai, ez eta ez dakit izan ziren eta oso parekaturik gelditu ziren hirurak: bai %35,7 (137 pertsona), ez %37,2 (143 pertsona) eta ez dakit %27,1 (104 pertsona). Ondoren, **erasotzailearen kontsumo honek zigorra arindu, bere horretan mantendu edo larriagotu** beharko lukeen galdetu eta erantzunak hauek izan dira:




Ikus bezala gehiengoa mantentzearen alde dago (294 pertsona, %76,6) eta gutxiengoa arintzearen alde (11 pertsona, %2,9). Larriagotzearen nahia bi hauen tartean mantentzen da, hala nola %20,6ak aukeratu du (79 pertsona).

Biktimari erreferentzia egiten dion galdera bat tarteratzea ere nahi izan dugu jendeak alkoholaren kontsumoa, biktima eta erasoaren inguruan zer pentsatzen duen jakiteko. Galderak honela zion: **mozkortuta dagoen emakume bat sexualki erasotzen badute, erruaren parte bat du kontrola galtzeagatik?** Erantzunak hauek izan dira...




la denak guztiz desados agertzen dira, %91,9a (353 pertsona) eta gehienbat desados %2,9a (11 pertsona). Gehiengoak uste du emakumeak ez duela eraso sufritu izanaren erruaren parte alkohola kontsumitu izanagatik. Beraz, 20 pertsona daude soilik beste aukeretan. Gehienbat ados 4 pertsona eta guztiz ados 3 (pertsona hauek uste dute emakumeak erruaren parte bat duela alkohola kontsumitu eta kontrola galtzeagatik).

Hurrengo galdera multzoan, talde sexu-erasoen inguruko galderak planteatu dira. Lehenengo bi galderak, alkoholaren kontsumo eta erasotzaileen portaerarekin erlazonaturik daude, lehen aipaturiko galderak bezala. Baina, oraingo honetan taldeko erasoei egiten zaie erreferentzia. Hortaz, **alkoholaren efektuak sexu-erasoaren kausa izan daitekeen** galdetzean, lehen gertatu bezala erantzunak oso ezberdinak izan dira baina grafikoak portzentajeei dagokienez oso antzekoak dira. %40,6ak uste du alkoholaren kontsumoa ez dela talde-eraso horren kausa (156 pertsona) eta beste %14,6 (56) horren konbentzituruta ez esan arren, talde berdinean daudela pentsa dezakegu. Ez ados ez desados dagoen jendea %19a dira. Baina, badago kausa dela uste duen pertsona talde bat ere: gehienbat ados %21,4 (82 pertsona) eta guztiz ados %4,4 (17 pertsona).




Baina, **alkoholaren kontsumo horrek talde sexu-erasoa aurrera eraman duten sujetuen portaera justifikatzen al du?** Eta ez, erantzuna orokorrean ezezkoa da. Ikus dezagun:



Bakar batzuek justifikatzen dute (gehienbat ados eta guztiz ados) baina, esan bezala, gutxiengoa dira soilik %1a (4 pertsona).

Baina, **erasotzaile hauek gutxituta ikusten al dute erruduntasuna edo duten erantzukizuna taldean jarduteagatik?** Orokorrean gizarteak uste du baietz (%65,6, 252 pertsona) horrela gertatzen dela, %12,5ak uste du ezetz (48 pertsona) eta %20,1ak ez daki galdera hau erantzuten edo ez dauka honen inguruko iritzirik (77 pertsona). Baina, beste erantzun bat emateko aukera utzi genuen eta 7 pertsonak zera idatzi dute: *“uste dut elkar babesten direla beraz, bai”*; *“todos tienen la misma culpa en tanto que todos son individuales con capacidad para decir que no ante una situación así, independientemente de la presión grupal”*; *“motibatuagoak sentitzen dira bakarka baino”*; *“denek dute erru berdina”*; *“ven disminuída su cobardía”*; *liderrari/liderrei jarraitzen diete. Babestuta sentitzen dira, bakarrik asko ez ziren saiatuko”* eta, azkenak honela adierazi du *“babestuak sentitzen direlakoan nago. Ondorioz, erantzukizuna eta*

erruduntasuna konpartitua delakoan nago, inpunitatea emanez euren buruei". Argibide hauetako batzuk oso interesgarriak iruditu zaizkigu.



Hurrengo itema planteatu berri dugun galderen inguruan zerbait gehitu nahi badute idatziz erantzuteko aukera eman genuen. Erantzun kopuruak beheara egin du, guztira 56. Baina ez dugu ahaztu behar ez dela derrigorrezkoa bertan zerbait idaztea. Jasotako erantzunak laburbiltzeko, grafiko eta taula bat egin dugu.


ERANTZUNEN SAILKAPENA	ERANTZUN KOPURUA
Zigorra gogortu beharko lukete.	7
Erasotzaileek kulpa arindua sentitzen dute taldean jardutegatik.	34
Erasotzailea da erruduna eta taldean jardutearren ez du erru gutxiago.	4
Gizartearen ikuspuntutik eginiko analisiak.	2
Taldeak sujetuengan nola eragiten duen eta alkoholaren eraginpean buruturiko sexu-erasoen inguruko iritziak.	9

Jasotako erantzun interesgarri batzuk hemen azaltzea egokia iruditu zaigu:

- *“Cuando se cometen conductas antisociales en masa o en grupo, las personas pierden la conciencia de responsabilidad individual, aunque eso no les exime de deber tenerla”.*
- *“Los agresores en grupo se ven apoyados por sus “amigos” y esto hace que se crean más “valientes” para llevar a cabo las agersiones”.*


- *“Creo que si más gente hace lo mismo que ellos, si ven en sus igual una aprobación, por mucho que se les castigue penalmente, no van a comprender completamente la ilicitud del hecho.”*
- *“Alkoholaren kontsumoak ez du zer ikusirik talde erasotan. Erasotzaile taldearen eta bere inguruaren babesa dute eraso egiten dutenek. Talde eraso aurretik hitz egindako zoeze delakoan nago, izan kafe baten inguruan edo zerbeza baten inguruan. Beti ere aurrez lagun taldean hitz eginda eta inguruaren babesa izanik, ez dira erantzule zuzenak sentitzen. Momentu baten izan daiteke alkohol eta drogen eraginak momentuan sortutako erreakzioa baina ez dut uste kasu asko izan daitezkeenik, bat edo beste baina isolatuak. Honetan ere komunikabideen papera eta epaitegienak zer ikusia duelakoan nago. Epaituak erasotzaileak soilik ez, hori babesten duten lagunak ere izan beharko lirateke eta inpunitatea ematen dieten epaile eta fiskalak.”*

Azkenengo galdera multzoari ekingo diogu. Honetan, **azken urteotan sexu-eraso gehiago eta talde sexu-eraso gehiago gertatzen direla uste duen** galdetu diogu jendeari. Sexu-erasoak orokorrean:



Erantzunak multzokaturik hauek direla esango genuke: bai (%35,4, 136 pertsona), ez (%22,9, 88 pertsona) eta ez dakit (%24,7, 95 pertsona). 65 pertsonak idazteko aukera erabili dute eta horiek taldekatzen ahalegindu gara. Hau izan da emaitza: gehiago ezagutarazten dira egun => ikusgaitasuna / visibilidad (37), gehiago salatzen dira (24 pertsona), gehiago gertatzen dira baina ez dugu denen berri (1), gehiago gerta daitezke baina informazio gehiago ere badugu egun (2), eta azkenik, *“Si, debido a que está llegando gente culturalmente más acostumbrada a este tipo de violencia”* (1).

Talde sexu-erasoei dagokienez, **gehiago gertatzen dira?**:



Bai (%55,2, 212 pertsona), ez (%13, 50 pertsona) eta ez dakit (%25, 96 pertsona). 26 pertsonak idazteko aukera erabili dute, baliozkoak 24 izan dira eta honela multzokatu ditugu erantzunak: zortzi pertsonak uste dute berdin gertatzen direla baina orain ikusgaitasun gehiago ematen zaiela, lau sujetuk esan dute “efecto llamada” edo imitatzeko joera egon daitekeela “La Manada”-ren kasua eta gero, zazpi pertsonak uste dute gehiago salatzen direla, bi pertsonak gehiago gertatzen direla uste dute baina ahaztu gabe orain gehiago informatzen dela eta falta diren erantzunak, idatziz jarriko ditugu:

- *“No tengo datos. El humano siempre ha sido animal de manada, para lo bueno y para lo malo... Seguro que hay habido violaciones en grupo a lo largo de la historia: soldados, presos... Etc.”*
- *“Si, el 70% de ellas protagonizadas por seres provenientes de culturas donde ven a la mujer como un objeto que se puede comprar y vender.”*
- *“Puede que el caso de la manada haya creado un antecedente donde violar en grupo queda impune y además te hace más machote (depende en que ámbitos de la sociedad). Pero quién viola, agrede, maltrata, y más en grupo, suele rodearse de gente que normaliza y legitima la violencia contra las mujeres (o cualquier persona que no cumpla con los roles de género tradicionales). “*

Bukatzeko, gogoetak jartzeko atal bat jarri genuen. Bertan inkesta egin ondoren norbanakoak zerbait idazteko aukera zuen, derrigorrezkoa izan gabe. Interesgarrienak jaso ditugu:

- *“Creo que actualmente tenemos más medios para conocer agresiones sexuales sufridas en cualquier parte de España, no así en décadas pasadas (por la multitud de medios de comunicación y su alcance). Por otro lado, pese a la cifra negra que se sabe existe, actualmente la gente se siente más amparada para dar a conocer el hecho y denunciar. Por estas dos cuestiones es posible que la percepción social de este delito sea que va en aumento. Pese a esto, quizás ciertos grupos se ven más motivados a realizar un delito de agresión sexual por la manera de tratar el hecho en los medios de comunicación (esto ocurre también los delitos de terrorismo).”*

- *“Eraso sexualak betidanik eta tamalez beti eongo dira. Gauza da, orain hori ikustarazten hasi dela komunikabideen eskuetatik. Hala ere, oraindik lan asko dago fenomeno honi aurre egiteko eta heziketa bide bakarra da! Hezkuntza erdigune bezala jarri beharko genuke (Eskoletan programak eginez, sexu heziketa gehiago emanez...) gizartearen parte izango diren adintxikikoei balio batzuk (errespetua, autokontrola, empatia, etab) irakasteko eta horiek irakasten dituztela ziurtatzeko. Hala nola hizkuntza inklusiboa irakasteari ekin behar diegu bai Familia eta bai adintxikikoei. Izan ere, honek berebiziko garrantzia izango duelako gure ideia matxistak garatzeko momentuan, inkontz kenteki bereganatuko ditugulako hizkuntza oker bat erabiltzean.”*

- *“Eraso matxistak alkoholaren kontsumoari leporatzea arazo sozial bat indibidualizatu eta gizartetik at-eko arazo moduan tratatzea da, non azken finean matxismoa egungo sistema ekonomikoak konfiguratzeko dituen harreman sozialen eragina den.”*

- *“Considero que si todas las personas, independientemente de sus particularidades, recibieran una educación sexual integral muchas de estas situaciones se verían controladas. Sin embargo, la educación sexual sigue teniendo una perspectiva genitalizada, donde no se sopesan aspectos emocionales, psicológicos o sociales, por ejemplo. No me parece que una agresión sexual se pueda justificar bajo los efectos del alcohol, sigue siendo una acción irresponsable y en contra de los derechos humanos”.*

2.4 Galdetegiaren inguruko gogoetak

Galdetegi honen emaitzak jaso eta azaldu ondoren, gogoetak egitea falta zaigu. Osatzeko, esanguratsuenak edo garrantzitsuenak iruditu zaizkigun emaitzak laburbildu eta horren inguruko interpretazio bat egitera joko dugu.

Lehenik aztertuko dugun atala, inkestan alkoholaren kontsumoaren inguruko galderen erantzunekin hasiko dugu. Ikusi ahal izan dugun bezala, erantzun duen jendearen ustez alkohola kontsumitzeak pertsonengan jarrera aldaketa asko eragin ditzake, baina azpimarratuko genituzke gure lanari edo kasuari aplikagarri izan daitezkeenak: agresibitatea eta deshinibizioa. Galdetegia bete duten 384 pertsonetatik 100 baino gehiago sustantzia hau hartzeagatik noizbait agresiboagoak izan dira. Deshinibizioa ere hor dago. Orduan, badirudi gertatu litekeela jendea agresiboagoa bilakatzea alkoholaren eraginez eta hori festa giroan eman daitezkeen portaera bortitzekin erlazionatu daiteke. Portaera bortitz hauek, lanean ikus bezala ez datoz ezerezetik, hau da, pertsona bakoitzak bere baitan edo barrunbeetan dituen pentsamendu edo jokabide batzuk azaleratzen "laguntzen" du.

Bigarren, alkoholaren efektua sexu-erasoaren kausa izan daitekeen... Bloke honetan gizartearen pertzepzioa ezagutzeko lanketan murgildu gara. Itau honetan jasotako emaitzak nahiko harrigarriak iruditu zaizkigu. Aurretik esan bezala, ez ados ez desados + gehienbat ados + guztiz ados dagoen pertsona kopurua gehiengoa da. Beraz, jendeak bai uste du interpretazio orokor bat eginaz erasotzaileak alkohola kontsumitu izanak sexu-eraso baten kausa izan daitekeela. Ez dugu uste adituek esandakoa kontuan izanik bi elementu hauen arteko harreman kausal bat egitea (faktore asko kontuan izan gabe) egokiena denik (Gelles eta Straus, 1988 / Pascual, Reig, Fontoba, eta García del Castillo-López, 2011 zitatua). Erasotzaileak aurretik dituen sinesmenak edo pentsaerak ez ditugu inondik inora ere ahaztu behar (beste zenbait faktoreen artean). Hala ere, hori da gure galdetegia erantzun duten gehiengoaren pertzepzioa.

Hala ere, azpimarratu behar da alkoholaren kontsumoak sexu-erasoa burutu duen sujetuaren portaera gehiengo handienarentzat ez duela inondik inora justifikatzen. Hala ere, azaldu dira gutxi batzuk zeinak justifikatzen duela kontsideratzen duten (gehiengoa emakumeak). Pentsa dezakegu galdera ondo ulertu ez zutela edo, beste aukera bat izan daiteke horrela pentsatzea, nola ez. Honen inguruko adierazpen hau jaso dugu, idatziz eta gizonezko batek idatzia izan da:

- *“No hay que olvidar que hay mujeres que utilizan el consumo de alcohol para aprovecharse de una situación de jolgorío. Posteriormente, una vez recobrada la conciencia, considerarán que las agredieron sexualmente cuando realmente eran cómplices de la situación que crearon, no haciendo nada para impedirlo. Las que yo considero violaciones en diferido, basadas en el posterior despecho.*
“

Egun bizi den matxismoaren isla argia besterik ez da. Esaldiak ez du azalpenik behar.

Bestetik, azpimarratzea gustatuko litzauguke inkestaren emaitzak adierazi bezala ez garela gizarte punitibo edo zigortzaile baten aurrean aurkitzen. Gehiengoak zigorra mantendu beharko litzatekeela uste du. Horrek adieraz dezake modu batean jendarteak ulertzen duela zigorraren larritasunaren eta delituaren disuasioaren arteko erlazioa, hau da, zigorrak areagotzeak edo luzatzeak ez dakarrela delituak gutxitzea edo murriztea.

Azkenik, badago pertsona bat sexu-erasoak gehiago gertatzen direla uste duena eta gertaera honen areagotzea etorkinei egozten die hau esanez: *“Si, debido a que está llegando gente culturalmente más acostumbrada a este tipo de violencia”*. Esaldi honekin intsinuatzen du “bertako” jendeak bortxaketak neurri txikiago batean burutzen dituztela. Talde sexu-erasoei dagokionez, zera esan zuen (emaitzetan jaso genuen jada): *“Si, el 70% de ellas protagonizadas por seres provenientes de culturas donde ven a la mujer como un objeto que se puede comprar y vender.”* Errua beste kultura baten parte diren pertsonen egozten die, espainiarrek emakumea objektu baten moduan ikusiko ez balute bezala. Zerbait esan behar dugunean erabiltzen ditugun datuak benetakoak diren edo ez ikertzea ezinbestekoa izan beharko litzateke, egiazko informazioa erabiltzea. Bestela, sineste edo ideia okerrak jaso eta zabaltzen dira buloak sortuz eta pertsona askori kalte handiak eraginez (arrazismoa, xenofobia...).

Lan honetan ez dugu daturik bildu erasotzaileen jatorri edo kulturaren inguruko informaziorik, beraz ez dugu kopururik baina interesgarria izan daiteke hau ikertu eta ezeztatzea. Talde sexu-erasoen %70a beste kultura bateko sujetuek burutzen dituztelaren argudioa VOX alderdi politikoak erabiltzen du Borraz (2020) kazetariak eldiario.es komunikabide digitalak dioten moduan. Datu hau lan honetan erabili dugun testu batetik jasotzen du, “Agresores sexuales con víctima desconocida” deitua eta Barne Ministerioak editatua. Izenburuak esan bezala, lan honetan jasotzen diren datuak erasotzaile eta biktima ezagutzen ez diren kasuetakoak dira. Ezagutzen ez diren kasuetan, ikerketa honen arabera talde erasotzaileak %69an atzerritarrak ziren, baina, dokumentu honek kanpo uzten ditu erasotzaile eta biktima ezagutzen diren erasoak. Beraz, Borraz-ek (2020) esan bezala *“la cifra repetida constantemente por Abascal (...)*

es una extrapolación que no analiza el total de agresiones sexuales en grupo que se dan en España”.

3. ELKARRIZKETAK

3.1 Helburuak

Elkarrizketak esparru ezberdinetako profesionalei zuzenduak egon dira eta bakoitzak helburu ezberdinak izan ditu hauek ezagutza arloaren arabera moldatuak izan direlako.

Lehenengo elkarrizketatuarekin helburu hauek finkatu ditugu: adingabeak diren Sexu-erasotzaileei zuzendutako Tratamendu Programa Hezitzaile eta Terapeutikoaren nondik norakoak ezagutzea aplikatzeko era, lanketa ezberdinak etab.; alkoholaren kontsumoarekin arazoa izanez gero bi problematika hauek nola lantzen diren antzematea; programaren hobekuntzarako pautak; sujetu hauen “profila” zehaztea; taldean sujetu indibidualek izan ditzaketen portaerak ezagutzea eta taldearen eragina; gazteen sustantzien kontsumoa ezagutzea eta, azkenik, programaren aplikazioaren ondorengo berrerortze tasaren inguruko informazioa eskuratzea.

Bigarren elkarrizketak beste ikuspuntu oso ezberdin bat izan du, sozialagoa izango litzatekeena. Horregatik, gaiaren inguruko galderak egin dira baina gehienbat berak honen inguruan duen pertzepzio feministan zentratu gara. Helburuak hauek izan dira: sexu-eraso eta bortxaketaren definizioa ezagutzea; talde sexu-erasoen inguruan duen pertzepzioa, egitatearen justifikazioa, alkoholaren kontsumoaren ondorioz eraso justifikatzeko joeraren inguruko iritzia ezagutzea; legeak portaera hauek zigortzerako orduan gaizki egiten duena bere pertzepziotik identifikatzea eta, azkenik, gizartean zein aldaketa egin beharko liratekeen jakitea.

Azken elkarrizketan beste ikuspuntu bat jaso nahi izan dugu, juridikoa. Horregatik, lehenik sexu-eraso eta bortxaketaren definizio juridikoaren inguruan galdetu diogu, eta, nola ez, hauen arteko bereizketaz. Ondoren, talde sexu-erasoen inguruko informazioa eskuratu nahi izan dugu lehenengo adituaren antzera, baita delituak eta alkoholaren arteko harremana ere. Azkenik, zuzenbidean aditua dela kontuan hartuz alkoholaren inguruko salbuesle eta aringarrien lehen eskuko informazioa lortu nahi izan dugu, baita sexu-eraso kasuetan hauen aplikazioaren inguruan duen iritzia ere.

Elkarrizketen galdera guztiak baita transkribapenak ere eranskinetan aurki daitezke.

3.2 Metodologia

Azterketa enpiriko honen jarraipen gisa, arlo ezberdinetako profesionalei elkarrizketak egitea erabaki dugu.

Covid-19a dela-eta, egungo egoeraren ondorioz elkarrizketak telefono bidez egin behar izan ditugu. Adituekin harremanetan jartzeko prozesua zaildu egin da, erantzunak jasotzeko denbora luzatu eta horrek prozesua luzarazi du. Elkarrizketa baino lehen aditu bakoitzari galderak bidali zaizkio lehen eskutik begiratu bat emateko eta landuko den gaiaren nondik norakoak ezagutzeko, ondoren elkarrizketa egiteko data eta ordua jarri dira.

Hiru elkarrizketa egiteko aukera izan dugu, guztiak telefono bidez. Elkarrizketa erdi-estrukturatuak izan dira eta galdera irekiekin. Elkarrizketatu bakoitzarentzat galdera sorta ezberdinak prestatu dira norberak ezagutu edo lantzen duen arloa kontuan hartuz (galdera guztiak eranskinetan aurki daitezke). Elkarrizketak egiterakoan normalean galderen ordena mantendu da baina beharrezko izan den momentuetan ordena honetan aldaketak egon dira adituak jada erantzun duelako edo ematen ari zen erantzunarekin lotu zitekeelako prestatutako galdera.

Lehenengo elkarrizketatua DR izan da, CEMJ "Teresa de Calcuta" adingabeen zentroko Talde Teknikoen Burua eta Psikologoa. Bere doktoretza tesia "*Influencia de las distorsiones cognitivas y las tipologías funcionales de la agresión sobre la reiteración delictiva en menores infractores*" inguruan izan zen. Elkarrizketa hau aurrera eramatea erabaki dugu zentro horretan bertan Adingabeak diren Sexu-erasotzaileei zuzendutako Tratamendu Programa Hezitzaile eta Terapeutikoa aplikatzen delako. Hortaz, programa horren inguruko lehen eskuko informazioa jaso ahal izan dugu.

Bigarren elkarrizketatua Samara Velte izan da, Ikus-entzunezko Komunikazioan graduatua eta Diskurtso Ikasketetan espezializatua; 2018 urtera arte Berriako kazetaria izan da. "Nik sinesten dizut" liburua Berriako *Gizarte sailean* kazetari zela idatzi zuen. Azken etapa horretan feminismo eta genero gaiak landu zituen bereziki. 2015ean Rikardo Arregi Kazetaritza Saria jaso zuen *Kazetari Berria* kategorian. 2018. Urtearen amaieratik, ikerlari gisara dihardu Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean, doktorego-tesia egiten duen bitartean.

Hirugarren elkarrizketatua Izaro Icuza izan da, Zuzenbidean lizentziatua eta doktorea UPV/EHU, cum laude notarekin. Bere tesia Espetxe Zigor Iraunkor Berrikusgarria-ren ingurukoa izan zen. Irakaslea da 2015. Urtetik Zuzenbide Publiko Sailean eta klaseak ematen ditu Zuzenbideko zein Kriminologiako graduan. Ikerketa egonaldiak egin ditu

Cambridgeko Unibertsitatean (Ingalaterra) eta Max Planck-eko Institutuan (Friburgo, Alemania). Bi master ditu: Master en Derechos Fundamentales y Poderes Públicos (2011) eta Master en drogodependencias y otras adicciones (2010). 2013tik Ikerketa proiektu batean dago “Los factores postdelictivos y peligrosidad postdelictual”. Zortzi artikulu zientifiko idatzi ditu eta hiru komunikazio aurkeztu.

Elkarrizketak egin ondoren hauek transkribatu eta aztertu ditugu. Honekin, aditu bakoitzak esandakoaren inguruko ondorio batzuk ateratzeko aukera izan dugu.

3.3 Emaitzak

DR-ri elkarrizketa

Esan bezala, aditu honek Adingabeak diren Sexu-erasotzaileei zuzendutako Tratamendu Programa Hezitzaile eta Terapeutikoaren inguruan hitz egin zigun, baita beste zenbait gaien inguruan ere. Hemen azaldutakoa laburki azaldu eta interpretatuko dugu.

Programa hau adingabeen zentroetan aurrera eramaten da, talde txikietan eta modulu ezberdinetan banaturik dago. Aplikazioan zehar, gazteekin gai ezberdinak lantzen dira, hala nola: “(...) heziketa sexuala, autokontzeptua, berrerortzearen prebentzioa, distortsio kognitiboak... Izaera honetako delituak aurrera eramatearekin erlazionatuta dauden elementuak direla ulertzen da”. Programa egoki aplikatzeko, “(...) adin txikikoek tratamenduaren etapa antzeko batean egon behar dute (...)”. Hala ere, talde lanketaz gain lanketa indibiduala dago eta honek pisu handia du. Taldean gai orokorrakoak lantzen dira eta indibidualki, adibidez, bakoitzak burututako delituaren inguruko lanketa sakona egiten da. Profil bakoitzarekin, hau da, erasotzaile bakoitzarekin portaeraren azterketa funtzionala egiten da horrela lanketa indibidualizatua eskainiz. Erasotzaile bakoitza ezberdina da.

Programa hau sexu-erasotzaileei zuzendua dago eta aplikagarri da taldean jarduten duten sexu-erasotzaileei ere “(...) programaren taldekako zatia berdin-berdin aplikatzen da, eta, gero, kontuan izan behar da banakako lanketan talde erasoetan beste prozesu desberdin batzuk ere daudela (...)”.

Programa gazteen artean eraginkorra izateko adituaren ustetan inflexio-puntua delituaren onarpena eta aldaketarako motibazioa dira. “Normalean, lehenengo delitua burutu duten gazteez ari gara (adinagatik lehenengoa izan ohi da) eta, gainera, nerabeak dira. Beraz, oso une onean gaude horrelako portaerak aldatzeko.” Esan bezala

delituaren onarpenean lanketa egiten da eta hau, gazteetan aurki daitekeen ezaugarri komun baten ondorio da: delituaren ukatzea. Zergatik? “(...) gurasoei, eurretaz arduratzen diren profesionalei, etab. Huts egiteko beldurra dutelako, ez dira fidatzen. Pentsa dezakete egindakoa kontatzen badute okerragoa izango dela beraientzat... Zenbait baldintzatzaille direla eta, etengabe egiten dute aurre”. Profesional honentzat ezinbestekoa da gazteekin lanean hasi eta talde-programan sartu baino lehen delituaren onarpenean lan egitea eta sujetuak aldatzeko benetako motibazioa izatea “(...) Horretarako, ez da presarik izan behar, gazteari argi utzi behar zaio delitua onartzen ez duen arte eta aldatu nahi duela adierazten ez duen arte ez dela beste fase batera pasako, eta ez dituela zenbait abantaila izango; hala nola irteerak, baimenak edo neurri-aldaketak... bestela, faltsukeria batean lanean arituko ginateke.”

Talde sexu-erasotzaileei dagokionez, profil orokor eta labur bat egin zuen adituak “(...) oro har, profil antisozialak aurkitzen ditugu, agian gazte delitugile arruntarekin antzekotasun gehiago dutenak. Drogak kontsumitzen dituzte, aisialdi desegituratua izan ohi dute, eskola-porrota ere izaten da.” Taldearen barnean, sujetu bakoitzak rol bat izan dezake, hau da, “(...) sujetuak erasoan duen rolaren arabera dira (...)”. Zentroan egon diren gazteetan identifikatu ahal izan dute “(...) erasoan parte hartzen duen pertsona batek lider profila du, hotzagoa. Lidergo negatiboa. Eta honekin doazen taldekideek jarraitzaile-profila izaten dute, otzanagoak izaten dira”. Bere hitzetan “(...) talde eraso bat burutzen duten gehienek, lidergo indartsu hori duen taldearen barruan ez baleude ez ziren bakarrik eraso egiteko gai izango edo ez lirateke ausartuko. Baina, taldearen babespean beste era batean gertatuko ez liratekeen portaerak askatzen dira.”

Individualki erasotzen duten sujetuak, beste profil bat izan ohi dute. Bi profil bereizi zituen: adin bereko edo antzeko biktimei erasotzen dieten sujetuak (profil antisozialagoa, psikopatikoa kasu batzuetan) eta bestetik, ume txikiak erasotzen dituztenak. Bigarren gauek, “arazo sozial gehiago izan ohi dituzte, barnerakoiagoak dira. Zailtasunak izan dituzte txikitatik, taldeko jendeak gaizki tratatu ditu edo baztertuak izan dira. Sexu-bulkadaren desbiderapena dute... itxuraz egokituagoak dira eta portaera-arazo gutxiago dituzte”.

Hau lortu ondoren, beste funtsezko atal bat enpatiaren lanketarena da, esku-hartzearen bilakaera alda dezake “(...) egin duten kalteaz ohartzea da helburua, norberak bere burua justifikatzeko sortutako eskema guztiak suntsitu behar dira. Hori lortzean, adingabearen nortasuna berreraikitzen hasi behar da.” Enpatiaren atal hau, jarduera desberdinak eginez lantzen dute: batez ere rolak trukatu; adibidez; gertaerak kontatzeko eskatu, ondoren gertaerak biktima balira bezala kontatzeko esan. Gero,

biktimari gutun bat idazteko, biktima balira bezala egiteko eta haiei erantzuteko eskatzen diete beste zenbait jardueren artean.

Taldeko kideen artean errua banatzen dute, baita erantzukizuna ere. Horrelako jokabideak identifika daitezke: *“(...) biktimari errua botatzea, ebidentzia ukatzea, ondorioak ukatzea, erantzukizunari garrantzia kentzea... Talde sexu-erasoetan erantzukizuna eta errua kentzeko deskonexio moraleko mekanismo bat horixe da, hain zuzen, taldearen baitan gordetzea erantzuleak ez direla esateko”*. Horregatik bakoitzak erantzukizuna bere gain hartzeko lanketa egiten da programaren baitan. Eta gero, jakina, emakumearen irudiaren balio nahasiak aurkitzen dira gazteetan, emakumeari mespretxua. Sineste eta balio distorsionatuak.

Eraso hauetan biktimak ohikotasunez adin berekoak edo antzekokoak izaten dira. Erasotzaileen alkoholaren kontsumoari dagokionez, substantzia honen presentzia azpimarratzen du D-ek *“(...) talde erasoek taldeen baitan ematen diren prozesuen izaera dute, eta alkoholaren eta drogen kontsumoa talde prozesu horien barne sartzen dira (...) talde aisialdia eta gehiegizko kontsumoa beste gazte egituratuago batzuek dutena baino ohikoagoa da”*. Baina ez soilik alkohola, kalamuaren kontsumoa ere nabaria da, baita kokainaren gorakada ere. Substantzia hauen kontsumoa ez da arazotsua izaten, normalean. Adingabeak diren Sexu-erasotzaileei zuzendutako Tratamendu Programa Hezitzaile eta Terapeutikoan ez da gazteek sustantzien kontsumoarekin izan ditzaketen arazoan lanketa egiten. “Teresa de Calcuta” zentroan honen lanketa beste programa baten bidez egiten da. Zergatik? Bada, sexu-eraso bat burutzeagatik barneratuak dauden gazte guztiek ez dutelako sustantzien kontsumo arazorik *“(...) ez da arrisku-faktore komuna”*. Ondorioz, ulertzen da problematika hauek bereizirik landu behar direla.

Adituak programaren hobekuntzarako egin beharreko aldaketa batzuk aipatu zituen: *“(...) nire ustez, taldeko atalari berrikuspen bat eman beharko litzaioke eta beste jarduera egituratuagoak proposatu. Eta gero, atal indibidualari dagokionez, gida bat egiten saiatu beharko lirateke, kontuan hartuta banakako terapia ezin dela horren modu zehatzean programatu. Honetan, helburu eta jarduera batzuekin gida bat egin daiteke hauek ondoren gazteekin ezarri ahal izateko. (...) Laburbilduz, garrantzitsuena inolako irizpiderik gabe lan ez egitea da, helburu jakinak eta esku hartzeko metodo bat izatea”*.

Programaz aparte, beste gauza garrantzitsu batzuez ere hitz egin genuen. Alde batetik, programaren aplikazioaren ondorengo berrerortze-tasaren datuen falta azpimarratuko nuke. Adingabeak izanik, Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren baitan daude. Baina, adingabeak adin nagusi bilakatzean delitu bat burutzen badute, Estatuko Administrazioa sartzen da, hau da, Espetxe-Sistemaren baitan izatera pasako dira.

Administrazio hauen artean ez dago datuen elkartrakerik “(...) *espetxeek ez dute adingabeen espediente zaharrera sarbiderik (...)*”. Informazio falta honek berrerortze-tasa bezalako datu garrantzitsuen informaziorik ez izatera garamatza. Horrez gain, ikerketa falta ere aipatu beharko genuke, D-en esanetan “(...) *ikerketa longitudinal bat egin beharko litzateke.*” Baina Espainia mailan esparru honetan horrelako ikerketen falta dago. Hau albo batera utziz, beste alde batetik, talde sexu-erasoen fenomeno honi aurre egiteko garrantzitsuena hezkuntza dela aipatu zigun adituak “ *nire ustez, hezkuntzan egin behar da lanketa, hezkuntza goiztiarra. Gakoa berdintasun eta balioetan heztean dago: indarkeriarik eza, sexu-askatasuna...*”. Zentroetan berriro hezteko lana egiten da, zuzendu beharreko portaera disfuntzionala izan dutenekin jardun “(...) *hobeto berrezi dezakegu, baina gizarte gisa ez dugu hobetuko hezkuntzan lan egiten ez badugu.*”

Samara Velte-ri elkarrizketa

Samarak, kazetaria izanik gai honen inguruan duen iritzi sozialago bat azaldu digu ikuspuntu feminista batetik. Esan bezala, “Nik sinesten dizut” liburuaren idazlea izan zen eta honengatik ere galdetu zitzaion. Elkarrizketan azalduko ideia nagusiak laburbilduko ditugu.

“Nik sinesten dizut” liburua Berriak, Jakinek eta Elkarrek editatzen dute elkarlanean *Aleka* deitutako bilduma osatuz. Bilduma honetan gai ezberdinak lantzen dira, Euskal Herriko gizartearentzat garrantzitsuak izan daitezkeenak edo garrantzia izan dutenak “(...) *hauetan sakondu edo landu nahi delako*”. “*Niri etorri zitzaidan proposamena Iruñeako 2016ko San Ferminetako talde-bortxaketari buruzko liburu bat idazteko. Abiapuntua hasiera batean (...) jende asko inplikatu zuela eta horrek merezi zuela azterketa sakonago bat, jendeak bere burua identifikatua ikusiko zuen lan bat. (...) Gaiaren inguruan egiten ziren kobertura gehienak oso morbosak ziren, ikuspegi feminista batetik tresnarik gabe (...) hor konturatu nintzen kontra narratiba feminista bat behar zela, gertatutakoari begirada kritiko batez helduko ziona*”. Horregatik, gainazaleko kontuak alde batera utzi eta sakontzera jo zuen kazetariak “*Orduan, abiatzen naiz galdera batetik: zergatik erasoak askotarikoak eta hain ohikoak baldin badira ez gara hari etengabe mobilizatzen? Ze faktorek eragiten dute gertakari baten aurrean posizio bat hartzeko edo ez (...) inplikazio sozial, kultural, sinboliko, diskurtsiboak... **Ikusten nuen egitura hori edo azpiko alderdi ikusezinak zirela benetan eraso guztiek konpartitzen duten elementua.***”

Honen ondoren, sinesgarritasuna azpimarratu zuen Samarak, eraso bat gertatzen den momentutik bataila nagusia sinesgarritasuna nori aitortuko zaion da: “*sinesgarritasuna*

oso subjektiboa da. Nola baloratzen da figura baten edo bestearen sinesgarritasuna? Sinesgarritasunak zerikusia du autoritatearekin. Kuestionatu behar dugu autoritatea zeini aitortu izan zaion historikoki eta sozialki gizartean. Errealitatea da orokorrean gizonezko baten hitzak sinesgarritasun askoz gehiago duela sistematikoki, gizarte patriarkal batean.”

Sexu-eraso eta bortxaketa definitzeko momentuan ez du bereizketarik egiten hauen artean “Ikuspegi feminista batetik bereizketa tranposoa iruditzen zait (...) Badaude hainbat teoriko proposatzen dutenak sexu elementua ateratzea ekuaziotik, eta horrekin ados nago”. Elementu sexualak interpretazio eta komunikazio arazoak ekartzen ditu, gainera, ondorio batzuk izan ditzake biktimarentzat kaltegarriak izan daitezkeenak, adibidez, estigma. Bere hitzetan “dominaziozko delitu baten inguruan ari gara (...) sexualitatearen esfera bat da eta erasoarena beste bat, baina bien artean ez dago kontinuum-ik”. Horregatik Samarak intsistituko luke sexu-erasoak beste edozein eraso bezala ulertzean, askatasunaren aurkako delitu bat bezala ez gorputzari edo sexualitateari egindako eraso bezala. Sexu-eraso eta bortxaketaren artean Zigor Kodeak egiten duen bereizketaren inguruan (haragitzea / acceso carnal) erasoak mailakatzeko joera aipatu zuen “mailakutzen ditugu ez sortu duten kaltearen arabera baizik eta gure gizarteko moralean sortzen dituzten zirrikituen arabera. Sarketa bidezko eraso bat eskandalagarria da emakume ondraduaren irudia hausten duelako”. Mailaketak eraso diren batzuk eta orren eraso ez diren beste batzuk egotea eragiten du.

Talde sexu-erasoen “fenomenoaren” inguruan galdetu genion, eta argi adierazi zuen “Kontu handiz ibili behar dugu, Iruñeako kasuaz geroztik ematen du sortu dela kategoria bat foko mediatikoa xurgatzen duena, eta gure arreta eramaten duena, Las Manadas. (...) **Biolentzia matxistak dituen espresio infinitu guzti horietatik batzuk tartekatzen ditugu eta gure buruan kategoria bihurtuko dira, baina horrek ez du esan nahi bere horretan bereizten direnik edo funtsean gehiegi bereizten direnik bestelako erasoetatik.**” Bere ustetan ez dira kategoriak sortu behar. Eraso hauen taldeko faktorearen inguruan hitz egitean ere, kontuan izan behar dugu bestelako erasoek ere zenbateraino duten taldetasun faktore hori (tabernetan gertatzen diren egoerak, mutilak ilaran jarri eta ukitzeko aprobetxatzea...) “intimidazio egoera batek gehienetan du ingurunearen gutxieneko konplizitate bat.”

Samarak ez du sinesten Iruñekoaz geroztik kasuak ugaritu direla esaten duen argumentu horretan “kategoria bat ez bada existitzen seguruenik existitzen den momentura arte beste era batean kontabilizatuko litzateke”, gainera ugaritze hori onartzeak “inplikatu luke beste premisa bat, Iruñekoak inspiratu dituela beste

erasotzaileak eraso horiek egiteko. Orain bat-batean konturatu izango balira gizonak taldean boteretsuagoak direla edo taldean errazago menderatu dezaketela pertsona bat”.

Talde sexu-erasoetan sujetuak taldean jarduteagatik gehiago justifikatzen direla uste du, *“(…) zentzu kolektiboak beti ematen dio legitimitate zentzazioa eraso egiten duenari. (…) eraso bakoitzaren atzean diskurtso bat dago jarduera hori justifikatzen duena. Inork ez luke eraso bat egingo ez balu usteko arrazoi bat daukala hori egiteko”.* Talde fisiko bat baldin bada inguruan eta horretan inork ez badu kontrakorik esaten, hau da, guztien arteko adostasun bat mantentzen bada gertaera hauek emateko aukerek gora egingo dute *“ados baldin badaude momentu horretan legitimoa dela eraso hori burutzea, seguruenik hau gertatzeko aukera gehiago izango dira”.* Gainera, *“zenbat eta zabalagoa izan babesten duen kolektibitatea, esplizituki edo inplizituki, nik uste dut zigorgabeago sentitzen direla.”*

Alkoholaren kontsumoari dagokionez Samararen hitzetan *“alkoholaren kontsumoa bada elementu horietako bat gizartean oraindik naturalizatzaile bezala funtzionatzen duena: alkohola, drogak, festa…”* baina alkoholaren inguruan hitz egin baino, hau da elementu batean zentratu beharrean giro baten inguruan hitz egingo luke “jai giroaz”. Kontestu honetan *“normalagotzat jotzen da eraso bat gertatzea. Beharbada, horregatik hitz egiten da errazago esparru horretan gertatzen diren erasoez besteez baino”.* Beraz, gizartean modu batean inkontzienteki bada ere *“eskema kultural horiek horren errotuta dauzkagu, gutxiago eskandalizatzen gaituela edo eskemak gutxiago puskatzen dizkigula horrelako testuinguru batean gertatzen baldin bada”.*

Elkarrizketaren amaiera aldera sexu-erasoak bere horretan desagertzeko edo murrizteko gizartean egin beharreko aldaketen inguruan galdetu genion. Nondik hasi? Leku denetatik hasi behar da, hezkuntzan soilik arreta jartzearekin ez da nahikoa *“behin eta berriro baldin bagoaz erreproduzitzen motxila patriarkala hau ez da galduko. Ahaztu egiten zaigu hezkuntza ez dela bakarrik haurtzaroa.”* Klabeetako bat begirada hurbilean jartzea izango litzateke. Hau da, *“ez pentsatzea erasoetan besteei gertatzen zaizkien gauza bezala, baizik eta saiatzeari identifikatzen benetan askoz ohikoagoak diren erasoak, normalizatuak ditugunak gure egunerokoan”.* Eraso baten atzean beti dago botere harreman bat. Bestetik, azpimarratzen du gai honek gizarte osoaren inplikazioa eskatzen duela *“estigma bat gelditzen da, kuestionamenduaren duda, baina ez gara inplikatzeko ez babes aldetik, ez akonpainamendu aldetik eta ezta ere erasotzailearekin egin beharreko lanketa aldetik”.* Zer egin dezakegu, zer lanketa bide daude eta horiek identifikatzen ikasi behar dugu.

Izaro Icuza-ri elkarrizketa

Izaro Icuza-k zuzenbidean oinarritutako ikuspuntu bat eman zigun, baita kriminologikoa ere. Hurrengo lerroetan esandakoa laburbilduko dugu ideia nagusiak azpimarratuz.

Lehenik, juridikoki sexu-erasoa eta bortxaketa definitu zituen hauen arteko bereizketa eginaz. Sexu-erasoari dagokionez hau azaldu zigun adituak: *“eraso-sexuala kontzeptu zabalagoa da, erreferentzia egiten dio biktimaren borondatearen aurka gauzatzen den eduki sexualeko egitateari, beti ere indarkeria edo beldurraraztea erabili bada”*. Indarkeria edo beldurraraztea erabiltzen ez baldin badira abusu-sexual baten aurrean aurkituko gara. Bortxaketari dagokionez, honela egin zuen sarrera txiki bat *“(…) Bortxaketa haragitzea da, gazteleraz acceso carnal (por vía vaginal, anal o bucal o introduciendo objetos por las dos primeras vías)”*. Baina Zigor Kodeari dagokionez, non kokatzen da bortxaketa? *“eraso-sexualak bere barne bortxaketa hartzen du, hau da, bortxaketa eraso sexualaren modalitate bat da”*. Adituak azpimarratu bezala, ez dugu ahaztu behar abusu sexualean ere bortxaketa egon daitekeela *“(…) Zigor Kodeak abusu sexualaren artikuluan (181.4), bortxaketaren ekintza deskribatzean ez du espreski bortxaketa izena aipatzen. Hau da, abusu sexualean hitz hori ez da azaltzen”*. Hau kritikatu izan da *“nahiz eta indarkeria edo beldurrarazteik ez egon, definizioagatik bortxaketa da baita ere”*.

Talde sexu-erasoen inguruan, datu desberdinak eman zizkigun adituak. Datu hauek emateko ikerketa ezberdinak baliatu zituen. Lehena 2018an publikatua, zenbait unibertsitate eta instituzioek parte hartu zuten. Unibertsitateei dagokionez EHUK parte hartu zuen Cesar San Juan eta Laura Vozmediano irakasleen ekarpenekin, baita UAM eta UB. Ikerketan honetan *“ezezagunen artean gertatzen diren eraso eta abusu sexualak aztertu ziren. Delitu hauetatik kasuen %80a ezezagunen artean ematen da eta %20a ezezagunen artean gutxi gora behera.”* Talde sexu-erasoak normalean ezezagunen artean ematen direlaren ustea zuen, eta bai jasotako informazioagatik konfirmatu daiteke hori: 2016tik jasotako datu batzuen arabera bortxaketen %33an erasotzaileak ezezagunak ziren. Sexu-erasoetan honek gora egiten du, ezezagunak %55 kasuetan ziren. Erasotzaile hauen modus operandiari dagokionez, talde-erasoak jaiegunetan gehiago gertatzen direla uste du.

Sujetuetan gehiago sakonduz, talde sexu-erasoen kasuan sujetu aktiboak *“(…) pixka bat gazteagoak dira bakarrik erasotzen duten sujetuekin baino (batz besteko adina)”*. DR Madrileko adituak bezala, **liderraren influentziaz** hitz egin zigun Izarok *“talde erasoetan liderraren influentzia egon daiteke, eta taldeetan ematen diren dinamikek*

prozesuan edo delituaren prozesu honetan eragiten dute. (...) taldean onartua izateko nahiaren influentzia egon daiteke”.

Alkoholaren inguruan hitz egiteko beste ikerketa batera jo zuen. Hau Espainian egin zen eta aurten publikatua izan da Anuario de Psicología Jurídica aldizkarian. Salamankako Jesus de la Torrek zuzendua izan da eta hurrengo izenburua du “¿Por qué se Cometan Agresiones Sexuales en Grupo? Una revision de las Investigaciones y Propuestas Teóricas”. Ikerketa horren arabera “(...) *ohikoagoa da alkoholaren kontsumoa erasotzaile bakarreko erasoetan baino*”. Baina, alkohola eta beste droga eta delituen arteko harreman bat ere egin zuen, eta honela esan “*Bai, uste dut harremana dagoela alkoholaren kontsumo eta delituen artean. Drogak (legalak edo ilegalak, alkohola ere bertan sartuko litzateke), gertatzen diren delitu askoren faktore etiologiko edo kriminogenoak dira, hau da, drogek delitua gauzatzea errazten dute. Drogen kontsumoa burutzen diren delituen %60aren eragilea da*”. Alkohola da ikerketen arabera delinkuentziarekin gehien lotzen den sustantzia. Hala ere, adituak ez du uste alkoholaren kontsumoa dagoen talde sexu-erasoetan alkohola eraso horren kausa izan daitekeenik, baina, lehen beste hitz batzuetan esan bezala “(...) *alkohola delitu horien piztailea izan daiteke, erasotzailea animatu edo bultzatu dezake delitua gauzatzera hau egiteko behar duten ausardia ematen dielako*”.

Elkarrizketaren azkenengo blokean salbuesle eta aringarrien inguruan hitz egin genuen. Salbuesleei dagokionez, toxikazio oso eta abstinentzia sindromearen ingurukoez hitz egin genuen eta aringarrien aldetik, erabatekoa ez den mozkorraldi edo toxikazioaren inguruan “*Lehenik, esan behar da, bai aringarri eta baita salbuesleak) beharrezkoak direla eta egokia dela Zigor Kodeak horiek aurreikustea. Zergatik? Horiek laguntzen dutelako gauzatu den portaerari erantzun egoki bat ematen, kontuan hartzen delako sujetu aktiboaren erantzukizun maila.*” Baina, hauek aplikatzeko aukera izateak “*ez du esan nahi egoera horretan dagoenari portaera deliktiboa gauzatzean automatikoki salbuesle edo aringarria aplikatuko zaionik*”. Artikulu hauek Zigor Kodean modu zorrotzean arautzen dira eta baldintza batzuk bete behar dira hauen aplikaziorako. Artikulu hauek sexu-erasoetan aplikatzeari dagokionez, Izarok uste du “*ez dagoela arrazoirik sexu-erasoetan hauek ez aplikatzeko. Salbuesle eta aringarriek erruduntasuna graduatzen dute, hau da, erantzun proportzional bat ematen saiatzen dira gertatutakoari*”. Kasu konkretua aztertu beharko da. Baina, kontsumoa gau batekoa bada, eraso burutu eta ondoren autorea inguruabar hauetaz baliatzen ahalegintzen bada Izarok uste du “(...) *kasu hauetan ez liratekeela aplikatu behar. Sujetuak aurreikusi du edo aurreikusi ahal zuen. Delitu hori aurrera eramateko baliabide edo teknika bezala*

alkohola erabili du. Pertsona horrek gaitasuna du egiten duena kontrolatzeko, baita ulertzeko ere. Beraz, kasu honetan inondik inora ere ez lirateke aplikatu beharko”.

3.4 Elkarrizketen ondorioak

Elkarrizketak banan aztertu ditugu jada eta elkarrizketatu bakoitzaren ekarpen garrantzitsuenak laburbildu. Horregatik, atal honetan elkarrizketa hauen ondorio batzuk atera eta aurretik azaldutako helburuei nola erantzuten dien zehazten ahaleginduko gara.

Esan bezala, elkarrizketatuei galdera ezberdinak planteatu dizkiegu formakuntza eta lan arloaren arabera. Arlo ezberdinetakoak izan arren, atal batzuetan ados daudela esango genuke. Planteatutako galderari erantzuteko taldeko erasoen ezaugarriei dagokionez, talde sexu-erasoek, izenak esan bezala taldetasun faktorea dute eta horien barruan rolak banatzen dira. Taldeko kide batek lider profila izaten du eta horrekin, liderraren influentziaz hitz egin dezakegu. Influentzia hori egon daiteke, onartua izateko nahia eta taldeko gainontzeko kideek jarraitzaile papera bete dezakete. Taldearen babesak pertsona bakoitzaren portaeran eragiten du eta agian beste kontestu batean gertatuko ez liratekeen portaerak gertatzea legitimatzen da. Baina ez dugu ahaztu behar taldetasun faktore honek ez duela sujetuen erruduntasuna inondik inora murrizten. Hala ere, ikuspuntu feminista batetik taldearen babesa ez da soilik sexu-eraso hauetan ematen, egunerokotasunean bizitzen ditugun egoera gehienek izan ohi dute inguruaren onarpena. Indibidualki erasotzen duten sujetuetan bi profil ezberdinak ziren, adin bereko pertsonak erasotzen dituzten sujetuena eta umeak erasotzen dituztenena, bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu.

Lan honekin, erasotzaile hauek jasotzen duten tratamenduaren inguruko informazio eskuratu nahi izan dugu. Nola aplikatzen den, zein atal dituen, egiten diren lanketa ezberdinak zeintzuk diren... Heziketa sexuala, autokontzeptua, berrerortzearen prebentzioa distortsio kognitiboak, etab. lantzen dira adingabeekin. Taldean egiten den lanaz gain, tratamendu indibidualizatua ere jasotzen dute eta bertan norberak aurrera eramandako delituaren inguruko lanketa sakona egiten da. Programa aplikagarri da nola ez talde sexu-erasotzaileei, ez da soilik erasotzaile indibidualetan zentratzen, baina, ahaztu gabe ezaugarri eta prozesu ezberdinak ematen direla. Adingabeei aplikatzen zaien programa hau eraginkorra izateko adituaren ustetan inflexio-puntua delituaren onarpena eta aldaketarako motibazioa dira. Delituaren onarpena eman arte gaztea ez da beste fase batera pasako. Behin hau lortuta, enpatiaren lanketa da funtsezkoa. Egin

duen kalteaz konturatu, norberak bere burua justifikatzeko dituen eskema guztiak suntsitu (biktimari errua botatzea, ebidentzia ukatzea, erantzukizunari garrantzia kentzea...) eta nortasuna berreraiki behar dira. Baita ere, ezagutu nahi izan dugu ea alkoholarekin (edo beste sustantzia batzuekin) arazoak izanez gero ea tratamendu bateratua jasotzen duten, hau da, ea sexu-erasotzaileei zuzendutako programak problematika hau ere barnebiltzen duen. Baina, erasotzaile hauekin lan egiten duen profesionalak adierazi digu beste programa desberdin bat erabiltzen dutela kontsumoaren problematikarako, sexu-eraso bat aurrera eramateagatik barneratuak izan diren guztiek ez dutelako arazo hori. Hau da, ez da arrisku-faktore komuna eta lanketa desberdindua behar du. Nire ustez, zentzu guztia du adituak adierazitako honek. Gainera, horrela erasotzaileek alkoholaren (edo beste sustantzien) kontsumoa erasoaren justifikazio bezala erabiltzea ekiditeko aukera areagotzen du eta problema bakoitza bereizirik lantzeak terapien arrakasta handitu dezake.

Adingabeei aplikaturiko programa honen ondoren eman daitekeen arazo handiena berrerortze-tasaren datuen falta da. Adingabeak Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren baitan daude, baina adingabe bilakatzean berrerortzen badira, Estatuko Administrazioa sartzen da martxan. Adituak esan bezala, administrazioa hauen artean ez dago informazioaren elkartrukerik, eta espetxeek ez dute adingabeen espediente zaharrera sarbiderik. Koordinazio falta honen ondorioz, programaren aplikazioaren ondorengo berrerortze-tasa ezagutzea ezinezkoa da eta horrekin erabilgarria izango litzatekeen informazioa mugatzen da. Tasa hau ezagutzeak eta programan parte hartu eta delitu bat berriz burutu duten sujetuekin lanketa berriak egiteak aplikaturiko neurriak hobetzen lagun dezake.

Y los que actúan de manera individual, ahí tendríamos también dos perfiles diferenciados. Unos serían esos que agreden en solitario a víctimas de su misma edad, un perfil más antisocial o psicopático incluso (no en todos los casos, pero en algunos). Y después, tendríamos ese perfil de los que agreden a niños más pequeños. Aquí lo que tendríamos chicos con más dificultades a nivel social, más introvertidos, que han sufrido dificultades importantes como el maltrato por parte de sus iguales o exclusión, no se relacionan bien, tienen una desviación del impulso sexual... aparentemente más adaptados y con menos problemas de comportamiento.

Esa sería la diferencia que más observamos. Más que de los agresores en grupo y los agresores individuales, sería lo que agreden a víctimas de su misma edad de los que agreden a niños más pequeños.

M: Vale, genial. Luego, como el trabajo lo relaciono con el consumo de alcohol... ¿suele estar presente el consumo de alcohol en este tipo de delitos? ¿Suelen ocurrir en un entorno festivo normalmente, o podemos encontrarnos de todo?

D: En las agresiones en grupo, sí que suele haber consumo. No solo de alcohol, sino de otro tipo de sustancias también. Lo que vemos en los menores es que el patrón de consumo de drogas ha cambiado un poco, ha variado del alcohol a otras sustancias como puede ser el cannabis. Es mucho más frecuente el consumo de cannabis que el de alcohol. También está aumentando bastante el consumo de cocaína u otro tipo de sustancias.

Parece que estas agresiones en grupo como tienen ese carácter que está más asociado a los procesos grupales, y el consumo de alcohol y drogas entra también dentro de esos procesos podemos decir que sí que está bastante asociado.

En los delitos que se cometen a nivel individual, no te sabría decir. Esto lo digo por impresiones, no tengo la impresión de que haya más consumo que en otro tipo de delitos. En los de grupo sí, suele ser más habitual.

M: Vale. Bueno, supongo que suele ser un consumo esporádico más que consumo problemático de alcohol.

D: El consumo de alcohol que yo veo en los jóvenes no suele ser un consumo de diario porque suele ser un consumo asociado a otras sustancias en un contexto lúdico. Lo que pasa es que como hablamos a veces de jóvenes que tienen un estilo de vida desorganizado, ese ocio y consumo que podemos pensar que se da solo en momentos de fiesta puede alargarse. Sus fiestas quizá no son solo los sábados, sino que son lunes, martes y miércoles... Es un consumo problemático y excesivo de muchas sustancias asociado a momentos de ocio grupal, sobre todo. El ocio grupal suele ser más frecuente que el que tienen otros jóvenes más estructurados.

M: Sí, vale. Y, ¿el programa trata la problemática que estos jóvenes pueden tener con el alcohol? ¿O se trata aparte?

D: Como puedes observar, es un programa que teniendo en cuenta que yo contribuí a hacerlo también, pero me parece que es mas de prevención o para casos que son muy leves que un programa de tratamiento que pueda funcionar por sí solo en casos graves. La carga del tratamiento está en el tratamiento individual, es ahí donde se profundiza más con los jóvenes y se analiza el daño de las victimas... Se trabaja de una manera mucho más intensa. Para eso incluso nosotros en el centro nos basamos en el programa de prisiones, no sé si lo tienes está publicado en la página de la Instituciones Penitenciarias.

M: ¿El SAC?

D: El SAC, exactamente. Con los manuales del SAC, a nivel individual trabajamos con eso porque entiendo que es mucho más potente, adaptándolo claro a la situación de los chicos que son menores. Pero, sí que me parece que es algo mucho más intensivo.

Este es un programa (el programa para menores) que nos podemos beneficiar sobre todo del refuerzo social que determinados jóvenes se pueden dar sobre otros, sobre algunos temas que son más neutros y generales como, por ejemplo: la educación sexual, la autoestima...

En nuestro centro el consumo de drogas se trata con otro programa que es específico de consumo. Digamos que el centro está organizado en diferentes programas y los chicos van haciendo un itinerario. Por ejemplo: los que tienen problemas de drogas hacen este programa, hay otro programa de tratamiento que dependiendo de la medida hacen todos o la mayoría (el Programa Central de Tratamiento Educativo y Terapéutico). Pero las drogas se trabajan aparte en otro programa distinto.

M: ¿Consideras que se debería hacer hincapié en el consumo de alcohol en las terapias, o es más importante abordar otros aspectos, como, por ejemplo, la educación sexual, empatía, etc.?

D: En el programa van los aspectos centrales que hay que tratar en todos los casos. Hay que tener en cuenta que algunos chicos pueden tener problemas con el consumo de drogas, pero otros puede ser que no.

En el centro ahora mismo podemos tener a jóvenes que han cometido agresiones en grupo, individuales, a menores... diferentes tipos de delitos. Entonces, normalmente si tienes un grupo de 4 o 5 chicos donde puede haber 1 o 2 que no tienen una problemática seria con respecto al consumo de drogas.

Otra cosa es que el programa se hace abierto, es decir en esas sesiones hay que impartir los contenidos que allí se ponen, pero también hay un espacio para que surjan otros temas que pueden ser de interés. Si se pueden tratar las drogas a nivel grupal, se tratan. Pero como no es un factor de riesgo común para todos no se puede incluir. Se incluye lo básico que todos sí o sí van a tener que pasar por que es una problemática que se entiende que va a ser común.

M: Entiendo. Al final hay que diferenciar, porque si no... Eso se haría ya en el tratamiento individualizado o sino tratándolo con el problema que tienen otros con el consumo. Separando una cosa de la otra.

D: Claro. Cuando se trabaja el consumo, los jóvenes van al grupo de consumo de drogas ellos no van a hablar de su delito, van a hablar de su comportamiento antisocial en general. Son menores entonces la privacidad hay que mantenerla.

M: Y, ¿Qué áreas crees que debe abordar el programa para que sea eficaz entre los jóvenes? ¿Qué es lo que más influye en ellos, más les hace pensar o cambiar?

D: Hablando del programa en general que incluye el tratamiento individual, grupal, familiar... Bajo mi punto de vista, el punto de inflexión o lo que para mí es lo más importante para trabajar es el reconocimiento del delito y la motivación para el cambio. Estamos hablando sobre agresores sexuales juveniles. Normalmente, hablamos de jóvenes que han cometido su primer delito, por edad suele ser el primero y además son adolescentes, con lo cual estamos en un momento muy bueno para cambiar este tipo de comportamientos. Ellos tienen que darse cuenta de la gravedad de su comportamiento delictivo.

Un denominador común es la negación del delito. ¿Por qué? Porque tienen miedo a defraudar a sus padres, a los profesionales que les atienden..., no se fían. Pueden pensar que si lo cuentan eso va a ser peor para ellos, el qué pensaré yo como terapeuta... Hay una serie de condicionantes que hacen que estén continuamente resistiéndose. Para mí es muy importante antes de ponerse a trabajar con un joven e incluirle en el programa grupal y en otras actividades, trabajar en ese reconocimiento del delito y que haya una motivación genuina para cambiar. Para esto no hay que tener prisa, al joven debe quedarle claro que hasta que no reconozca el delito y hasta que no muestre que quiere cambiar no se va a avanzar a otra fase y no va a tener algunos privilegios como salidas, permisos, ni modificaciones de medida... porque si no estaríamos trabajando en una falsedad. Si hay que estar 2 meses, 3, 6 o 7 en esa fase, sin prisa hay que estarlo. Para mí eso es la clave.

Una vez que eso se ha conseguido, otro punto clave es el trabajo de la empatía. Siempre y cuando no tengas un perfil de un chico con un perfil psicopático, con el cual no vas a trabajar la empatía de la misma manera, porque podría resultar perjudicial y agravar la conducta violenta, pero esto es una minoría. Con los otros la empatía es un punto clave, y también es un punto que puede cambiar el curso de la intervención. Lo que intentamos trabajar en la empatía es que se den cuenta del daño que han hecho, para intentar que entiendan que son personas que han hecho algo muy malo y que eso tiene consecuencias que a veces son irreversibles. Eso se trabaja mucho. Si esto se hace bien, puedes esperar que el joven en ese periodo tenga un bajón en el estado de ánimo, pueda empezar a tener pesadillas... ese tipo de cosas. Se trata de destruir todos los esquemas que se había hecho para justificarse a sí mismo.

Una vez que eso se consigue, una vez que el joven está pasando esa crisis que se le ha provocado con la intervención hay que empezar a reconstruir. Hay que ayudar a reconstruir su

personalidad, que entienda que puede hacer cosas positivas por los demás... Que quizá no va a poder pedir perdón a la víctima pero que puede dedicar el resto de su vida a hacer cosas buenas.

Trabajamos sobre todo haciendo intercambio de roles, por ejemplo: les pedimos que relaten los hechos, luego que relaten los hechos como si fueran la víctima. Posteriormente, les pedimos que hagan una carta a la víctima, que hagan como si fueran la víctima y que les conteste a ellos (...). El caso es trabajar mucho ahí y si eso se consigue es realmente cuando se ve un cambio.

Para mí los dos puntos clave son esos la asunción del delito y el trabajo de la empatía.

M: Vale, que bien. Pues bueno, supongo que esto estará escrito en el programa, pero ¿qué tasa de reincidencia se puede apreciar después de la aplicación de este programa? No sé si habréis hecho alguno calculo o si tendréis datos sobre ello.

D: Aquí tenemos un problema, es el talón de Aquiles. Al ser menores, son dependientes de la Administración Autonómica. Resulta que luego, cuando los chicos cumplen las medidas (que suelen ser medidas largas, de más de un año o dos o incluso más) la mayoría ya son mayores de edad. De tal manera que si luego cometen un delito dependen de la Administración Estatal, de las Instituciones Penitenciarias por lo que no tenemos datos. Solo tenemos datos de lo que nos puede llegar durante la libertad vigilada por que cometen un delito... pero no son datos fiables.

Conozco un caso porque reincidió en un permiso, pero habrá alguno más de los que no tenemos conocimiento. De hecho, luego las prisiones tampoco se enteran. Por ejemplo, hace poco hablé con una prisión por que me preguntaron por un joven y les dije yo que ese chico ya había cumplido una medida de menores por un delito de agresión sexual. Tampoco tienen acceso al expediente antiguo de menores y eso es un problema.

Por tanto, no te puedo contestar porque no lo sé.

M: Estaría bien enlazar los datos de un lado a otro. Es muy complicado al final, pero...

D: Lo que faltan es estudios. Llevaría años, pero lo que habría que hacer es hacer un estudio longitudinal.

Los que llegan a nuestro centro son una minoría, pero hay muchos delitos contra la libertad sexual que no pasan por centros. Son medidas de libertad vigilada por que son delitos en los que no media violencia o delitos de abuso... De hecho, la mayoría, yo creo que son de medio abierto. Hace poco entró un chico porque no cumplió la libertad vigilada y el delito era de agresión sexual, pero le habían puesto libertad vigilada y como no la cumplió entro a nuestro centro. Hay delitos con la suficiente gravedad como para que se aplique el internamiento, pero que no se hace.

Volviendo al estudio, habría que hacer un estudio serio y coger a la Fiscalía y a los jóvenes que cometen este delito y hacer un estudio longitudinal cuando cumplen la medida y a lo mejor, pues cinco años después. Pero yo no lo he hecho y no lo conozco si lo ha hecho alguien.

M: La verdad que en textos que he ido leyendo, la mayoría que hacían estudios era más en Estados Unidos, más en el extranjero que aquí.

D: Aquí en España no. Mira, ya tienes una idea si te quieres dedicar a esto. El problema es que los estudios longitudinales son caros y llevan como diez años de tu vida. Pero luego después triunfas si lo sacas adelante.

M: ¿Crees que habría que hacer alguna mejora para la optimización del programa? ¿Crees que se podría mejorar algún apartado?

D: Sí. Creo que a la parte grupal habría que darle una revisión y plantear otras actividades un poco más estructuradas. Y luego, en cuanto a la parte individual creo que habría que intentar hacer una guía, teniendo en cuenta que la terapia individual no se puede programar de una manera tan concreta. Se podría hacer una guía con objetivos y algunas actividades para poder implementarlo con los jóvenes. Y la parte familiar.

Nosotros lo hacemos, y creo que en el centro lo hacemos bien, pero podría hacerse por escrito y estructurarlo de la mejor manera posible.

M: Me llamo la atención que este programa solo se aplica en Madrid. Por ejemplo, aquí en el País Vasco en el centro de Zumárraga que es de régimen cerrado no se aplica ningún programa específico.

D: Bueno seguramente se aplique, pero no estará por escrito.

El tema es que en menores casi todas las Comunidades Autónomas tienen transferidas las competencias de justicia (menos Castilla León, Castilla La Mancha y alguna otra). Igual que en prisiones esta Instituciones Penitenciarias que controla todo menos en Cataluña. En Madrid cada administración hace lo que considera. En la entidad pública en Madrid, el organismo que se dedica a supervisar las medidas judiciales es la ARRM (Agencia para la Reeducción y la Reinserción del Menor Infractor). Cada Comunidad Autónoma tiene su organismo, su entidad. Como esos organismos tienen competencias para ejecutar las medidas según consideran, pues aquí en Madrid esto coincidió con que a mediados de la década pasada hubo una persona que estaba como Jefe de Área de Estudios y Programas que se dedicó (y se está dedicando todavía) a intentar estructurar toda la intervención que se hacen en los centros. Por eso sacaron este programa para agresores sexuales, el programa de maltrato familia... Se ha creado también la herramienta PREVI-A que es una para la valoración de riesgo. Con la colaboración de distintas universidades (Universidad Complutense de Madrid, fundamentalmente) se han ido haciendo estos programas que se aplican y están colgados en la web por lo que cualquier persona o entidad que quiera aplicarlos lo podría hacer. Pero tiene que ser la propia Administración Autonómica la que diga lo que se va a aplicar y lo que no.

(...)

Lo que yo creo que tiene que haber es una cierta estructura, es decir, que se sepa hacia donde se va. Como ejemplo, el programa de prisiones me parece muy bueno y completo. Con ese programa nosotros trabajamos a nivel individual, sacamos ejercicios, ejemplos, tareas... Resumiendo, lo importante es que no se trabaje sin ningún criterio con objetivos y con un método de intervención.

M: Hoy e añadido una pregunta, que es para saber tu opinión. ¿Crees que podemos hacer frente a este fenómeno? Según datos que he ido analizando año tras año ha ido subiendo el número de casos.

D: Bajo mi punto de vista como todos los problemas de nuestra vida, con educación, educación y más educación lo más tempranamente posible. Nosotros hacemos el trabajo de reeducar y trabajamos con personas que ya han tenido un comportamiento disfuncional que hay que corregir. Pero cuanto mejor seamos capaces de intervenir de una manera más centrada temprana, mejor.

¿Cómo se interviene? Educando en igualdad, educando en valores. Entendiendo que tanto los padres como los colegios tendremos que hacer un trabajo. Debemos educar a los niños y tendría que haber unos valores, mínimos que compartamos todos como sociedad: la igualdad, la no violencia, la libertad sexual... Hay que trabajar tanto con los niños como con las niñas en que todos seamos libres.

El mínimo indicio de ese tipo de valores que luego van a ser los que justifican las agresiones, hay que intervenir con velocidad. Hasta que no hagamos eso los delitos seguirán. Podríamos reeducar mejor, pero como sociedad no vamos a mejorar si no trabajamos en la educación.

Hay una serie de valores que están muy arraigados. Nos movemos en el ámbito de lo políticamente correcto y de cara a la galería todo el mundo entiende que hay cosas que ya no se pueden decir. Pero luego, en el ámbito privado de la familia o en el ámbito más íntimo no hemos cambiado tanto como sociedad. Y creo que siguen persistiendo unos valores de justificación de las agresiones, de machismo... que los siguen transmitiendo. Lo que pasa es que, en la televisión, en los medios está todo muy censurado y no sale; pero no creo que no salga por que no exista, sino que lo tapan.

Nos tenemos que educar como sociedad y saber que hay cosas que son intolerables y que no se pueden justificar bajo ningún concepto. Educar a los niños desde pequeños en igualdad, en el respeto y así evitar que estas cosas surjan.

Samara Velte-ri elkarrizketa

Maddi: Agurtzea... Hau ez nizun bidali, baina bueno zure aurkezpen labur bat egin ahal didazu? Horrela gero sarrera txiki bat egiteko.

Samara: Bai. Liburu honen testuinguruan ni izan naiz Berriako kazetaria 2018 urtera arte, aurreko zortzi urtetan. Liburua idatzi nuen Berriako kazetari nintzela, Gizarte Sailean nengoen momentu

horretan eta horregatik enkargatu zidaten niri gai horri heltzea. 2018 bukaeran utzi nuen, eta gaur egun EHUn nabil doktoretza egiten, ikerlari bezala bertan lanean. Orduan, bi eremutan aritu naiz kazetari bezala eta orain ikerlari bezala baita ere.

M: Bale. Hori zen. Bestela ikusi dut zure liburuan atzeko tapan dagoela zure deskribapen txiki bat.

S: Bai gutxi gora behera.

M: Bueno, zer dela eta erabaki zenuen “Nik sinesten dizut” liburua idaztea? Edo zerk bultzatu zizun hau idaztera?

S: Bale, bueno lehenik azalduko dizut liburuan testuingurua zein den, hau da, nondik sortu den zeren eta enkargu bat izan zen. Ez da iniziatiba propioz sortzen den gauza bat. Berriak, Jakinek eta Elkarrek editatzen dute elkarlanean *Aleka* deitutako bilduma bat eta normalean dira kazetaritzako liburuak gai bat hartzen dutenak kontsideratzen dena garrantzitsua dela Euskal Herriko gizartearentzat edo relevantzia eduki duena; nolabait horri eman nahi zaiolako arreta handiagoa; sakondu edo landu nahi delako. Ez da tematika jakin bateko linea edo bilduma bat, baizik eta denetik landu da: hasita desarmetik, Ekialde Hurbileko egoeraraino, Nafarroako aldaketa... eta normalean gaiak erabakitzen (...) dute talde edo Konsejo Direktibak. Kazetari bati eskaintzen edo eskatzen zaio liburu hortaz arduratzeko.

Neri etorri zitzaidan proposamena Iruñeako 2016ko San Ferminetako talde-bortxaketari buruzko liburu bat idazteko. Beraien intentzioa edo abiapuntua hasiera batean zen batez ere protesta oso masiboak eragin zituela gertakari arek, jende asko inplikatu zuela neurri batean eta nolabait horrek merezi zuela azterketa sakonago bat jendeak bere burua hor identifikatuta ikusiko zuen lan bat.

M: Bai.

S: Proposamena iritsi zitzaidanean, gai oni buruz askorik ez nekien egia esan. Saihestu egiten nuen gaiari buruzko informazio dezente, iruditzen zitzaidalako egiten ziren kobertura gehienak oso morboak zirela eta ikuspegi feminista batetik benetan ez zutela ematen inolako tresnarik ulertzeko zer dan biolentzia matxista, eta gutxiago jarrera kritiko bat hartzeko. Protestak bai asko, baina mami nahiko gutxi hausnarketarako komunikabide askoren partetik.

Eta hor hasi nitzen gaiari bueltak ematen eta konturatu nintzen seguruenik behar zela kontra narratiba feminista bat gertatutakoari begirada kritiko batez helduko ziona. Orduan, abiatzen naiz galdera batetik: zergatik erasoak askotarikoak eta hain ohikoak baldin badira (*erasoak etengabe gertatzen dira, eraso sexistak edo baita ere sexu-erasoak bezala ezagutzen diren horiek*) ez gara hari etengabe mobilizatzen? Zergatik batzuetan mugitzen garen masiboki, zergatik batzuetan erabakitzen dugun hau oso garrantzitsua dela gizartearentzat eta goazen kalera!; baina gero emakume bat hiltzen dute eta Donostiako Bulebarrean ez daude 200 pertsona baino gehiago salatzen. Ze faktorek eragiten dute edo buruko ze eskema aktibatzen ditugu nolabait gertakari baten aurrean posizio bat hartzeko edo ez. Horrek eramaten nau, aldi berean, normalean

ikusarazten ez den kapa horietan arreta jartzen. Alegia, nolabait eraso fisikoaz harago saiatzea ulertzen zeintzuk diren momentu horretan jokoan sartzen diren edo aktibatzen diren inplikazio sozial guztiak, kulturalak, sinbolikoak, diskursiboak... Jokoan sartzen direnak guk eraso batei buruzko balorazio bat egiteko garaian. **Ikusten nuen egitura hori edo azpiko alderdi ikusezinak zirela benetan eraso guztiak konpartitzen duten elementua.**

Jartzen badugu begirada bakarrik azaleko gauzetan, momentuko zirkunstantzietan, eraso bakoitzari topatuko diogu esplikazio propio bat, bakoitza izango da salbuespen bat eta ez digu lagunduko benetan ikusten zenbateraino den **arau** bat gizartea zeharkatzen duen biolentzia matxista hori. Hitz egiten baldin badugu biolentzia matxistaz gizartearen oinarritik bertatik sortzen den zerbait bezala eta hainbat adierazpen bezala, baina funtsean mekanismo berdinetatik datorrena eta mekanismo berdinak aktibatzen dituena. Begirada elementu horietan jarri behar dugu, kritika hortik bideratzen duena.

Eta hori da bortxaketaren kultura deitzen zaiona. Askotan esaldi batzuk orokortzen dira, baita ere mugimendu feministaren barruan eta ez da denbora hartzen esplikatzeko zer dan. Baina, bortxaketaren kulturaz ari garenean horri buruz ari gara, nolabait biolentzia hori normalizatzen, naturalizatzen edo justifikatzen duten elementu kultural horiek denak sinbolikoak izan daitezkeenak, diskursiboak... (...) Baita (...) estereotipo pila bat. Hori zen nire abiapuntuko intentzioa, fokoa hor jartzea.

M: Egia da. Arrazoa duzu. Gauzak hartzen ditugu bakarrik gertaera bezala, hau gertatu da eta listo. Ez dugu sakontzen bestelako kontu ezberdinetan.

S: Nik uste dut hor, adibidez, elementuen inguruko eztabaidan (...) da sinesgarritasunaren auzia. Alegia, eraso bat gertatzen den momentutik aurrera, bataila nagusia da zeini aitortzen dien sinesgarritasuna. Sinesgarritasuna gauza oso lausoa da, oso subjektiboa. Nola baloratzen da figura baten edo bestearen sinesgarritasuna? Hor oso kontziente izan behar dugu (...) bestelako joeretz, konturatzeko seguruenik sinesgarritasuna baloratzeko garaian ere badugula horrelako sesgo garrantzitsu bat, sinesgarritasunak zerikusia duelako autoritatearekin. Kuestionatu behar dugu autoritatea zeini aitortu izan zaion historikoki eta sozialki gure gizartean. Errealitatea da orokorrean gizonezko baten hitzak sinesgarritasun askoz gehiago duela sistematikoki, gizarte patriarkal batean. Nolabait patriarkatuak behar duelako ere... bueno, patriarkatua definizioz da horrelako botere harreman bat eta biolentzia guzti hau dator botere harreman horretatik.

Edo, baita ere konturatu zenbateraino daukaten indarra gure buruan ikasitako irudi edo estereotipo batzuek zerikusia daukatenak gizon eta emakumeen jokabideei buruzko topikoekin. Adibidez: emakumeen inguruan gure gizartean dago "putaren" irudia, eta oraindik izugarritzko pisua dauka. Edo emakume manipulatuarena, sexua erabiltzen duena bere alde mesederen bat lortzeko; emakume despetxatuaren irudia baita ere... hauek denak ez dira egunero berbalizatu behar, hain kulturalak dira eta hain erroturik daude askotan nahikoa dela hauek iradokitzearekin hori aktibatzeko. Denok konpartitzen ditugun esanahi batzuk direnez indar handia hartzen dute. Hori gero ikusten da, adibidez, eraso bati buruz ateratzen diren albiste

askotan edo sententzietan figura horiek agertzen dira berriro... adibidez, Manadaren kasuko sententzian boto partikularraren tesi nagusia zen topiko guzti hauen zerrenda bat: emakumeak berak probokatu zuela egoera, erabili zituela nolabait bere momentuko desioak asetzeko, gero ez zela ondo tratatua sentitu, hau da, “ez zela caballerosamente” tratatua sentitu eta despetxoz erabaki zuela salaketa jartzea.

Nolabait irudi horiek, hor daude ez berbalizaturik baina ber aktibatzen dira gure iruditeri kolektiboan eta horregatik dute horrenbesteko indarra. Eta aldiz, bestaldera, badaude irudi batzuk gizonen sexu jokaeraren inguruan oso ikasita ditugunak, adibidez: gizonezkoen instinto animalaren topikoa (ezin dutena kontrolatu). Honek ere azpi mezu bat dauka: baldin badakizu horrela direla eta denok asumitzen baldin badugu errealitatea horrela dela hori saihesteko ardura norberarena da.

Manada metafora orokortzea ere nire ustez hortik doa, ber aktibatzen da horrelako iruditeri bat non eraso naturalizatzen den, konparatzen direlako erasotzaile batzuk gauza erabat soziala egin dutenak momentu horretan: momentu horretan zeukaten erabateko boterea eta hau baliatu dute beste pertsona bati kalte egiteko, beste pertsona bat dominatzeko. Zergatik? Pentsatzen zutelako ez zitzaizela inolako ordainik etorriko, ez zituztela harrapatuko. Orduan, ez da pertsona hauek animaliak zirela (erasotzaileen inguruan askotan monstruaren irudia zabaltzen da), ez da ez zituztela ezagutzen gizarteko arauak edo munstro kontrolaezinak zirela, ez, oso ondo kontrolatzen ziren. Arazoa da momentu horretan beraien botere egoeraz oso kontziente zirela eta inpunitate egoeraz baita ere, eta hori aprobetxatu zutela kontzienteki.

Nik fokua jartzen dut askotan hitz egiteko daukagun moduetan, honek, uste duguna baino askoz ere gehiago esaten digulako nolabait ikasita dauzkagun estereotipo guzti horietaz, gainean daramagun motxila patriarkal horretaz askotan ez garena oso kontziente.

M: Bai. Orain hitz egin didazula pixka bat La Manadaren inguruan, orokorrean, talde sexu-erasoen fenomenoaren inguruan zer esango zenuke? Zein balorazio egingo zenuke?

S: Nik uste dut kontu handiz ibili behar dugula, batez ere Iruñeako kasuaz geroztik ematen duelako sortu dela horrelako kategoria bat foko mediatikoa asko xurgatzen duena, eta gure arreta ere horra eramaten duena, “Las Manadas”. Gertatu izan zait liburua ateraz geroztik, sektoreko lankide batzuek beraien erreportajeetarako laguntza eske (...). Beraiek jada oso eginda zeukaten eskema bat: eraso kategoria bat zegoen “Las Manadas”, eta kategoria hori gainerako indarkeria matxistaren kasuetatik erabat aparte zegoen. Gainera, bazeukan ezaugarri batzuk beraiek jarri zizkietenak: normalean erasotzaile fisiko batekin baino gehiagorekin, espazio publikoan... eta askotan, erabakita daukate erasotzaile hauek gazteagoak direla. Oso kontuz ibili behar dugu, zeren kategorizazio hauek askotan dira ikusi nahi ditugunak. Biolentzia matxistak dituen espresio infinitu guzti horietatik batzuk tartekatzen ditugu eta gure buruan kategoria bihurtuko dira, baina horrek ez du esan nahi bere horretan bereizten direnik edo funtsean gehiegi bereizten direnik bestelako erasoetatik.

Nik beti esaten dut, erasoen taldeko faktoreari buruz hitz egin behar baldin badugu kontuan izan behar dugula baita ere bestelako eraso askok ere zenbateraino duten taldetasun faktore hori. Adibidez, eraso arrunt edo ohikoagoetara jotzen baldin badugu (...) Gainera egia da Manadaren iruditeria horrek izugarritzko beldurra eragiten duela, izuaren diskurtsoa edo terrore sexualaren diskurtsoa areagotzen du; ondorioz, batzuetan iruditzen zait ere paralizantea izan daitekeela boteretzailea izan beharrean. Baina aldiz, fokoa jartzen badugu askoz ohikoagoak diren erasoetan, adibidez: tabernetako intimidazio egoerak edo el “*tipico pasillo*” tabernetan egin izan dena (mutilak jarri ilaran eta aprobetxatu ukitzeko bertatik pasatzen den guztiari. Hauek denak ere taldean egiten diren erasoak dira.

Intimidazio egoera batek gehienetan dauka ingurunearen gutxieneko konplizitate bat. Alegia, gerta daiteke erasotzaile batek erasoak bakarrik egitea, baina ia beti egongo da bere ingurune fisikoan edo bere ingurune psikologikoan (batzuetan gertatzen da bere buruan dagoela bere legitimidade hori) eraso hori babesten duen elementuren bat. Hori bilatu behar da.

Familietan gertatzen diren bortxaketak (umeeekin edo familiako kide gazteekin); zenbat familietan isiltzen da gertatzen dena taldearen bakearen mesedetan... horrek ere badu elementu kolektibo bat. Orduan, uste dut horrekin oso kontuz ibili behar dugula ez sortzeko kategoriatu bat dena alde batetik, oso morbosoa, gainera izu sexualaren mitoa edo diskurtsoa elikatzen duena...

Konturatzen baldin bagara, bortxaketak edo bortxatzaile idealaren irudia aldatzen doa denborarekin. Garai baten etxerako bidean izkinan itxaroten zizun tipo ero hori zen, aurpegiak gabekoa, gainera botako zitzaizuna bat batean eta ezingo zenuena ezer egin. Gero, igogailuko bortxatzailea. Ondoren, auto stoppean jasotzen zintuen eroa izan zen. Eta orain izan daiteke parrandan edo hondartzan gainera botatzen zaizun “manada”. Beti fokalizatzen da biolentzia horrelako figura oso extremo eta beldurgarrietan. Horrek nolabait badauka efektu paralizante bat.

(...) Irakurri duzu Nerea Barjola-ren “*Microfisica sexista del poder*” liburua? Oso ondo azaltzen du hor nola funtzionatzen duen horrelako mekanismo horiek ikuspegi antropologiko batetik. Gomendatzen dizut.

M: Bale, apuntatuko dut.

S: Esan nahi dudana da eraso gehienak ez dira: labanakin mehatxatzen zaituztela kalean, eraso gehienak ez zaizkizu gertatuko etxeko igogailuan... Eraso gehienak gertatuko zaizkizu edo askoz aukera gehiago dauzkazu zure lagunartean gertatzeko, zure ohiko tabernan edo zure bikotean. Baina horretarako ez gaituzte prestatzen, falta da nolabaiteko diskurtso pila bat horretaz kontziente izateko. Eta, aldiz, esplotatzen dira irudi batzuk izu sexual hori areagotzen dutenak.

Nik uste dut kontuz ibili behar dugula kategoriatu horiek sortzerakoan eta kontziente izan biolentzia matxistaren alderdi kolektibo hori oso zabala dela. Soziala den neurrian izan daitekeen gauza kolektiboena da. Gizarte oso bat daukagu biolentzia hau normalizatzeko joera duena eta hor jarri behar dugu fokoa.

M: Bale. Hala ere, egon naiz datuak jasotzen eta bai 2016tik (datuak data horretatik aurrera jasoak izan dira) eta ikus daiteke gorakada handi bat horrelako kasuetan. Ezagutzen direnak behintzat gehiago dira, agian jendea gertatukoa salatzen ausartzen delako.

S: Hori esan behar nuen. Datuak ere oso tranposoak dira, azkenean erregistratzen dituzu edo ez dituzu erregistratzen, nola erregistratzen dituzu... kategoria bat ez bada existitzen seguruenik existitzen den momentura arte beste era batean kontabilizatuko litzateke.

Nik ez dut sinesten argumentu horretan esaten duena Iruñekoaz geroztik ugaritu direla kausa-efektu baten ondorioz. Hori esateak inplikatu luke premisa bat niretzat oso tranposoa dena, esatea nolabait Iruñekoak inspiratu dituela beste erasotzaileak eraso horiek egiteko. Alegia, orain bat-batean konturatu izango balira gizonak taldean boteretsuagoak direla edo taldean errazago dominatu dezaketela beste pertsona bat. Horrek ez dauka oinarririk, denok dakigu taldean indartsuago garela eta hare gehiago gizonei hori gizarteak bizitza osoan esan die. Orain asumitzea bat-batean horretaz konturatu direla 2016koaz geroztik pixka bat "naif" iruditzen zait.

Hare gehiago, logikan sartuko bagina pentsatzea zigorrik gabe geldituko direla 2016koaz geroztik ez dauka zentzurik, 2016koak zigor oso handiak jaso zituztelako. Ez dut uste horrekin inork lezio berririk ikasi zuenik, erasotzaileen ikuspegitik behintzat. Ez da transmititu ziela "hau egitea daukat eta gainera zigorrik gabe geldituko naiz, aprobetxatu egingo dut" edo "hau egitea neukan eta nola ez zitzaidan bururatu taldean joan ezkerro arriskutsuagoa izan nintekenik".

Orduan, logikagatik bakarrik nik baztertuko nituzke horrelako argumentuak nahiz eta badakidan tentagarriak direla: Fenomeno bat dela esatea, zabaltzen ari dela, dei efektu bat ematen dela... munduan zabaltzen ari den zerbait izango balitz bezala. Uste dut gure buruari tranpak egiten ari garela eta kontuz ibili beharko genukeela. Pentsak ere askotan egiten du eta nik ere abisatu izan diet lankideei hortaz.

M: Bai, arrazoi duzu. Ez nuen... batzuetan falta zait gauzei bi buelta ematea, ez bakarrik bat eman eta horrekin gelditzea. Ez dakit esplikatzeko naizen. Bueno, orain taldeen inguruan hitz egiten ari garela, jarraituko dut honekin eta gero bueltatuko gara beste galdera batzuetara. Talde sexu-erasoetan erasotzaileak euren portaera gehiago justifikatzera eramaten dutela uste duzu, taldean jarduteagatik soilik?

S: Bai, nik uste dut zentzu kolektiboak beti ematen diola legitimitate zentzazioa eraso egiten duenari eta honek balio du eremu guztietarako, biolentzia politikoaren kasuan ere (...).

Eraso bakoitzaren atzean, konturatu behar dugu dagoela diskurtso bat eraso hori justifikatzeko duena. Alegia, inork ez luke eraso bat egingo ez balu usteko arrazoi bat daukala hori egiteko. Arrazoi horrek eduki dezake baliozkotasuna bere buruan bakarrik, edo bere inguruko taldean. Adibidez, baldin bada talde bat ideia politiko batzuk partekatzen dituena eta horien artean sortzen baldin bada adostasun bat non ulertzen den biolentzia hori legitimoa dela, horrek jada funtzionatzen du biolentzia horren normalizatzaile eta justifikatzaile bezala. Edo izan daiteke adostasun zabal bat dagoela gizarte osoan zabaltzen denean justifikazio hori.

Guri zer gertatzen zaigu biolentzia matxistaren inguruan ari garenean? Solapatzen direla, nik uste, alderdi asko. Alde batetik, erasotzaileak berak bere testuinguru inmediategatik sentitu dezake egiten duen hori legitimoa dela. Beti daude hor erasotzaileen diskurtso horiek “neure zen”, “probokatu egin zidan”, “ez zuen ezetz esan”... guzti hauek dira nolabait diskurtso justifikatzaile horren parte, eta bere buru barruan horrek funtzionatu dezake.

Tratu txarren kasuan ikerketa oso interesgarri bat Rita Segato argentinarrak egin zuen. Berak jada kondenaturik zeuden bortxatzaileak elkarrizketatu zituen (ez zeukaten galtzeko ezer) eta saiatu zen identifikatzen zeintzuk ziren beraien buru barrutan aktibatzen ziren mekanismo horiek. Konturatu zen beraien buru barruan zegoela horrelako mezu bat, zigortu nahi bat... beste alde batetik, ere demostratu nahi bat beraien buru barruko ustezko beste gizon batei. Maskulinitatearen mandatua betetzeko borondate bat.

Baldin badaukagu talde fisiko bat inguruan eta talde horretan inork ez badizu geldiarazten edo kontrakorik esaten, ados baldin badaude momentu horretan legitimoa dela eraso hori egitea seguruenik ere eraso hori gertatzeko aukera gehiago izango dira. Iruñeako kasuan taldeko batek momentu baten esan izan balu “gelditu”, seguruenik ez litzateke horretaraino iritsiko, kuestionamendu bat dagoelako.

Maila sozialean ere, nik uste dut horretaz kontziente izan behar garela, alegia, gure gizarteak dauzka izugarri mekanismo pila bat biolentzia matxista justifikatzeko edo naturalizatzeko behintzat. Eta naturalizatzea nerretzat justifikatzea da baita ere. Agian ez oso modu esplizituan baino... adibide sinpleena jartzeagatik: lagun bat etortzen baldin bazaizu esanez eraso bat sufritu duela taberna batean (mozkorra zegoela eta ez dela ondo gogoratzen) eta gure lehenbiziko erreakzioa baldin bada, gehiegi pentsatu gabe “neska baina zer egiten zenuen ordu horietan, bakarrik hor?” Galdera horrekin bakarrik ari gara normaltzat jotzen toki batzuetan ordu batzuetan eraso bat geratzea normala dela, eta nolabait ari gara inplikitzen zure ardura dela hori saihestea badakizulako hori dela normalitatea egoera horietan.

Badaude ikasitako topiko asko ulertarazten digutenak erasoak normalitatearen parte direla. Izan daiteke hori, gizonen instintu animala “badakizu nola jartzen diren, badakizu nolakoak diren”... horrelako diskurtso horiek naturalizatzaileak dira. Horrek guztiak sortzen du kontsensu sozial bat baita ere eta horrek guztiak ahalbidetzen du hori gertatzea.

Honek ari pila bat ditu. Sartzen baldin bagara harremanak ulertzeko dugun moduan, konsentimentuaren ideia bera ere... Orain ulertzen dugun bezala, alde bat bada bakarrik aktiboa, inizatiba hartu behar duena eta besteari dagokio onartzea edo uztea. Hori da ain konpartitutako ideia bat, baina aldi berean da ideia bat erasoei atea irekitzen diena. Ez baldin badugu horrelako gauza negoziatu bezala planteatzen, seguruenik errazago izango da pentsatzea eraso bat dela “ari zen ari zen saiatzen eta momentu baten eskuetatik joan zitzea”. Eta horrelako tranpa asko dauzkagu oso konpartituak direnak eta neurri baten normalizatzen dutenak eraso hori gertatzea. Uste dut erasotzailea zenbat eta seguruago egon biolentzia hori erabiltzea legitimoa dela inguruak horrela diolako eta bere buru barruan mezu horrek horrela funtzionatzen duelako (...).

Gerretan adibidez oso legitimoa da biolentzia erabiltzea, baita biolentzia sexista ere boterearen sinbolo gisa, ez daukate zerikusirik desioarekin. Hau erabiltzen da erakusteko kontrako bandoa dominatu duzula, eta momentu horretan daukazu legitimitate absolutua. Hau da, zure estatu guztiak babesten zaitu momentu horretan.

Zenbat eta zabalagoa izan babesten duen kolektibitatea, esplizituki edo inplizituki, nik uste dut baietz inpuneago sentitzen direla.

Alkoholaren kontsumoarena bada elementu horietako bat gure gizartean oraindik naturalizatzeari bezala funtzionatzen duena: alkohola, drogak, festa, parranda giroa... Giro baten inguruan hitz egingo nuke, ez elementu zehatz bati buruz. Gau giro horretan normalagozat jotzen da eraso bat gertatzea eskola edo unibertsitate batean baino. Beharbada horregatik hitz egiten da askoz errazago esparru horretan gertatzen diren erasoez besteez baino. Soka handi bat delako onartzea beste esparru batzuetan, familian edo elizan ere gertatzen direla erasoak.

M: Baina, azkenean uste dozu baita ere gizarteak gehiago justifikatzen dituela “bai edanda zegoen, eta bueno pixka bat joan zitzaion”.

S: Nik uste dut elementu batzuek eskaintzen diote logika moduko bat gertatu den hori esplikatzeko. Seguruenik kontzienteki galdetuko baldin bazeneuke justifikatzen duzu inork ez luke esango “bai justifikatzen dut eraso horrela izan zelako”. Baina inkontzienteki, gure eskema kultural horietan horren errotuta dauzkagun horietan seguruenik gutxiago eskandalizatzen gaitu edo eskemak gutxiago puskatzen dizkigu horrelako testuinguru batean gertatzen baldin bada. Errazago atera daiteke biktimarekiko kuestionamendua... eta oraindik ateratzen da.

Eskolatik ateratzean egiten dizuten eraso batean imajinatzen dut gero zure jokabidea gutxiago kuestionatuko dela. Aldiz erasotu baldin bazaitute goizeko bostetan taberna batean dantzan zinenean, bakarrik, mozkortuta seguruenik askoz ere lehenago aterako zaizkizu kuestionamendu horiek galdetzen “baina zer egiten zenuen hor”, “ze jokabide zeneukan”, “zergatik ari zinen horrela portatzen”... probokazioaren topiko horretarako espazioa handiagoa da. Eskolatik ateratzerakoan inork ez dizu kuestionatuko zer egiten zenuen bertan ordu horietan, egon behar zenuen tokian zeundelako.

Guzti honek azpitik ere dauka feminitatearen mandatua, hau da, ze espazio dira gureak eta zeintzuk ez dira. Segun eta ze espaziotara ateratzen garen, segun eta ze jokabide hartzen ditugun direnak nolabait ezarritako idetik ateratakoak nolabait arriskatzen gara biolentzia hori sufritzera.

M: Beno, jada kendu ditugu azpi galdera hauek... Bat zen biktima mozkortuta egoteagatik ea berari errua botatzen zaion, eta azkenean orain erantzun didazu. Hirugarren galdera bezala, zuk zela definituko zenukeen ikuspuntu juridikoa alde batera utzirik sexu-erasoa eta bortxaketa? Eta zein bereizketa nagusi dagoen zure ustez honen bien artean, edo ez dagoen.

S: Nik ez nuke bereizketa gehiegirik... Egia da ni ez naizela legegilea, ondorioz ez naiz sartzen gauzek daukaten alderdi praktikoan zigor prozesuaren ikuspegitik. Baina ikuspegi

feminista batetik iruditzen zait bereizketa nahiko tranposoa dela, hare gehiago oraintxe bertan edo orain arte legeak egiten zuen abusua eta eraso arteko bereizketa hori... Hor badaude hainbat teoriko proposatzen dutenak sexu elementua ateratzea ekuaziotik, eta horrekin nahiko ados nago. Uste dut bideak hortik joan behar duela, alde batetik dominaziozko delitu batei buruz ari garelako sexualitateak zerikusia dauka beste esfera batekin: desioaren esferarekin, inizatiba partekatuekin... askatasunezko mundu batera eramaten gaitu definizioz. Eta aldiz, hemen dominaziozko delitu baten inguruan ari gara. Elementu sexuala nahasteak uste dut askotan hartzen dizkiogula interpretazio eta komunikazio arazo pila bat. Eta gainera, sortzen ditu ere lotsa asko, estigma asko mundu oso intimu batekin lotura duelako... uste dut neurri batean hortik datozela. Zuk sufritzen baldin baduzu eraso bat, lapurreta bat justu dirua ateratzera joan zarenean inork ez du lotsarik sentituko eraso hori sufritzeagatik, ez du bere burua kulpatuko esanez "agian ez nuen dirua ateratzera joan behar". Ez da sortuko horrelako diskurtso tranposorik esaten duena "hasi zen gauza bat bezala, hasieran dirua ateratzera joan zen baina momentu batean eskuetatik joan zitzaion eta lapurreta bat sufritzen bukatu zuen". Eskema guzti hauek ez daukate zentzurik bestelako delituen inguruan ari garenean, baina aldiz elementu sexuala sartzen dugunean nahastu egiten zaizkigu eta ondorio batzuk dauzkagu biktimarentzat nahiko kaltegarriak izan daitezkeenak. Argumentu hori aldatuz oso normala da esatea gauza bat desiratua zena (...) hasieran ligoteo bat zen eta bat-batean eskuetatik joan zitzaion eta eraso bat bihurtu zen. Ulertzen baldin baduzu hori kontinuum bat bezala, argumentu horrek logika dauka eta are gehiago biktimari denbora guztiak etorriko zaio burura "zer egin nien nik hori gertatzeko" beste egoera batean sentitzen zenean benetan. Orduan, nik uste dut hortik datorrela. Diskurtsoak hemendik jo behar du: sexualitatearen esfera bat da eta erasoarena beste bat, baina bien artean ez dago kontinuum-ik. Ez zara pasatzen momentu baten harreman negoziatu bat edukizetik bat-batean eraso batera. Eraso egon dadin egon behar du botere harreman bat, konturatu eraso fisiko bihurtu baino lehenago egon dira askoz mekanismo gehiago ez daukatenak aspalditik zerikusirik sexualitate askearen elementuekin. Horregatik, intsistituko nuke asko sexu-erasoak ere ulertzea beste edozein eraso bezala, zure askatasunaren kontrako delitu bat edo kalte bat askatasunari egin zaiona, ez zure gorputzari edo sexualitateari. Horrek ere uste dut lagunduko ligukela pixka bat gai hau zentratzen. Alde horretatik, adibidez, abusuaren eta erasoaren bereizketa hori legeak egiten duena ikuspegi feminista batetik tranposoa iruditzen zait. Gainera, titulua da sexu askatasunaren kontrako delituak (askatasunaren elementua hor dago) baina gero argumentatzen du abusuaren ez dela egon intimidaziorik edo biolentziarik. Zu ez baldin bazara libreki hor egon, nonbait zure borondatea doblegatu zaizu; hor egon da interbentzio bat, deituzko intimidazioa, biolentzia den gauza bat. Ezin duzu iradoki pertsona hor borondatez zegoela (...) Oso tranposoa da askatasunaren aurkako delitu batei buruz ari bagara.

Badaude nik baino askoz ere gehiago dakiten teorikoak eskatzen dutenak delitu hori beste era batera idazteko.

M: Gero dago azkenean, zuk esan bezala "delitos contra la libertad e indemnidad sexual" eta lehenengo kapituluaren dirua "agresiones sexuales". 178. Artikulua izango litzateke orokorra eta 179.

Artikuluaren bortsaketarena (honetan dago acceso carnal por via vaginal, anal o bucal). Hor dago bereizketa nagusia. Bereizketa horrek ze inplikazio ditu edo izan ditzake gure gizartean?

S: Alde batetik, azaldu dudak moduan egiten duela salto argumentatibo nahiko tranposo bat eta uste dut ere zerikusia duela erasoak mailakatzeko dugun joerarekin. Mailakatzen ditugu ez sortu duten kaltearen arabera baizik eta askotan gure gizarteko moralean sortzen dituzten zirrikituaren arabera. Sarketa inplikatzen duen eraso bat oso eskandalagarria da gizartean hausten duelako emakume onraduaren irudi hori, zure ohorearen ideia...

Lehenago uste dut Zigor Kode Frankistan jaso zegoela "delitos contra el honor" eta bortsaketa uste dut zela "yacer con mujer honesta en contra de su voluntad". Jokoa sartzen dira emakumearen balorazio batzuk. Historikoki, bortsaketatzen jotzen zen baldin eta eraso egiten baldin bazitzaion ezkonduko emakume bati edo familiaren babesean bizi zen bati; baina prostituta bati bortsaketa egitea ez zen kontatzen bortsaketa bezala, hori abusua zen... Onartutako botere harreman baten "pasa egin zara" (...) Hori bere liburuan Adela Asuak azaltzen du nahiko sakon.

Esango nuke oraindik mailaketa horrek badituela hortik oihartzun asko, hau da, kontsensu oso zabala dago gertatu al zaizun okerrena sarketa bidezko bortsaketa bat dela esatean eta beste eraso asko berdin mingarriak izan daitezke edo larriagoak (hil al zaituzte). Areago, pixka bat gogorra da esatea baina zenbat bortsaketa ez dira kontatzen baino gertatzen dira bikote artean... Honen inguruan Nerea Ibarzabalek bazeukan zutabe bat oso ona galdetuz "eta zuk zenbat aldiz egin duzu larrutan gogorik gabe?" honekin ez du esan bere bikoteak bortsatu duenik baina zenbat aldiz egon da sarketa benetan negoziatorik gabe, desio askerik gabe... eta bizirik atera gara, ez zaigu horregatik trauma bat gelditu oso normalizatuta daukagun gauza bat delako. Kontuz ibili behar dugu horrelako mailaketeekin sortzen direlako eraso erasoak diran batzuk eta horren eraso ez diren beste batzuk eta ondorioz, hain erasoak ez diren horiek sufritzen dituztenek duda gehiago daukate ea ba ote dagokien salatzea, ea ba ote dagokien laguntza eskatzea, ea euren errua izan ote zen... askoz babesgabeago gelditzen dira.

M: Hau lotuz bostgarren galderarekin, uste duzu legeak egiten duela kale hor bereizketa hori egitean biktima zein erasotzaileak mailakatzen dituelako azkenean. Eta zigortzerakoan, sexu-erasoa dago zigortuta 1-5 urte bitarte espetxe-zigorarekin eta aldiz, bortsaketa 6-12 urte bitarteko espetxe-zigorarekin. Sekulako bereizketa dago zigortzerako unean.

S: Bai. Gai horretan nahiago nuke gehiegi ez sartu ze Zigor Zuzenbidea ez da nire arloa eta egia esan kostatzen zait asko ebaluatzea kartzela zigor baten egokitasuna. Niri kartzela zigor gehienak iruditzen zaizkit luzeak eta gehienak nahiko alferrikakoak.

Biolentzia matxistaren testuinguruan ari garenean espetxeak ez dira inondik inora egitura egokiak egiten behar den lanketa egiteko. Gero dira berrerortze tasa handiena daukaten delituak eta nahi zaigu kontatu bertara sartzen direnak direla bortsatzaile erreformable batzuk, ez munstro batzuk ez dakitenak beste era batera portatzen. Hau gezurra da, ez dira munstro erreformableak arazoa da egitura horietan ikasten dutena dela biolentzia gehiago... alderdi guztietan kuestionatu behar

diren gauza hauek denak, kulturalak direnak sistemarekin zerikusia daukatenak ez direla inondik lantzen; dominazio gehiagon oinarritutako espazioak dira eta normalena iruditzen zait bortxatzaile bat bortxatzaileago ateratzea.

Uste dut, alde batetik pixka bat zintzoak izanda onartu beharko genukeela horrelako kasuetarako kartzelak egiten duen bakarra dela erasotzaileak denboraldi batez apartatu baina ez duela inondik inora tresnarik eskaintzen lanketa egoki bat egiteko. Ondorioz, epe hori bukatzean arrisku berdina sortzen dutela. Uste dut hortik egon beharko lukeela lanketa batek. Beste alde batetik, urte kopurua dela eta imajinatzen dut kriminologiak eta zuzenbideak edukiko duela esplikazio bat baina kanpotik ikusita askotan nahiko ausazkoa iruditzen zait. Edozein kasutan niri espetxe zigor gehienak iruditzen zaizkit luzeak edo luzeegiak.

Ez dakit oso ondo galdera hori nola erantzun. Nik jarriko nuke fokua prozeduretan adibidez, zigorrera iritsi baino lehenago nola eramaten diren aurrera eta ze mekanismo sartzen diren jokoan ebaluazio hori egiteraino. Hor badaukazu sistema bat alde batetik oinarri nagusi bezala duena biktimaren hitzak zalantzan jartzea. Zergatik? Orain diseinatuta dagoen bezala, zu baldin bazara gertatu zaizun eraso horren lekuko bakarra zuri dagokizu demostratzea hori izan dela zuri gertatu zaizun bezala. Gaur egun horretarako dagoen mekanismo bakarra da zu kuestionatzea, hitzez (zu konfrontatuz galdera horiekin) baina baita ere zu ebaluatuz (jokoan sartzen da gure figuraren sinesgarritasuna). Hemen karga subjektibo asko dago. Liburuan adibidez ateratzen ditut horrelako pasarte batzuk San Ferminetako bortxaketaren epailarenak eta sententzian bazegoen horrelako pasarte bat gutxi gora behera datorrena deskribatzera biktimaren izaera (...) Zer gustatzen zaio, nolakoa da, inpultsiboa da edo ez... Eta pentsatzen dut, "bueno, niri zertarako balio dit eraso izan den edo ez ebaluatzeko garaian jakitea neskak ze sexu ohitura zituen, ea inpultsiboa zen edo ez". Informazio aldetik da deskribatuko balitz bezala ze etxe motetan bizi den "erasotzailea bizi da 40 metro karratuko etxebizitza batean, bi balkoi dauzka eta sala eta sukaldea dena bat". Hori agertuko balitz sententzia batean esango nuke "datu hauek zertako balio didate eraso bat ari baldin bagara ebaluatzen". Neskaren izaera deskribatzen badit, nik ere pentsatzen dut berez eraso ebaluatzen ari baldin bagara horrek ez lukeela eragin beharko. Arazoa zen da, eragiten duela. Momentu horretan ebaluatzen dena ez delako eraso, baizik eta salatzailearen sinesgarritasuna eta sinesgarritasun hori ebaluatzeko garaian figura ere aztertzen dugu eta zalantzan jartzen dugu. Guzti honetaz ere kontziente izan behar dugu... zeren arabera ebaluatzen dugu bat fiadagarriagoa den edo ez, aurrekari psikologikoei ere zenbaterainoko garrantzia ematen zaien. Uste dut horrek badituela ere tranpa patriarkal pila bat ze betetzen baldin baduzu emakume onaren estereotipoa, kasu honetan bezala (neska nahiko normal bat, sexu ohitura arrarorik gabe, burua ondo zeukan, etab.) aukera gehiago dauzkazu epaia zure alde ateratzeko. Baina azaltzen bazaitute ero bezala, sexu ohitura arraroekin, alde zure aurretik trastornoak dituen hori dena hasi daiteke zure kontrari joaten eta ez luke horrela izan beharko. Erasoak jarraitzen du eraso izaten.

M: Justizian aldaketa asko egin beharko liriateke, baina ez dakit nondik hasi beharko luketen ere...

S: Feminismoak beti planteatzen du kuestionamendu bat norberetik hasita. Uste dut kritika oso transbersala dela nolabait eremu guztiak hartzen dituen. Baina gu ere eten gabe ariketa hori egiten ari garen bezala, guk kazetariok asko berrikusi behar ditugu gure sesgoak eta gure motxilak ze kontatzen ditugun gauzak baldintzatuegi ez egoteko gure posizio baldintzatuegi ez egoteko gure posizioarengandik. Ez dakit nola esan; pobrezia buruz hitz egiteko garaian kontuan izan behar duzu klasismoak zenbateraino eragin dizun zure hezkuntzan eta zure begirada zenbateraino baldintzatzen duen. Berdin biolentzia matxistari buruz hitz egiteko garaian, kuestionatu behar dituzu ere zure ikasketa patriarkal guzti horiek baldintzatu egiten dutelako zure begirada. Pentsatzen dut lege munduak ari den jendeak berdin egin beharko duela, edo are arrazoi gehiago ze jende horrek idazten du gero “egia” batzuk balio juridiko handia dutenak.

M: Portaera honek, sexu-erasoak bere horretan, desagertzeko edo murrizteko gure gizartean zein aldaketa egin beharko lirakekeela uste duzu? Hau da, nondik hasi beharko ginatke? Non egongo litzateke gakoa?

S: Oso galdera potoloa da hori. Leku denetatik hasi behar da aldi berean. Askotan eztabaida hauek bukatzen dira horrelako komentario orokor batekin dena “bueno, hezkuntzan jarri behar da arreta. Hezkuntzan gauzak ondo egiten baditugu hurrengo jenerazioak ez dute horren gaizki egingo”, eta gezurra da, behin eta berriro baldin bagoaz erreproduzitzen motxila patriarkal hori ez da galduko. Ahazten zaigu hezkuntza ez dela bakarrik haurtzaroa (...) baizik eta bide guztietan goaz elkar. Nik uste dut klabeetako bat dela begirada hurbilean jartzea ez horrenbeste pentsatzea erasoetan besteei gertatzen zaizkien gauza bezala urruti gertatzen direnak, baizik eta saiatzeko identifikatzen benetan askoz ohikoagok diren eraso horiek, askoz ere normalizatuak ditugunak gure egunerokoa: taberna girotan, kuadrilan... Hasita ez bakarrik eraso esplizituetatik baizik eta botere harremanetatik. Beti kontziente izan eraso bat egoteko beti dagoela atzetik botere harreman bat eta seguruenik eraso fisikoa izan denerako horrek izan dituela bestelako espresio kultural, sinboliko eta sozial gehiago sutilagoak baina identifikatu eta gelditu daitezkeenak legitimitate hori erakusteko edo kentzeko garaian. Orduan alde batetik hori, eta bestetik konturatu zenbateraino gai honek eskatzen duen gizarte osoaren inplikazioa. Komunitate txikietan gertatzen denean eraso bat ohikoena da mundu guztiak egitea “aber itxoin, baina niri azaldu zer gertatu den, zirkunstantzien arabera erabakiko dut eraso izan den edo ez” momentu horretan mundu guztia epaile bihurtzen da. Hau gertatzen da komunitateetan jendea jartzen da bataren edo bestearen alde. Horiek dira nolabait niretzako “la prueba de fuego” gertatzen da eta erreakzio ohikoetako bat izaten da “uf, que marron. Aldendu egingo naiz eta (...) agian erasotzailea apartatzen dugu, baina biktima apartatzeko joera daukagu gizartetik”. Estigma bat gelditzen da, kuestionamenduaren duda hori baina ez gara inplikatzeko ez babes aldetik, ez akonpainamendu aldetik eta ezta ere lanketa aldetik erasotzailearekin. Nik uste dut hor ere badagoela ibilbide pila bat egiteko... kritika oso gora doa eta justizia sistemaren kontra doa baita ere, eta kartzela sistema kuestionau behar dela esaten dugu, baina ematen du hori esateagatik ez baldin bagara gai bihar bertan kartzela sistema abolitzeko ez duela balio guzti honek eta ez da horrela. Nahiz eta kritika hor egon, aldi berean gure ingurune inmediatean oraindik nik uste

jokabide aldaketa pila bat daudela posible direnak eta bat hori da “erasoei heltzea” eta hau heltzean pentsatzea komunitatean zer egin dezakegu, ze lanketa bide daude eta horiek identifikatzen ikastea. Beti ari bagara eraso larri horiei buruz, urruti gertatzen direnak, eroak inplikatzeko dituztenak etab. erasotzailea beti izango da bestea gure buruan horrela daukagulako ikasita. Bestea den bitartean, alegia, kanpotarra, urrutikoa, eroa... bestetasun horrek hainbat forma dauzka gure buruan eta hori sinesten dugun bitartean askoz gehiago kostatuko zaigu gure errealitateko erasoak identifikatzea ez gaudelako prest horiek ikusteko. Behin begirada hori zabaltzen hasita, nik uste dut oso erraz ikusten direla asko.

M: Eta aipatu duzun hori, hezkuntzarena... Galdera hau egitean normalean erantzuna izaten da hezkuntza. Zer aldatu beharko litzateke hezkuntzaren bidez zerbait lortu ahal izateko? Aldaketa bat ikusteko hemendik denbora askora zeren eta aldaketa horrek ez dira automatikoak izaten.

S: Nik uste dut hezkuntza formala dela eremu bat gehiago. Ume txikiek kontaktatu dituzte izugarrikeria batzuk... umeei askotan oso modu gordinean islatzen dituzte gizarte bateko balio nagusiak, gizarteko status quo hori eta badauzkate jokabide batzuk eraso sexistak imitatuz, jokabide oso bortitzak. Ez eraso fisikoak egiteko neurrian baina bai performatibitatearen aldetik irudikatzen dituzte oso modu bortitzean. Horrek erakusten digu ere sexismoa eta biolentzia sexista zenbateraino kolatzen diren haurtzaro txikieneraino.

Nik uste dut hezkuntza formalean, noski, asko dagoela lantzeko baina bitartean gizarteak jarraitzen baldin badu gauza guzti hauek esaten, normalizazio horrek existitzen duen bitartean geldituko da oso mugatuta. Oso inuzentea da pentsatzea hezkuntza formalean edo haurtzaroan bakarrik aldaketak eginda horrek ekarriko duela aldaketa bat.

M: Bai, azkenean saiatzen bazara txikiak hezten beste modu batean baina zaharrek denok berdin jarraitzen badugu aldaketa ez da nabarituko. Handiagoak egiten diren heinean guk daukagun jarrera edo portaerak ere ikasiko dituzte nahiz eta txikitan beste zerbait ikasi duten.

S: Gizarteak esaten baldin badizu zuk boterea daukazula... horrekin hasiko zara.

M: Kontatuko dizut pixka bat pasa dudana inkesta bat. Prestatu dut inkesta bat jendeari galdetzeko sexu-erasoen pertzepzioaren inguruan. Hau nire gaiarekin lotuta zegoen. Galdera batzuk prestatu nituen: lehenengo genero-identitatea, adina, sarrera bezala galdetzen nuen ea jendeak alkohola kontsumitzen duen, zein jarrera aldaketa identifikatu ahal izan dituzten alkoholaren kontsumoa dela eta. Galdetzen nuen baita ere ea zer den sexu-eraso bat norberak idazteko bere ustetan zer den... Eta erantzun oso ezberdinak jaso ditut (...).

Zuk uste duzu azkenean pertzepzioa orokor bat egongo dela honen inguruan edo azkenean neska edo mutil izateagatik ezberdintasun asko egongo direla erantzunen artean?

S: Uste dut kontuz ibili behar duzula Interneten troll pila bat daudelako. Anonimotasunak batzuetan barbaridadeak esateko atea irekitzen du. Ez dakit inkesta ze jenderen artean pasatzen ari zaren mugatuta duzun unibertsitateko ikasleen artean edo orokorra den.

M: Ez, gehienbat erantzun dit 20-24 urte bitarteko jendeak. Ez dut mugatu adina ez ezer.

S: Aseguratu nolabait daturen bat eskatuz egiaztatzeko benetako pertsona bat dela eta ez dela errepikatzen. Emaila agian ezin da eskatu zeren imajinatzen dut anonimoa dela. Baina hori, kontuz trollekin ze Interneten pila bat daude.

Kontziente izan behar dugu mugimendu feministak izugarrizko eragina lortu du azken urteetan eta gai hauek asko zabaldu dira baina kontra ofentsiba patriarkal oso sendo bat ere aktibatu da gai honekin. Eta jende horrek horrelako iritzietan islatzen du. Gero seguruenik jende horrek hori aurrez aurre galdetuko bazenio ez luke horrela esplizitatuko. Horrelako inkestek arrisku hori daukate.

Eta gero, nik galdetuko nioke jendeari bere esperientzien inguruan. Kontua asko izan bai/ez galderekin; ez galdetu adibidez: sufritu duzu inoiz eraso bat? Baizik eta: kontatu sufritu izan duzun erasoren bat. Bai/ez galdetzen baldin baduzu litekeena da jende askok lehenbiziko botean ezetz esatea. Jakintzat ematen baldin baduzu mundu guztiak sufritu duela eraso bat noizbait nik uste dut aktibatzen duzula jendeak buelta gehiago ematea gai horri, esfortzu pixka bat egitea.

Behin Berrian egin genuen lan-taldearen artean. Oso garbi ikusten genuen kazetaritzan adibidez emakume kazetarien kontra eraso asko gertatzen direla, askotarikoak. Gehienak hitzezkoak edo jarrerakoak izaten dira. Guri tokatzen zaigu botere esferan mugitzen diren pertsonak elkarrizketatzea eta hau batzuetan beraien etxean ematen da. Prentsan azaltzen den jendea botere bat duena izan ohi da, edo erreferentziakoa dena munduan politikan edo dena delakoan. Ikusten genuen emakumezko kazetari askori gertatzen zitzaizkigula egoera oso mingarriak jende honekin lan egitea tokatu zitzaigunean. Orduan, abiatu genuen barne galdeketa bat (3 galdera ziren, oso sinpleak). Abiapuntua zen “gertatzen dela badakigu gure artean hitz egin dugulako (...), sentido komun gure lana ezagutzen dugu eta logikoena da horrelako egoerak ez bakarrik gertatzea niri edo nire alboan dagoen jendeari baizik eta orokorra izango dela” (...) egin memoria eta kontatu horrela sentitu zaren egoerak, lan eremuan noiz sentitu zaren intimidatua... horrelako zenbat eraso dituzun gogoan. Beti ere kontuan hartuta jendeak burutik ezabatzen dituela gure defentsa mekanismo bat ere badelako hori.

Erabateko kuestionamendutik abiatzen bazara arriskua da jendeak automatizatutako erantzunak ematea, inori ez zaio gustatzen esatea “bai, nik sufritu dut eraso bat”. Buruak ahaztuaraziko dizu, lotsak ez dizu esanaraziko.

M: Justu galdera hori (...)

S: Nire ikerketan ez dut egiten inkestarik, sakoneko elkarrizketak egiten ditut baina hitz egin Marta Luxanekin, soziologia da. Oso aditua da inkestak diseinatzen eta gainera mugimendu feministako kidea da. Seguru lagundu ahal dizula.

M: Inkesta bidali dut jada, pertzepzioaren inguruan da ikusteko jendeak zein iritzi zuen egoera ezberdinetan. Ea justifikatzen den edo ez... erantzunak denetarikoak izan dira eta atal askotan jarri dut idatzi zerbait nahi baduzu, eta bertan bai jaso ditut erantzun batzuk euren esperientziaz

hitz egiten zutenak. Ez dut galdetu zehazki norberak bere esperientzia kontatzeko agian nire lanean ez duelako garrantzia handirik edo ez delako ezinbesteko. (...)

S: Egia da pertzepzioaren inguruan beste ikuspegi bat duzula zu baldin bazara kontzienteki sufritu duena. Baina kontsultatu Martarekin, galdetu ea ze gomendio emango zizun ziur ideia interesgarriren bat emango dizula.

Izaro Icuza-ri elkarrizketa

Maddi: Lanaren aurkezpen laburra.

Izaro: Sarrera bezala jakin dezazun ez naiz aditua gai honetan, ezagutzen ditut ikerketa batzuk baina ez daukat jakintza sakonik. Gaia nahiko berria da eta Espainia mailan ez dago horrenbeste ikerketa. Gaia oso interesgarria da eta pozten naiz animatu izana, oso lan polita aterako zaizu.

M: (...) Lehenengo galdera bezala, nola definituko zenituzke juridikoki sexu-erasoa eta bortxaketa? Zein bereizketa nagusi dagoela esango zenuke euren artean?

I: Erasossexualak bere barne bortxaketa hartzen du, hau da, bortxaketa da eraso sexualen modalitate bat eta baita ere abusu sexualena.

Eraso sexuala kontzeptu zabalagoa da, erreferentzia egiten dio biktimaren borondatearen aurka gauzatzen den eduki sexualeko egitateari, beti ere indarkeria edo beldurraraztea erabili bada. Izan ere, *modus operandi* horiek erabiltzen ez badira, orduan abusu sexualaren aurrean egongo ginateke. Bai eraso sexualean eta baita abusu sexualean, **bietan, bortxaketa egon daiteke**, gertatzen dena da, ZKak abusu sexualaren artikuluan (181.4), bortxaketaren ekintza deskribatzean **ez duela espreski bortxaketa izena aipatzen**, Zigor Kodean deskribatutako portaeran esaten du zigortuko dela “bortxaketa delitu batengatik”, eta aldiz, abusu sexualean “bortxaketa” hitza ez da azaltzen (omite esta referencia). Hau kritikatu izan da zeren eta nahiz eta indarkeria edo beldurtarazterik ez egon abusuan, bortxaketa egon daiteke eta horregatik bortxaketa hitza erabili beharko litzateke. Hori izango litzateke desberdintasuna. Erasossexualaren barne eta abusu sexualaren barne aurkitzen da bortxaketa.

M: Ba justu abusuan ez nengoen fijatua. Hor ere sakondu beharko dut.

I: Bai (...)Galdera egin duzunean, sexu-erasoa eta bortxaketa zerbait ezberdina izango balira bezala planteatu duzu, eta kontuan izan behar da bortxaketa sexu-erasoaren modalitate bat dela eta baita ere abusu sexualarena.

M: Hori da.

I: Bortxaketa da haragitzea, gazteleraz acceso carnal esaten dena (*)haragitzea=acceso carnal por vía vaginal, bucal o anal o introducción objetos por las dos primeras vías. Erasossexualen ez dago zertan haragitzea egoterik, ikutze batzuk izan daitezke adibidez (tocamientos) indarkeriaz.

M: Bale. Begira ba hor sartuko dut atal bat zeren honetan ez nuen arreta jarri.

I: Askotan konfusioa egoten da. Nik uste dut garrantzitsua dela zeren bietan zigortzen da (eraso zein abusu sexualean) sarketa edo bortxaketaren portaera, baina ez da bortxaketaz hitz egiten ez badago intimidazio edo indarkeriarik.

M: Bale.

I: Zuk irakurri artikuluak, oso antzekoak dira desberdintasun horregatik salbu.

M: Bale, oso ondo. Talde sexu-erasoen fenomenoaren inguruan zein informazio duzu edo kriminologikoki ahal izango zenuen deskribatu?

I: Aurretik esan dizudan moduan galdera honen inguruan ez daukat informazio askorik, baina dakidana komentatuko dut. Bi ikerketa ezagutzen ditut Espainian egindakoa:

Lehena **2018an publikatua**, bertan zenbait unibertsitate eta instituzioek parte hartu zuten. Unibertsitateei dagokionez EHU-k parte hartu zuen Cesar San Juan eta Laura Vozmediano irakasleen ekarpenekin, eta baita Universidad Autónoma de Madrid, Universidad de Barcelona eta baita ere Secretaria General de Instituciones Penitenciarias, Guardia Zibila eta Polizia Nazionala.

Ikerketa honetan egin zena zan aztertu ezezagunen artean gertatzen diren eraso eta abusu sexualak. Puntu honetan esan behar da, delitu hauek, **%80kasutan ezagunen** artean ematen direla eta %20an ezezagunen artean gutxi gora behera.

Ikerketa honek %20 hori aztertu zuen eta ikusi zen portzentai horretatik taldean ematen zirenak zirela %20a, beraz, horrek esan nahi du totaletik %4 direla taldean ematen direnak, ikerketa honek aztertu zuenaren arabera. Ikerketak ez zuen aztertu ezezagunen artean gertatzen direnak.

Baina printzipioz, dakidanagatik, taldeko eraso sexualak normalean ezezagunen artean ematen dira. Zuk hobeto jakingo duzu.

M: (...) Informazioan begiratu. Orain hitz egiten ari zaren dokumentua uste dut gordea daukadala informazioaren artean.

I: Esan bezala nik uste dut gehienbat ezezagunen artean gertatzen direla, horregatik uste dut ikertu zutela ezezagunen artean gertatutako delituak. Hor ematen direlako gehiago.

Gero ba fenomeno honen ezaugarri dagokienez, erasotzaile bakarreko kasuekin konparatuz esango nuke **subjektu aktiboaren** nazionalitatea espainiarra dela, kasu honetan bakarkako erasoetan bezala. **Biktima**-ren nazionalitatea uste dut berdina dela baita ere erasotzaile bakarreko kasuetan: gehienetan espainiarra eta gero Hego Amerikarra.

Modus operandian, adibidez, badago ezberdintasun bat: talde erasoak jaiegunetan izaten dira gehiago, zapatu eta gauez, eta leku ireki/publiko baten.

Aldiz, bakarkakoetan nik uste dut ezagunen artean gertatzen direnak kasu askotan etxean eman daitezkeela, baina leku publikoetan ere ematen dira.

Alkoholari dagokionez, ezagutzen dudan bigarren **ikerketan Espainian egindakoa** eta 2020an publikatua izan denak datu interesgarria esaten du, konkretuki esaten da, ohikoagoa dela alkoholaren kontsumoa erasotzaile bakarreko erasoetan baino. Esan bezala ikerketa 2020koa da, Anuario de Psicología Jurídica aldizkarian publikatu zen, Salamankako Unibertsitateko Jesús de la Torre zuzendua eta hurrengo izanburua duena “*¿Por qué se Cometen Agresiones Sexuales en Grupo? Una Revisión de las Investigaciones y Propuestas Teóricas*”. Hau da esan dezakedana, ez ditut ezaugarri konkretuak baina hori da dakidana.

M: Bale. Lehen erasotzaile ezagun eta ezezagunen inguruan hitz egin dugu, nire Gradu Amaierako Lanaren dokumentuan sartu naiz eta informazio horren inguruko grafiko batzuk ditut. Eta bai, arrazoi duzu. Bortxaketen kasuan %33 ezezagunak, %26 ezagunak eta %18 ez daki (ez daki konkretuki zeintzuk ziren erasotzaileak); ondoren beste portzentai batzuk daude baina neurri txikiagoan, aipaturiko hauek dira nagusiak. Sexu-erasoen kasuan baita ere ezezagunak %55. Talde sexu-erasoen inguruko datuez ari gara.

I: Oso ondo datorkit hau jakitea. Hori pentsatzen nuen baina... (...) Aurreko ikerketara bueltatuz, delitu sexualetatik %80a ezagunen artean gertatzen da eta %20a ezezagunen artean. Ezezagunen arteko portzentai hori hartuko zuten ikertzeko fenomeno hau eta horrek esan nahi du, talde kasuetan gehienetan ezezagunen artean gertatzen dela.

M: Bai. Gainera lanean egin dudana datuak azaltzeko momentuan izan da Espainiako datuak jartzea eta ondoren Euskal Autonomia Erkidegokoak. Hemengo kasuetan ere, gehienetan ezezagunak dira.

I: Baita hemen ere. Orduan hau ezaugarri komun bat izango da.

M: Orain beste galdera batzuetara pasako gara.

I: Bale. Aurretik joan naiz esaten, aurreko galderan jada aurreratu dugun bezala **talde sexu-erasoen** kasuan subjektu aktiboak pixka bat gazteagoak dira bakarrik erasotzen duten subjektuekin alderatuz. Adibidez, bigarren hauen adinaren batz bestekoa 27 urtekoa da eta talde erasotzaileena 21 urtekoa. Ikerketaren arabera hau ere aldatu egiten da, nola ez. Baina gutxi gora behera pixka bat gazteagoak dira.

Beste desberdintasun bat da: talde erasoetan liderraren influentzia egon daitekeela, eta taldeetan ematen diren dinamikek ere prozesuan edo delituaren prozesu honetan eragiten dutela. Ez da ahaztu behar taldean onartua izateko nahiaren influentzia egon daitekeela. Ingeles autore batek ere esaten du (...) bakarkako delituetan norbere inpultsuen edo bulkaden arabera jokatzeko dute (...) baina taldekoetan, liderraren influentzia hor dagoela. Hor dago ezberdintasuna.

*“WHILE **sex offenders alone** act motivated **by their own impulses**, other group processes and influences, such as decision making, **leader influence**, presence of norms, group thinking, and deindividuation come into play in **group sexual assaults**. “*

M: Orain komentatu didazun hau Madrileko langileak ere esan zidan. Ikusten zuen normalean lider bat egoten zela eta gero jarraitzen duten beste batzuk, sumisoagoak direnak. Pertsona hauek ez lukete bakarrik jardunez gero delitua burutuko, seguruenik.

I: (...)

M: Alkoholarekin harremana duten galderei ekinez, zuk uste duzu badagoela harremanik alkoholaren kontsumo eta delituen artean (delituak orokorrean)?

I: Bai. Uste dut erantzuna baiezkoa dela. Esan behar da drogak direla (droga legal eta ilegalak, alkohola ere bertan sartuko litzateke) erderaz esaten den bezala => factor etiologico / Criminogeno (favorece / lleva a la delincuencia) de gran parte de los hechos delictivos, hau da, drogak delitua gauzatzea errazten dute.

Drogen kontsumoa burutzen diren delituen %60aren eragilea dela. Drogen kontsumitzaileek erlazio handiagoa dute delituarekin eta biolentziarekin, kontsumitzen ez dutenekin alderatzen badugu. Hau ikusi izan da ikerketetan.

Konkretuki, alkohola da ikerketen arabera delinkuentziarekin gehien lotzen den sustantzia, droga ilegalak baino gehiago. Drogak dira eragileak %60 kasuetan, baina drogen barruan alkohola da gehiago erlazionatzen dena delituarekin beste droga ilegalak baino.

Adibidez, Erresuma Batuan egin zen ikerketa batean ikusi zen hurrengo delituetan autoreia edo biktima edaten ibili zirela: erailketen %65 kasutan; sastaketetan (apuñalamiento) %75 kasutan autoreia edo biktima edaten ibili zen; borroketan eta baita etxeko indarkeriaren %50ean; eta lapurreta eta ebasketetan alkoholaren eragina hor zegoen, alkohola zuten odolean delitua burutzeko unean. Erlazionatzen da delituarekin orokorrean eta baita ere sexu-erasoen kasuan barne sartuko zen. Eta lehen esan bezala, konkretuki delitugile (...) talde erasoetan ohikoagoa da alkoholaren kontsumoa.

M: Honekin jarraitzeko, talde sexu-erasoen kasuan delitu hauek askotan alkoholaren kontsumo testuinguru batean gertatzen direla uste duzu?

I: Hasiera batean, lehen aipatutako ikerketak irakurri baino lehenago nire susmoa zen baietz, portzentai altu batean horrela zela. Aurreko galderan esan bezala, orokorrean delitu askotan alkoholaren presentzia dagoela frogatu da. Behin aipatutako 2020ko ikerketa irakurrita, badirudi baieztatu dezakegula alkoholaren presentzia talde erasoetan ohikoagoa dela bakarkako erasoetan baino.

Orduan ba nik uste dut baietz. Eta lehen esan duguna, gauen jai giroan ematen dela ba... baietz, badirudi baietz baduela bere papela alkoholak oso garrantzitsua dena.

M: Bale. Eta zuk uste duzu talde sexu-erasoetan, non erasotzaileen partetik alkohol kontsumoa dagoen (adikzioa ez dut uste, gehienbat da kontsumo esporadikoa) baina uste duzu alkohola eraso horren kausa izan daitekeela?

I: Ez dut uste hori kasua denik esan dezakegunik, behintzat ez dut uste hori oraindik frogatu denik ikerketa bidez (edo gutxienez nik ez dut ezagutzen, baina egia da honetan ez naizela aditua). Hala ere, bai esango nuke alkohola delitu horien desenkadentea / piztailea dela, alkoholak erasotzailea animatu edo bultzatu dezake delitua gauzatzera behar duten ausardia hori ematen diolako. Horregatik paper garrantzitsua du. Aipatu dugun ikerketa horretan esaten du gainera ohikoagoa dela kontsumo esporadikoa talde erasoetan. Baina hori, esan bezala kausa ez dut uste baina bai uste dut, esan bezala, desenkadentea izan ahal dela, bultzatzen duela ideia hori duenari momentu baten portaera hori aurrera eramatea.

M: Bale, oso ondo. Bloke hau ere amaitutzat emango dugu, eta aringarri eta salbuesleenean sartuko gara. Zein iritzi duzu toxikazio oso eta abstinentzia sindromearen inguruko salbueslearen inguruan?

I: Lehenik, esan behar da, bai aringarri eta baita salbuesleak (bigarren hauek izan daitezke salbuesle osoak edo partzialak / eximente completa edo incompleta erderaz) beharrezkoak direla eta egokia dela Zigor Kodeak horiek aurreikustea. Zergatik? Horiek laguntzen dutelako gauzatu den portaerari erantzun egoki bat ematen kontuan hartzen delako subjektu aktiboaren erantzukizun maila.

Adibidez, frogatzen bada sujetu aktiboak ez zeukala gaitasunik aurrera eramandako portaeraren zuzenbide kontraktasuna ulertzeko (izan daiteke eskizofrenikoa delako eta brote bat izan duelako edota kokainaren kontsumoak gauzatutako brote psikotiko baten ondorioz jardun duelako) logikoa da Zigor Zuzenbidearen erantzuna desberdina izatea. Hori bai, horrek ez du esan nahi beti kokaina kontsumitzen egoteagatik edo egoera horretan dagoenari portaera deliktiboa gauzaten duenean automatikoki salbueslea aplikatuko zaionik. Izan ere, bigarrenik, esan behar da salbuesleak Zigor Kodean modu zorrotzean arautzen direla, hau da, ez dira modu orokorrean edo automatikoki aplikatzen, baldintza batzuk bete behar dira. ALIC (actio libera in causa) formula aplikatu behar da, hau da, delitua gauzatu baino lehenagoko egoerara jo behar dugu hori aztertzeko. Konkretuki, aztertu behar da ea toxikazio egoera hori probokatua izan den edo ez (probokatua izan bada ez da aplikatuko). Ez bada probokatu, orduan aztertzen da ea aurreikusi den, edota ez bada aurreikusi ere aztertu beharko da ea aurreikusi zezakeen. Pertsona batek aurreikusi zezakeen edan eta gero portaera hori aurrera eramango zuela? Batzuetan bai, beste batzuetan ez; batzuetan bai, adibidez: astebururo edaten duzu eta edaten duzun bakoitzean ikusi da oso biolento jartzen zarela, edo emakumeekin oso astuna jartzen zarela... kasu horretan, printzipioz ezin da aplikatu. Egoera hauek aplikatzen dira benetan egokia delako

aplikatzea, adibidez eskizofreniaren kasuan edo abstinentzia sindrome bat. Egoerak zeinak zuk ezin duzu kontrolatu eta ez duzula aurreikusi ere. Zorrotz aplikatzen dira.

M: Bueno suposatzen dut iritzi berdina izango duzula aringarriaren inguruan, erabatekoa ez den mozkorraldi edo toxikazioaren aringarriaren inguruan.

I: Hori da, bai. Berdina da.

M: Azkenengo galdera bezala, zuk uste duzu sexu-eraso kasuetan aplikatu beharko liratekela orain aipaturiko salbuesle eta aringarri hauek? Edo ez?

I: Zigor Zuzenbideak zigorra ezartzean begiratu behar du zein izan den lesionatutako ondasun juridikoaren garrantzia (bizitzarekin bukatzea edo lesio txiki bat egitea), baina baita ere egilearen erruduntasuna.

Salbuesle eta aringarriek egiten dutena da graduatu erruduntasun hori, hau da, erantzun proportzional bat ematen saiatzen dira gertatutakoari, beraz, zentzu horretan ez dut uste arrazoirik dagoenik sexu-erasoetan horiek ez aplikatzeko.

Ziurtatu beharko da kasu konkretua eta beharrezko bada aplikatu beharko da, erantzun egoki eta proportzionala emateko pertsona horrek gauzatu duen delituari. Ondo ulertu da?

M: Bai ondo ulertu da. Hau zure iritzi bezala: zuk uste duzu kontsumoa gau batekoa bada, hau da, gau batean edan dut eta sexu-eraso bat aurrera eramaten dut eta ondoren ahalegintzen naiz aringarria lortzen... uste duzu aplikatu beharko zela edo ez?

I: Kasu hori izango zen "como un fraude". Kasu horretan nik uste dut ezetz, zeren eta subjektuak aurreikusi du edo aurreikusi ahal zuen. Egin duena da ausardia lortzeko, delitu hori aurrera eramateko baliabide edo teknika bezala alkohola erabili. "Un instrumento para cometer el delito de forma más comoda". Azaldu duzun kasu honetan inondik inora ere. Pertsona horrek gaitasuna dauka kontrolatzeko egiten duena, beste gauza bat da animatuago sentitzea. Kontrolatzen du egiten duena baita ulertu ere, erruduntasunak bi gauza horiek hartzen ditu kontuan. Kontsumo esporadikoari buruz ari gara ezta?

M: Bai, hori da.

I: Bale. Abokatu defendatzaileak agian erabiliko du defentsarako bide hori. Baina printzipioz ez zait iruditzen, hau ez da egin behar.

M: Ba listo, ez daukat ezer gehiago.

I: Oso ondo, horrekin nahikoa baduzu.

M: Ahaztu egin zait galdetzea zure aurkezpen txiki bat edo, zure espezialitatea edo zein ikasketa dituzun. Sarrera txikitxo bat egiteko.

I: Nik tesia Espetxe zigor iraunkor berrikusgarriaren (Prisión Permanente Revisable) egin nuen. Batez ere Zuzenbideko aspektuak landu ditut, baita ere espertu kriminologikoa ere ikertzen egon

nintzen Cambrige-eko Kriminologiako Institutuan landu dut, Espainian ere (...). Zuzenbidean ematen ditut klaseak eta baita Kriminologian ere.

INFORME EXEKUTIBOA

Orrialde hauetan irakurri ahal izan den lana talde sexu-erasoen ingurukoa dela esan daiteke orokorrean, baina eraso hauen eta alkoholarekin izan dezaketen harremanaren ingurukoa dela adieraziko dugu, zehazki. Lana erasotzailearen perspektibatik landua izan da, beraz alkoholaren kontsumoaren atala ere honekin erlazionaturik egongo da, gehienbat. Sarreran esan bezala, ez gara biktimaren ikuspuntuan barneratu atal hori biktimologiaren ikuspegitik egin beharko litzatekeelako. Beraz, bi fenomeno hauen artean ea kausalitaterik ezarri daitekeen gertutik ezagutu nahi izan dugu, baita hauen inguruan jendartean dagoen pertzepzio soziala ere. Horrez gain, problematika hauek Zigor Kodearen ikuspegitik landuak izan dira, delitu hauen zigorrak eta erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarren aplikazioa gertuagotik ezagutuz. Delitugile hauek zigorra edo neurria betetzen ari direnean jasotako tratamenduetan ere barneratu gara eta gertuagotik ezagutzeko aukera izan dugu.

Emakumeek betidanik sexu-erasoak jasan dituzte eta hauek urte askoan zehar estalduak edo izkutatuak izan dira, ez dute beharrezko ahotsa izan. Azken urteetan, itxuraz talde sexu-erasoen gertaerek gorakada handi bat izan dute. Datu hauek jasotzen direnetik gorakada eman dela esan daiteke, jasotako estatistikek horrela adierazten bai dute. Baina, honen atzean jarraipen mediatikoa, mugimendu feministaren mobilizazio masiboak eta emakumeek salatzeari modu batean beldurra galtzea egon daitezke. Faktore guzti hauek errealitatera gerturatzen digute.

Lana bi atal nagusietan banaturik dago. Lehena, teorikoa da. Autore ezberdinen testu eta ikerketen ekarpenak jaso ditugu, Espainiarrak zein nazioartekoak. Baina ez hori bakarrik, zati honetan estatistikak, tratamendu programen azalpenak eta Zigor Kodeari erreferentzia egiten dion sekzioak ditugu. Bigarrena, atal enpirikoa izango litzateke. Hau jendeari Internet bidez bidalitako galdetegi batekin eta arlo ezberdinetan adituak diren pertsonen elkarrizketatuz bete dugu. Bakoitzak, jasotako emaitza eta erantzunekin ateratako ondorioak jasotzen ditu.

Nazio Batuek (1993) honela definitzen dute emakumeen aurkako indarkeria: *“emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dion edo ekar diezaiokeen genero-indarkeriako ekintza oro (...)”*. Sexu-indarkeria edo sexu-erasoak emakumeak pairatzen duen indarkeria matxistaren beste adierazpen bat dira. OMSek (2017) jaso bezala, *“sexu-indarkeria edozein sexu ekintza da, pertsona baten sexualitatearen aurkako sexu-ekintza bat (...)”*.

Sexu-indarkeriaren parte dira talde-sexu erasoak. Hauek “*bi egile edo gehiago dituzten erasoak*” izango dira (94 or.) (Chambers, Horvath eta Kelly, 2010 zitaturia). Talde-taldek faktoreak oso paper garrantzitsua du eraso hauetan eta horrela adierazi dute adituek. Redondo et al. (2012) ek, adibidez, talde bateko kide izateak erantzukizun pertsonala minimizatu, portaeraren desinhibizioa bultzatu, delitua erraztu eta taldeko kide bakoitza indartu dezakeela adierazi zuten. Egin dugun elkarrizketa batean, DR-k komentatu moduan “lidergo negatiboaren” inguruan hitz egin zigun. Talde hauetan, normalean lider papera izan ohi duen pertsona bat egoten da, eta besteek paper “sumisoagoa” izan ohi dute. Honen ezaugarri taldearen onarpena bilatzeko joera izan daiteke, eta ez dugu ahaztu behar erasoak justifikatu ditzaketen ordezkoko kode moralak izatea (Redondo et al., 2012).

Geo Violencia Sexual web orrialdean jasotzen diren datuek adierazi bezala, 2016 urtetik, taldean egindako 166 sexu-eraso erregistratu dira Espainian. Urte bakoitzeko kopurua honako hau izan da: 2016 → 18 kasu; 2017 → 14; 2018 → 60 eta **2019 → 73 kasu**. Ikus dezakegun bezala, 2016 eta 2017 urteen artean beherakada txiki bat eman zen. Baina ondoren, 2018an izandako gorakada oso nabarmena da, 2017ko datuen laukoitza baino gehiago. 2019an, taldeko sexu-erasoen zifra marka erregistratzen da: 73 kasu, aurreko urtean baino 13 gehiago. 2019an ezagututako kasuek soilik erabilitako datu base honen %43,7a suposatzen dute. Datuekin jarraitzeko, 2016 urtetik aurrera hiru talde sexu-erasoetatik bi bortxaketak izan ziren (104 kasu, %62,7a); gainerako %37,3a beste mota bateko eraso bezala jaso dira (Atencio et al., s.f.). Datuak erregistratzen dituztenetik izandako gorakada nabaria da.

Jokabide oldartsuak edo indarkeriazkoak alkoholaren kontsumoarekin erlazionatu daitezke, zuzenean? Bada, eztabaidagarria da eta lanean jaso bezala autore batzuek diote lotuta egon daitekeela, baina ez dago adostasunik honek jokabide hauetan izan dezakeen eragin zuzenaz (Pascual, Reig, Fontoba eta García del Castillo-López, 2011). Gelles eta Strauss (1988) autoreek diote alkohola edatearen eta indarkeriaren arteko harreman enpirikoak ez duela onartzen alkoholak indarkeria eragiten duela. Hau da, bata ez da bestearen kausa bakarra edo zuzena. Beraz, alkoholak norbanakoan duen eragina eta bakoitzak duen portaera edo jokaera kulturala eta sozialki ikasia izan daiteke (Gelles eta Strauss, 1988 / Pascual, Reig, Fontoba, eta García del Castillo-López, 2011 zitaturia). Harreman hau egiten duten teoria ezberdinak daude eta horietako bat **desinhibizioaren teoria** dugu. Alkohola kontsumitzean bulkadak geldiarazteko mekanismoak lausotuta geratzen dira. Baina, jokabide hauek burutzeko teoria oinen arabera egoera-faktore batzuk egon behar dute. Alkoholak garun sistemen fisiologiari

eragin eta desinhibizioa ematen da, behin eta berriz aipaturiko jokabide oldarkorrak azalduz (Pascual, Reig, Fontoba, y García del Castillo-López, 2011).

Sexu-erasoetan alkoholaren presentzia ohikoa al da? Kasuen erdietan ematen da gutxi gora behera. Baina, alkoholaren kontsumoak eta sexu-erasoak sarritan bat egiteak ez du frogatzen alkoholak sexu-erasoa eragiten duenik. Esan dugun moduan, faktore asko eduki behar dira kontuan, Abbeyk (2002) hauek jaso zituen: *genero rolen sinesmen tradizionalak (sexualitateak); alkoholaren ondorioei buruz gizonak dituzten itxaropenak; edaten duten emakumeei buruzko estereotipoak; gizonak emakumeen asmo sexuak buruz dituzten pertzepzio okerrak; alkoholak erantzukizunaren pertzepzioan dituen ondorioak*, etab.

Espanian aplikatzen diren tratamendu programei dagokienez, bi ezberdindu ditzakegu nagusiki. Alde batetik, espetxean aplikatzen den programa izango dugu "SAC" deitua. 1996. Urtean hasi zen aplikatzen Garrido eta Baneytoren eskutik. Izenburuak honela dio: *"El control de la agresión sexual: Programa de intervención en el medio penitenciario"*. Helburuak hauek dira: birgizarteratzeko aukerak zabaldu eta berrerortzekoak murriztea, distortsio eta justifikazio deliktiboak murriztuz norberaren jardura deliktiboen azterketa errealistago bat sustatzea eta pertsona arteko harremanetarako eta komunikaziorako dituen gaitasunak hobetzea. Beste aldetik, Madrileko Erkidegoan adingabeei aplikatzen zaien programa dago, *"Programa de tratamiento educativo y terapéutico para agresores sexuales juveniles"*. Eskuliburu hau D. Santiago Redondo Illescas-ek Adin txikiko Arau-hauslea Berrezteko eta Gizarteratzeko Agentziarekin lankidetzan egindako prozesuaren emaitza da. Adingabeei zuzendua egonik, programa honen helburuak hezigarri eta terapeutikoak dira: egiletza eta delituagatik erantzukizuna bere gain hartzea, portaera arau-hauslearen azterketa, berrerortzera eraman dezaketen arriskuzko erabaki eta egoerak identifikatzea, biktimarekiko enpatia-gaitasunaren garapena edo hedapena, eraso errazten duten distortsio kognitiboen aldatzea, jokaera sexuala aldatzea, etab.

Programen inguruan ari garela, gehitu nahiko genuke Adingabeen Zentro eta Espetxeen artean dagoen komunikazio falta. Lehen eskutik jakin izan dugun bezala, espetxeek ez dute adingabeen espediente zaharrera sarbiderik eta Administrazioen artean ez dago koordinaziorik ezta informazioaren elkartrakerik. Beraz, adingabeei programa aplikatu ondorengo berrerortze-tasa ezagutzea ia ezinezkoa egiten da.

Nazioarteko programen harira, sexu-erasotzaileen tratamenduaren arloan garapen handiena duen herrialdea Erresuma Batua da. Bertako Espetxe Zerbitzuek hainbat programa diseinatu eta aplikatu dituzte. Nagusia, *Sex Offender Treatment Programme (SOTP)* da. Delitugile Sexualen Tratamendurako Programa hau 1990ko hamarkadaren

hasieran martxan hasi zen eta egun, delitugile hauentzako programa-multzo bilakatu da. Beraz, sujetuaren ezaugarrien arabera programaren bertsio batean edo beste batean egongo da. SOTP-en muinaren helburu nagusia delitugile sexualek ekintzak justifikatzeko eta desenkusatzeko erabiltzen dituzten kognizioei aurre egitea da.

Madrileko adingabeen programa aplikatzen den zentroko langileak adierazi bezala, sexu-erasoen eta alkoholaren problematika programa ezberdinetan lantzen dira. Alkohol edo drogen kontsumoa ez da erasotzaile guztiek duten arazoa edo arrisku faktorea. Gauza bakoitza lanketa ezberdinak behar ditu eta programa bakoitzak gazteek dituzten problematika berdinak edo antzekoak jaso behar ditu.

Alkoholaren kontsumoaren inguruko erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabarrei dagokionez, hauek sexu-eraso kasuetarako ere aurreikusi behar direla adierazi digu Izarok, hauek erruduntasuna graduatu eta erantzun proportzional bat ematen ahalegintzen direlako. Baina, kasu bakoitza indibiduala da eta horregatik zuhur baloratu beharko da.

Galdetegiari dagokionez, eta jasotako erantzunen arabera jendearen pertzepzioak adierazten du gertatu litekeela jendea agresiboagoa bilakatzea alkoholaren eraginez eta hori festa giroan eman daitezkeen portaera bortitzekin erlazionatu daiteke. Badago alkoholaren kontsumo eta erasoen arten harreman kausala egiten duen jendea, baina adituek esandakoa gureganatuz, faktore ezberdin asko eduki behar dira kontuan, beraz, kausa efektu erlazioa baztertu egin beharko litzateke. Hala ere, jendartean ez dira portaera hauek justifikatzen.

Ondorioetan azalduko intereseko atal batekin lanaren informe exekutiboa ixtera joko dugu. Eraso hauek ekiditeko edo aurre egiteko egin beharrekoari dagokionez adituen artean adostasun falta dago. Batzuek, hezkuntzan fokua jarri beharko litzatekeela adierazten dute, hezkuntza goiztiarrean. Gakoa berdintasun eta balioetan heztean dago, indarkeriarik eza, sexu-askatasuna. Baina, honen kontrara beste profesional batzuek diote hezkuntzan arreta jartzearekin soilik ez dela beharrezkoa lortuko, ahaztu egiten bai zaigu hezkuntza ez dela soilik haurtzaroan jasotzen. Zer egin dezakegun identifikatzen ikasi behar dugu, begirada hurbilean jarriz eta gizarte osoaren inplikazioa bultzatuz.